





Argia.

XI' Urtia. — 185' gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922' ko Urtañila'ren—1



XI' Urtia. — 185' gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922' ko Urtañila'ren—1

URTE BAÑI

Azkenengo zenbakijan agindu gendun lez, emen daukazue JAUNGOIKO-ZALE mardotuta, bañiztuta, apainduta. Len baño ori bi geyago irakurğai ederež betiak, beste bi iragañki edo anuntzijoak ipinteko, azala bañiz sendo ta txukuna ta gustijau apaingari ederež jantzita, euseria be eřazagoa; orixe izango da aurtengo JAUNGOIKO-ZALE. Euserkerazko aldizkingirik zařena izanařen, zirtzil eta zatařez bere burua ez dau agertu gura. Ondo azija da-ta, euskaldun etxe gustijetan abegi onez artu dagijela gura daun ezkeru, alai, txukun eta begiragañi dator. Urteoro bañiztuten dala, zařago ta bañijago agertzen yaku.

* * *

Bañikuntza onek gure bazkunaren auřerapena dikuř. Oso txiro jayo zan bazkun au. Abade txiro batzuk, iñori laguntasunik eskatu barik, ta zarata barik sortu eben-ta, ezin besterik izan zeitekian. Baña gero, beronen lan onuratsua agertu danian, bazkidiak geitu dira, laguntzaliak eldu yakoz, kistar zintzoak eskua luzatu dautsie; ta urterik urtera sendotu ta indařtu da, beronen argitalgunak ugaritu ta ederřuten dirala.

Gaur asten dogun urte onetan auřerakada andija egiteko ustea dogu. JAUNGOIKO-ZALE ořiz mardotu ta bitxiz apaindu dogula ikusten dozue; baña ez gara ořegaz naikotuten. Ořez ganera iloro *Eleiz-Ofia* argitalduko dogu (lenengo zenbakija ointxe urten da) ta laster umientzako beste aldizkingi irakaskoř baña jori ta atsegintsua egingo dogu. Idaztijak bañiz, urte bañuan argitaltzeko gertetan diñardue idazle azkařak.

JAUNGOIKO-ZALE-BAZKUNAK eginkizun asko ta andijak daukaz eta auxe euskaleriko aberatsak ikusi, gogorařtu ta ulertu dagijenian, gustijak samurř-samurř egin al izango doguz gure eři maite onen onerako.

Gure bazkide gustijei, urte bañi zorijontsua opa dautsegu.

neuribako erukitasuna eskatzen dautzugu, o alguztidun betiko Jaungoiko ori; gorputz - arimentzako osasuna izan daitela gatz berau aŕtuko dabon guztientzat; eta beronek ukutu, buzti edo ezkotuko daun edozer gauza, deabru gaiztoaren edozein loikeri, kalte edo aŕezkadatik jagon daitela. Zeugaz eta Espiritu dontsuagaz batera betiraun guztian bizi ta aginduten daun geure Jaun eta zeure Seme Jesukristo, Jaungoikua gaitik».

I. J. M.

(*Daŕaŕke*).

ITAUN - ERANTZUNAK

Jakin gure — Josu'ren Jayotz irudiak Gabon jayetan ipinteko oiturea; antxiñekoa ete da?

— Bai, aspaldiko oitura samuŕa da. Lenengoz Asis'tar Pantzezka Jaungoiko zale gaŕtsuari otu yakon. 1223'gn. urtean Greccio'n egoala, Josu'ren Jayotza berariz ospatzea erabagi eban. Oŕetarako lekaretxe (komento) inguruan egoan mendiko aitz-zulo baten Bethleem'go estalpearen irudi bat asto, idi, ta gusti gertau eban. Gaber'dan lekaide gustiak ta gizoste andia bertaratu ta jaupa (Mesa) nausia esan eban. Pantzezka deunak berak, Goizparkia abestu ta itzaldi egoki ta samuŕa egin eutsen. Eta aŕezkero oitura eŕef au aŕigaŕiro kistaŕ artean zabaldu da.

Kezkati — Damutu gura-ta, alengindu aŕen damurik eztozula susmetan eta tamalez artega zagozala diñozu?

Okeŕ zagoz ba. Damua bera, eta euki gura izatea, bat-bat izan ez aŕen, ia beti alkaŕtuta dabilz. Eztaukozu ba kezkaz ibili beafik, damutausunik sentidu ez aŕen. Damua gogoz euki beaf da, eta oŕetarako sentidu beafik ezta.

Galtzeko bilduf — Oben astuna egiten danean aŕfetikoi irabazi gustiak galtzen ete dira?

— Bai, baña maitasunezko damua aŕtu, ala ondo autoŕtu ezker, Jaunak bere erukiz baŕiro biuritzen daukuz. Ostera obenak bein parkatu ezker, baŕiro obenean jausi aŕen, lengoak eztauskuz leporatzen. Gure Jaungoiko ona alakoxe erukioŕa da.

M'tar G.

ZER EDO ZER

Zezenketak eta basafikeria.

Lengo zenbakian Doipuruak jolas galgaŕi au kistaŕ artetik basteŕtutea gura dabela esan gendun. Eta kistaŕ gogoagaz alkartu ezin leiken jolas au, gizabide edo zibilizaziñoen izenean basteŕtu beaf litzake. Egutegi baten jolas onetan España'n, 1920'n. eta 1921'gn. lenengo sei ilabeteetan zauritu diranen ereskada ikusi dot ¿zenbat dirala uste dozue? 159 gaizki zaurituak, eurrotatik sei beintzat ilak, eta bat plazan bertan. Ori zibilizaziñoa ba'dok... eurontzat!

izaŕak gasteful

Au irakurita batzuri destañezko iribaŕetxoak espanetara urtengo dautso; ta baten bat pozez beterik jaŕi leiteke. Baña burua zurituta daukona ezpeite laŕegi poztu; eta gaste dana, destañez iribaŕe egiteko aŕnan ziñesgogoŕa be ez izan.

Aspaldi, amasaspi urte oneitan batez be, zaŕak gastetzea asmau ezinda osagiŕe asko bai asko alegiñetan dabilz. Ez zaŕai urteak lepotik kentzen, au lapuŕetea izango litzake-ta; baña bai eurai be gasteen sendotasun apuŕ bat emon gurarik. Osagiŕe onein artean geyen gaŕendu dana Eukeni Steinach Viena'ko osagiŕe jakintsua izan da, ta landara, abere, ta gizonen artean be, gauza aŕigaŕiak loŕtu ditu, sendatu ta gaste usaŕia emonaz, batez be. Onetarako ebatze ala txertatzea erabili oi dau. Uste dogu denporeaz zerbait loŕtuko dabela. Orain arte egin dabezan sendatze ta gastetzeok iraunkoŕak izango diran ala ez aldiak esango dau.

Bitar'tean bizitzea apuŕ bat luzetzea loŕtu aŕen, zaŕak il egin beaf! eta gasteak... be bai!

Gastefu barik luzaro bizl izan diran batzuk.

Oŕaitiño osagiŕeak zaŕak gastetzen azi baño len be, lotsa barik ilteko sasoiŕa eldu diranak ainbat dira. Batzuen izenak ementxe ipiñiko doguz.

Czartan Kepa ungaŕitaŕa, Lavit, eskoziataŕa ta St. Mungo'ko Kentgern, 185 urte lepoan ebela il ziran, ta Dieppe'ko Damhik 173'gaz.

Thomas Earn, 1588'n jayo ta 1795'n. il zan, beraz 207 urtegaz. Poliman, lorenataŕ osagiŕeak, bizien-ebatze bat egin eban, 140 urte beteko eba-

zan aurreko egunean. Apur bat gitxitxoago baña beste batzuk be zar egin ziran. Florg Pantzezka Smirnatafa 114 urtedun il zan. Inoz edaberik ezeiban aftu. Ostrugo Jon, 147'gaz, artoa bakařik jaten ei eban; Legier 107'gaz beti ortozik ibiltan zan.

Maurmy 119'gaz barazkiz bakařik alikatzen zan. Au ez ei zan inoz asafetu ta itundu bez. ¡Ezeuken gibel txarfa! Oneitatik bariz batek be tripakadarik ez ei eben egiten. Auxe azkenengo au gibel anditxoagaz ta... JAUNGOIKOAREN BAIPENAZ luzaro biziteko txarrena ez tala izango uste dot.

Luzaro biziteko zer egin?

Roger Bakon lekaide jakintsuak esaten eban, gizonak daukozan bizitz indarřak zaintzen ba'le-

ki, mila urtean biziko litzakela. Eta Florens osagiře jakintsuak be k'irio txortak (nervioak) aztertuta bizia daukogun baño luzeagoa euki beař gendukela irakasten eban. Auxe dala-ta:

Bein osagiře jakintsu bati itaun au egin eutsoen:

—Gure bizitza luzetuteko erakuskuzu bidea.
Eta bertatik erantzun eutsen
«Bizitza ez laburtzea».

GAMA.



Eusko-lugin lanak

(Foto. Manterola)

E G U Z K I A

GAZTETXOENTZAT

(Schmid)

Bein emakume maratz bat, bere seme ta alabeagaz baratzean lan eginda, ilunabaréan etxera biurtu zan. Etxean sartu ziranéan, mai ganean argi bat biztuta ikusirik aritu ziran.

Jorka'k izuturik esan eban:

—Etxéan inor ez da, au zelan izan leike? Argi au nok ixiotu ete dau?

—Nor izango zan ba, aita izan ezik, diñotso Margarite'k. Guk baratzean ekin dautsogun artean uritik etoriko zan.

Berealaxe etxea arakatzen asi ziran, eta pozez beterik alboko gela baten aurkitu eben.

Ufengo goizean zelayan bedar ebateari ekin eutsoen. Eguzkiak bere edertasun gustiak dis-diska agertzen ebazan.

Jorka ta Margarite, pozez bere edertasunari begira egozan.

—Umeak; — aitak esan eutsen — atzo geure gelako argia neuk ixiotu nebala lan andi barik igari zenduen. Gau argi eder ori goyetan dis-diska ikusirik, nok ixiotu daben igariko ete zeunskioe.

Margarite'k erantzun eban: Ori ziu'z-iu' Jaungoiko ona da. Argirik txike'ena be berez ezin leiteke ixiotu. Beraz eguzkia ixiotu dabena be, norbait ba'da.

—Egia da izan be—erantzun eutson Jorka'k pozez. Eguzkia, ilargia, ta izarak, bedar, lorak, ta zugatzak, itz baten inguruan dakusgun gustia, bere eskuetatik urtena da.

Goyan dis-dis dagien eguzkia

Jainko altsuaren ezaubidea.

G.



Irakuskunde - Osteko, III Igandea

Matai-Deunaren Goizparikiko, VIII atzalburutik, esakun - eřeskada batzuk.

Aldi atan: 1.—Eta mendirik jasten ediña, talde askok jaññu ixan eben.

2.—Eta ara legenařduna dator ta gurñatzen dau bera, esanaz: Jauna, gura ba'dozu, garbi-nintzake.

3.—Eta Josu'k eskuba zabalduki, ukutu ixan eban, esanik: Gura dot: Garbi zadi. Eta, beinguan, beren legenařa garbifu zan.

4.—Eta Josu'k diñotso: Ekixu, iñori ez esan; baña zua, jauparijari agerñtu zadi ta opea, Mois'ak agindutakua, euroen ziñalbenarako, opaldu-egixu.

5.—Kaparnau'n sařtuki, Eun-Buruba, beregana, eldu zan, berari otoyez.

6.—Eta diñola: Jauna, nire jopuba, etxian, erbalduradun etzunda dago ta gaizkiro nekaltzen da.

7.—Eta Josu'k diñotso: Neu natoř ta osatuko dot.

8.—Eta Eun-Burubak, erantzunik, diño: Jauna, nire etxera zatořala, duin enaz; baña-itxa, bakařik, esazu ta nire jopuba osatuko da.

9.—Neu, be, gixona naz, aginzpian nagona, ta neure membian, gudarijak daukadaz, ta oneri, diñotsat: Zua, ta dua; eta bestiari: Zatoř, ta dator; eta neure otseñari: au dagixu, ta dagi.

10.—Josu'k, entzunda au, geldu zan eta jařatzaliari, iñuan: Egiz diñotsubet, Israel'en, ziñesmen andijagorik, ez dot idoro.

11.— Diñotsubet: Sořkaldetik eta Sařkaldetik, enda asko etořiko dirala, ta Abraham'akin, eta Ixakar'akin, eta Jakob'akin, donokijan, jařiko dirala.

12.—Baña bakaldeřiko semiak atilundijetara jauřtiduko dira: bertan, negařa ta agin kařaskadea, ixango da.

URTE ZAĀ ETA BAĀIA

ALKAR-IZKETAN

Urte zaĀa baĀiagaz
bidean aurkitu da;
baĀia pozez beterik
zaĀa baĀiz itun da.

—¡A, gaxoa! -diĀo zaĀak-
eztakik nora atōren,
ni bertatik iges Āatok,
an onok i baĀo len.

Neu beintzat aspeĀtu Āabek,
atsekabez tximuĀtu;
eta oben galgaĀienak
neuri bizkaferatu!

BaĀia yakingureak
damotson poztasunaz,
zaĀa naigabez aspeĀtu
danaren betilunaz.

An baĀiz nai non yaok auxe: Onexek samintzen Āok ni,
«gaĀztakeri ugari».
gogait eraiteko aĀan
Job dontsu berberari.

Onexek samintzen Āok ni,
onexek Āaukok itun!
Eugaz bardin eingo yabek;
egon adi yakitun!

-Gastetxo, poz andia dok,
arpegiak diĀonez;
aĀnbeste poz zer dala-ta?
esan eidak eskaĀez.?

Adizkideak ugari
bai'dozak aurkituko;
baĀa gaxoa, bai'dakik,
yakin gurok zertako?

Pozik oa, gaste, baĀa,
lasteĀ az i aspeĀtu,
ta nire adiĀerako
Aitagana biurtu.

—Ludi-baĀi yakiteko
dok nik yaukadan poza;
i baĀiz andik etōi
eta itun zer dala-ta?

Eure zain yagozan askok
lagun egingo abe,
baĀa euren lagun baĀo
bakaĀik egon obe.

BaĀa oĀaitik bai'dozak
eu laguntzat abela,
yoan gura dabenak be,
zuzenez donokĀra.

Ludian edonok aintzat
artuko Āok bai'dakik,
andik at ezeĀtxo bere
enazala eztaĀik?

Obenean yaĀaitzeko
yaukek eure beaĀa,
Uste dok ik eure maitez
artega dabiltzala?

Neuk baĀo zori obea
euko al dok ba, gaste,
Iraduz Āoak ta, ¡AguĀ!
¡UĀengo urterarte!

Neure zain asko yagozak,
zoruna lortuteko,
Zergaitik ba -esan eidak-
alalai enok egongo?

¡Gaxoa! zer uste dok ba,
ire on nai dirala?
Ori ziĀez uste ba'dok,
jezago *lelo* txafa!

¡AguĀ ba! ¡EskeĀik asko!
Urte zaĀ begikoa!
Kendu daustak ludirako
Āeukan poz ta gogoa!

ZER EDO ZER

¡Ume efukafiak!

Bourne kafdenalen aginduz, *M. W. A. Mac. Kenzie* jaunak, guda galgariak gosearen erpepean itxi dituan latefietatik ostera bat egin dau. Igaro dan Dagonila'ren 9'tik Iraila'ren 6'arte, Alemania, Letonia, Lituania, Rusia, Polonia, ta Txeko-eslavia ikeftu dituz; eta Ufila'ren 20'tik Azila'ren 4'ra, Austria ta Ungaria. Ostera onetan bere begiz ikusi dituan gauza negargarrien bari Doipuru edo Aita Santuari emoteko bialdu dautson idazkian diñotsonez, orainarte, berari eskefak eriotzearen erpe-artetik iges egin ba' dabe, ondiño gutziz txarft aurkitzen dirala. Txeko eslavia'n izan ezik bizigaykan gutziz garesti dagozala ta Rusia'n gose ikaragarria dagola, diño.

Libra bat ogi, Mosku'n, ta ¡zelako ogia! 3000 *rublo* ordaindu beaf ei da, ta Viena'n, 34 *korona*. (Rublo bakotxa len lau peseta ziran, eta korona bakotxa amaika txakuf inguru.)

Kilo bat lusagar edo patata, erosteko Moskun, Dagonila'n 40.000 *rublo* beaf ziran; eta Viena'n 1.000 kilo patata, 40.000 *korona*, Azila'n eskatzen ziran. Eta ¡yakiña! eritarf gaxoak ezin erosi, ta biziteko yan ein beaf! Diru trukatzek baldintza txarftan ipinten dabezalako, Polonia ta Ungaria be, negargarfiro aurkitzen dira. Eta negua, otz ikaragarriakaz ganean dabe!

Eta udan geure laguntzaz, gaizkatu ditugun ume efugeak, ilgo dirala negu onetan diño, len bialtzen izan yakezan, libra bat esne gogoftu, ogia ta soñekotxoak bialtzen ezpayakez.

Kenzie jaunak darai. «Eta yayopafiak! Izparfingietan bilduta il beafko dabe orain arteko laguntza Aita Santuak bialdu ezin ba' dautse. ¿Zenbat diran? Rusia'koak zenbatu barik, sei bat miñoa.

¡A! Sarfkaldeko gizon ongileak ikusi al balebez neure begiz ikusi dodazan lez, umetxoak erdi edo gutziz biñozik, azalak yaten, zugatz orf, bedaf, baita afak yaten be!.... ainbeste ume euren sayets-arteak txorien kayola lez daukezala, ¡gose naz!, ¡egafi naz!, ¡otz naz! esan gura dabela.

¡A! notin Jaungoiko-zaleak ikusi al ba'lebez ikusi baño ezpada be...!»

Auxe dala-ta Doipuruak geure Gotzain maitearen bidez laguntasuna eskatzen dauku. Ta, ¿ez ete dautsogu lagunduko? Jaungoiko zale zintzoak ba'gara, ¡bai beintzat!

Idazti txafak sutara.

Excelsior, Paris'ko izparfingiak diñonez, Neukoellen'go (Berlin) endoreak, asmo gogof eta egokiak artu dituz idazti txafak ondatzeko. Gasteak galbidean ipinteko baño gauza etzirala-ta, erian bildu ta mordo galantak efe dituz.

Befogei mila baño geyago efe dituz efiko biztanleen aurfan. ¡Ederto egina! Naiz ta tximiñotik gizona datořela diñoen *intelectualak* (1), asarftu, ta *tximiño* arpegiaz yafi. Onexek GIZON onek egin dabena emengo izparfingi ta idazti zarafakaz egingo daben bat agertuko ba'litz, gizarftea beste arpegikera bategaz agertuko litzakigu! Eta gauza edef bat egingo leuke. Izan be, basefitařen batek esango leukena: Esnari, iñori kaltetik eztakarftson ur apuf bat egiten dautsogula-ta, efekara botaten ba'dauskue, gogoak usteltzeko baño gauza eztiran idaztiak, sutara zergaitik ez...?

Urte gustirako pornostifkoa.

Negua ezatsu danean, udabari ta udea argiak, eta negua argia ta leofa ba'da, udabari ta udea ezatsu edo bustiak izan oi dira.

Udabari ta udea ezatsu ba'dira, udagoyena oskarbi, eta leofak ba'dira, udagoyena ezatsu.

Uda euritsuak negu gogofa dakaf.

Otsaila-II'an euritsua danean baita, udabari ta udea be; baña leuna ba'da, udabari ta udan leofte andiak.

Bagila-II onetan txingofa egin eta ondoren euri asko espadagi, neguak otz andiak.

Udagoyen ezatsu ta negu bigunak udabari otz ta leofa dakafe.

Udagoyen oskarbi ta leofak negu euritsu ta axetsua dakaf.

Eta....

Au zinuestu gura eztabenak urte baruan ikusi, diñogun lez gertatzen ezpada, ufengorako ikasi.

GAMA.



XI⁷ Urtia. — 186⁷ gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922'ko Otsala'ren—1

II AITA SANTUA IL DA!!

Benedicto XV, zortzi urte onetan Jesukristoren ordezko, eleizaren buru ta gure Aita Santua izan dana il yaku.

Bost eguneko gexo gogofak bere gorputza lufera eratsi dau, bere gogua donokira egastu zedin.

Igazko udan, JAUNGOIKO-ZALE'n batzar nagosija zanian, bere onespena ta benedeziñoa emon euskuzala ez dogu iñoz aitzuko.

Otoi egin daigun il yakun gure Aita maitearen gogo aldez eta Jaunak umezurtz ez gaituala itxiko siñisturik, eskatu dayogun Eleizeak aldi zoritzareko onetan biar daun Aita Santua laster autu eta izentau daiskula.

R. I. P.

EZKARGE BATZUK

Olimpia Gertzia'ko uri polifan ozpatuten ziran noz-edo-noz jai andi batzuk.

Bertara etorfen ziran alboko andiki ta aberatz gustijak. Zenbatu ezin leikian gixoste bat batuten zan Olimpia'n jai ofetan eta bost egunoro olgetan ziran zenbat gure.

Bein baten Atenas'eko agure bat yoyan jai ofek ozpatu ziran estadio deritxon tokira. Gixajua makuf-makuf yoyan, indarje, bere buruba ule zuriz apainduta erakusten ebala. Ainbat biar egin eban bere abefi ta bere etxe aldez.

Juan zan atenatar pilo bat eguan tokira baña onek ifi-bareka asi ziran beragaz ta ez-eutsen jarlekurik emoten euren onduan. Orduban agure ori aldendu zan espartarak eguazan tokira ta onek bai abegi onagaz artu eben eta euren erdijan jarleku edefena emon eutsen.

Aguriak bere lagun atenatar lotsabakuari begira esan eban egi asko beti eskutau daben esaldi au: Atenatarak zein dan ona ta edefa bai-dakije, baña espartarak dira ori egiten daben bakarak.

Estadion egozan gustijak txalotu ebezan itz onek. Bakarik lotsatuta gelditu ziran atenatarak.

Ludi onek geyago zor dautsonari gitxi-jago eskartuten dautso.

A. M.

ZER EDO ZER

Izpar samina.

Atal onen buruari dagokion baño bari garantzitsuagoak emon beafean aurkitzen gara.

Gure Aita Santu maite-maitea Yaunak bere

ondora eroan dausku!... Urtafilaren 22'n il zan. Deuna lez bizi ta deuna lez il da. Yaungoikoaren naya egin bedi!... (G. B.)

XV'gn. Benedicto bere ontasunafen Eleizaren etsayak eurak be maite izan dabe. Eta nok ez maite, igaro dan guda galgarian, adimen ilunduentzat argia, biotz saminduentzat gozotasuna, ta asafe gogof artean benetako gentza ekarten alegindu dana bakarik izan ba'da?...

Au Eleizaren etsayak eurak aurtzen dabe.

Aita Santu onen aintzaz, Konstantinopoli uri nagosian, oraintsu irudi edefa yaso dabe. Eta nortzuk uste dozu? Gauza yakingafia zinez! Asmo edef au aftu ta aufera eroateko dirua emon dabenetik geyenak, katolikoak eztira izan, maomar, yudaf, protestante ta gergafak baño. Eta agirian ipinteko egin ziran yayetan Turkarfen bakaldun, Egiptoafen bakaldun-ordezko, turkarfen rabino ta abaf izan ziran. Auxe egin dabe Benedicto XV'gn. goralbenez, munduko zoritxar eta guda ondorenak gozatzeko, onean ipini dautsoen idazkunak diñon lez:

Ludi gustiko sakabanatze ikaragarrian, abenda ta erlejiñoeri begiratzeka, eri gustien ongile izan dan XV'gn. Benedicto Doipuru bikañari, eskar onez. SORKALDEAK (1914 - 1918).

Irudirik inori yasoten eztautsen tokian il yakun Aita ona Eleizaren etsayak olantxe goraldudabe. ¡Ondo irabazita euki ezpaleu ez!...

Eta alan da be, Eleizaren kaltez yaraituko dabe! Gixajoak! Aita Santuak egin dauna txalotzean, gauza on gustiok eragin dautsozan Kisto'ren ikastia txalotzen dabela, ez ete dabe oartzen? Yaunaren argiak itsukeri ori uratuko al dautse!..

Bere gastearoko yazokun bat.

Gastetxotatik abadetzarako deya somau eban. Amabi urtedun zala erabagi sendo sakona aftu eban.

Egun baten bere aitagana yoan ta zintzo ta biotz ikara andiaz esan eutson: «Aita, nik yauparitzarako ikasi gura dot». Aitak garantzi andirik emon barik esan eutson: «Mutiko; ori ondo oldostu beaf dan gauza dok, eta bitartean, lenengo ikastaroak amaitu egizak, eta lege-gizon egiteko gertau adi bai, ta gero erabagiko yoguk». Jakobotxo ixildu zan, eta berekautan, «orixe egingo dot ba», esanaz, len baño gogotsuago lege-ikasteari ekin eutson.

Opor-aldia Pegli'ko urian, aitaren yauregian

igaroten eban. Gustiz ikastun eta jainkozale zan eta bere poz gustia idazti (liburu) ta gogo-arasotetan ipinten eban.

Argal samafa zanez ainbeste lanez zurbildu zan. Ama bilduritu zan eta eskuartetik liburu gustiak kendu eta atxurtxo bat emonaz esan eutson: «Lorategia zaindu egik». Esana egin eban, eta, bere lenengo lana palmera bat ipintea izan zan.


Ikastaroa amaitu ta biurtzen zan bakotxean bere maister Montaldo'ri itanduten eutson: «Ta nire palmera ori zelan doya? Gauñ itzal andiz begiratzen dautsoe.

Urteakaz sendatu zan ta bere ikasketari ekiñaz 1875'n ogetabat urtedun zala lege-irakasle (doctor) agiria irabazi eban.

Ufengo egunean bere aitagana yoan eta esan eutson: «Nire ikastaroak amaitu dodaz; lege-gizon naz; orain Yaunaren deyari yaraitzen itxi egidazu». Aitak kistañ onari dagokion lez, bere baipena emon eutson, eta Erroman enparau ikasketak egiñaz, ogetalau urtegaz lenengo yaupa (mesea) emon eban. Geroztik malarik maña bere gaitasun andia-zala-ta, Doipurutzaraño 1914'ko Iraña'ko lenengo egunetan eldu zan. Añezkero gustiok dakigu zenbat atsekabe gozatu ta zenbat on egin daben, Yaunak bere onoimenaren saria aítzeko deitu dautson arte.

¡Goyan Bego!

GAMA.



Martzana'ko (Axpe) Eleiza

(Fot. Ojanguren).

IZAN BE...!

Etxebariko Peru Antone'k
beren emazte Praiska'ri
beti mormoxka ez ibilteko
iñotson safi bai safi.

Praiska'k bein baten gogait egiñik
ainbestean ekiteaz,
asafe aldiz berak oi daun lez
diñotso gogo biziaz:

«Efekatxoak mormorka doyaz,
murmurka safi axeak,
toftxor dagie txoriak, baita
mun-mun tofe-yoaleak;
ta mormor barik zer dala egon
beogu emakumeak?»

Edozein gauzak dagiena guk,
zer dala-ta ez? jgasteak!

Muf-muf eitea, eta safitan
da gauza azkoren legea;
areina ontzat artzen bo'zu ba
zergaitik txartzat gurea...?»

—Alantxe da bai, diñotso Peru'k,
zuekaz ezta gauz onik;
egiz ziñoen asaba zafak
iñok ba' diño egirik:

«Alper da Miren makilatu,
ezpada berez biurtu.»

GABIREL.

AZA-ORIAK

(Gastetxoentzat)-Schmid.

Ama gustiz dulabre ⁽¹⁾ batek, bere
baratzen gustifariko ortuariak zaintzen
ebazan.

Egun baten bere alabeari esan eu-
tson:

—Koldobike; ikusten dozan, orri onen
lepaldean agiri dozanan mota zurizke
oreik?»

Oretariko bakotxa, ařautzatxo bat
don. Gerorantz ortixek sořtzen dozan,
ik ainbeste bideř ařiturik ikusi doza-
nan, margo ederdun asoin edo ařak.
Eta ařok gero an bean jira-biraka
ikusten dozanan mitxeleta zuri biur-
tzen dozan, ainbeste kalte egiten da-
bela.

Bazkal-ostean arduratu adi, ba, orri
gustiak azteřtu, eta aurkitzen dozanan
ařautza gustiak zapaltzeko. Orixe egi-
ten badon, gure azak, beti orřlegi ta
mardul iraungo yabek.

Koldobike'k ořetarako astia eukiko
ebala uste izanik; amak emondako
aginduaz aztu egin zan.

Bere ama gexotu zan, eta aste ba-
tzuetan baratzeraz ezin izan zan yatsi.
Baņa osatu zanean bere alabea esku-
tik ebala, azak ipiñita egozan tokira
eroan eban. ¡A zan ikuskizuna! Azok,
ařak gustiz mauka-iruntsiak aurkitu
ebazan; aza orřian zainak eta sořtzai-
ñak baño ezebezan idoro!

Koldobike, bere nagikerien ondore-
nak zirala-ta lotsaturik, negař-negařez
asi zan.

Orduan amak esan eutson:

Ořexek erakutsikouna, gaur egin al-
donana, bialko ez itxiten. Baņa beste
ikaskizun edeřago bat be, biřindutako
orri ořeitian idatzirik yagola yirudin. Au-
xe don:

Ekandu txara zapaldu daigun
sustartu baño lenago,
atzamařeko gatxa ba laster
zabaltzen don besoraño.

G.

(1) Activa.

ITA UN - ERANTZUNAK

Barau-zale.—Inoiz entzun dodala - ta nago, emakumezkoak, beogetamaŕ urtera ezkeroko barau egiteko beaŕkunik eztaukela. ¿Egia ete da?

—Len, yakitunak, ainbat, eretxi oŕetakoak ziran; baña oraintsu argitaldu dan, Eleiz - Legedi edo Kodigu baŕiak, gai oŕetzaz gaŕbi itz - egiten dabela dirudi. Ara bere itzak: «Ogetabat urte betegaz azi ta irurogeigaŕenaren azieraño, gus-tiak barau-legeak lotuten ditu». (1254, at.)

Beraz... beste ziorik ezpadabe Eba'ren alabak be bai.

Efeberentziak.—Konsagraziño ostein geyenak belaun biekaz egiten dabe, batzuk osterala belaun bakaŕagaz. ¿Zelan egin beaŕ da?

—Belaun biekaz gure Yauna agirian dagonean eta Yauna emoten dabenean bakaŕik egin beaŕ da; eta mesatan, konsagraziño ostein izan aŕen, belaun bakaŕagaz.

Sakristau bafi.—Zure eŕian yaupa (Mesa) bat bakaŕa dagola-ta, *Sanctus*'etik auŕera ukaŕ edo limosna biltzen ibili aŕen; zerbait aŕeta ipiñi ezkeroko, mesea entzuteko bikaŕkuna betetan dozu.

Eztozu baña betetan, yai andietan *konsagraziño* bitartean etxapliguek yaurtiteko eleizatik aldentzen ba'zara. Konsagraziñoa yauparen atalik gaŕantzitsuena dalako. Alan be, konsagraziñoa azi auŕetik urten ta amaituta beriala sartzen dana, *pekatu aztunaren azpian*, beste bat entzuterako, eztirudi beaŕtu leikenik, Noldin yakintsuak diñonez.

JAN GOIKO ZALE

XI' Urtia. — 188' gn. zenbakia.

Zorrotza'n — 1922'ko Otsaia'ren — 15



XI PIO, DOIPURUBA

BETI EREN...

*Yakin gurok
nortzuk diran) 8
yauparien (1)) 7
etsayak?
—Alperkeri
gaiztakeriz,
espetxean
diranak.*

*Nabarñmen eta ordiak
yokolari
gaiztoak,
etxekalte eta arlote
uberats naiz
txiroak.*

*Gura bo'zak gudariak
beren kaltez
pilatu,
Espetxe ardanetxean
lastef dozak
aurkitu.*

*Ta zintzorik aurkitzen bok
edozein
basteretan,
yaupari adizkide dok
itz eta
eginetan.*

*Zeintsukaz ibil nai dokan
euk esan beaf daustak;
Nogaz abilen esaidak
nor azan esanguskat
Yauparien etsai lagun
norbait ba'dok
agertzen,
eskef edo eskumatik
ori beti
dok eren...*

MATS-AYENA

(Schmid.)

Baratzain batek, bere etxe aúean mats-ayen bat ipiñi eban, eta bere adar-ostokaz etxe-aúe gustia esaltzeraño eldu zan, mats-mordo gozoak bere baruan eskutatzen zitularik.

Auzoko batek mats-landara edefari bekaitzez begirutzen eutson-eta, gau baten adarík indarñtsuen batzuk ebagi egin eutsozan.

Urengo egunean, ugazabak bere pafea alan mostuta ikusi ebanean, atsekabe andia arñtu eban, aldi atan ba ondiño ezekien matsak igali ugarriagoak emoteko adarñak mostutea onuratsua zanik.

—Gogoz negar egingo neuke, (iñoan gaxoak) neure matsak negar egiten daben lez bere adarñak ebagitzeagaitik!

Baña gauza arñgaría! Urte atan mats arek uzta ugariagoa ta mordo ederagoak emon ebazan, ordurañte emon ebazanetatik ederñnak.

Etsayak safi gure kaltean bekaitzez egin oi dauna, Yaunak alantxe nai dabelako gutzat onuratsuená.

G.

GABIREL.

(1) *Yaupari*=abadea.

ITAUN - ERANTZUNAK

B'taf J. K.'ri. — Sein yayo bañari, ugutzau artean mosurik ematea, iñongo legek eztau debeatzen, beraz zilegi da.

Olako oiturak ia beti ziñeskeretatik softzen dira; ugutzau baño len «Abel'ek bedeinkatu dayela» señari esateko oitureen antzera ta abaf.

Lengoari. — Ugutzakeran izenak, Eleizaren aginduz lateraz esaten dira, ta gero ugutz-idaztian euskeraz, edo gurasoak nai daben lez ezarri. Baña diñozun lez, euskeraz txarto esango ba'lira be, esate baterako Iñazi, Iñaki'ren ordez, oker ori gora bera zuzen ezañikotzat euki lei. *Izena* ba, besteakandik bereziteko ipinten da, eta *deunen izena* deun baten zaindaritzapean ipintea egoki dalako.

Odoloste-zale. — Ez, gizona, ez; aragia isteko egunetan odolosterik ezin lei yan. Okelakirik ezer bez, eta aragi-saldarik be, ezta.

Oraitik aragia isteko egunean be, yanaria koipez ondutea zilegi da. (I. C. 1250)

Barau eguna bakafik danean, orain, aragi ta añaña yatordu batean nastu leiz. (I. C. 1251 2).

M.'taf G.

ZER EDO ZER

Aita santu bafia.

Izpar alaya kistafontzat. Il yakun Aita Santuaren oñordekotzat, Yaunak bafia emon dausku.

Akiles Ratti, kardenal yakintsua, *XI'gn. PIO* izentzat aflu dabena. Orain arte Milan'go Artzobispo izan dana, ta oindiño igesko Bagilan kardenal izentaua. Irurogeta lau urte dituz. *Do minus conseruet eum.*

Zenbakafena?

Beleun da irurogei izan dituz bere aurfetik. Kisto gure Yaunak bere ordeazkotzat Pedro deuna aukeratu eban ezkerotik, ordeazkotza onek eten barik dirau. Lenengo *beogetamasei* deunak dira, eta Eleizak deuntzat aflu dituanak gustiz 82, ta zorundunak 6. Eurotatik ziñopa edo martiri 37. ¡Deun eřeskada edera!

Nonafak izan diran.

Siriatařak, *saspi*; Gerkatařak, *amalau*; Apirkařak, *iru*; Sardotafak, *bi*; Dalmazitafak, *bi*; Traziatařa, *bat*; Espanafak, *lau*; eurotatik bi balentzitařak, Pantzetařak, *amalau*; Borgoñafak, *bi*; Doistařak, *sei*; Ingelandařa *bat*; Belgikařa, *bat*; ta enparauak *beleun* inguru, Italitafak.

Ez aukeratzeko

adirazi dabenak, *amasei*; eta urun dirala aukeratuak izan diranakaz, *beogetamar* baño geyago.

Bat izan da Doipurutzari itxi dautsona be; V'kařen Kolestin.

Andiki artekoak *ogei* izan dira. Ogetamar urtetik berakoak *bost* izan dira.

Txiro (pobre) artekoak

Lenengo Aita Santua, Kepa deuna, gustiok dakigu ařantzale gixaxo bat izan zala. Dunixi deuna guraso ez ezaunduna; XVIII'gn. Jon, ezeuki baten semea; II'gn. Damaso, salerosle txiro ba-

tena, IV'gn. Adrian, eskeko baten semea; IV'gn. Urban, txarizain batena; XII'gn. Benedicto, eřotari batena; XI'gn. Benedicto, yantzi-garbitzale batena; IX'gn. Bonipagi abade txiro bat; V'gn. Alexander, gastetan eskeko; Nikolao IV'gařenaren ama oño saltzale izan zan; IV'gn. Sixto ařantzale baten seme izan zan. VI'gn. Adrian itxasgizon; V'kařen Sixto gastetan txarizain ta abar ¡Auxe da demokrazi edera, nik dakidan eři batetkoa baño ohea!

Doipurutzan eğun řitxi iraun dabenak.

Lisinio Aita santuak, *ogei egun*; II'gn. Estepan'ek *iru egun*; II'gn. Balendin'ek *ogetamar egun*; Bonipagi VI'nak, *amabost*; II'gn. Damaso'k *ogetairu*; IV'gn. Kolestin'ek, *amasaspi*; III'gn. Pio'k, *ogetasei*; Markel II, *ogetabi*; Urban VI'ak *arvabi*; XI'gn. Lon'ak ogetabost. Urte bete baño gitxiago, *ogetalau* inguruk.

Doipurutzan *ogei urtetik* gora iraun dabenak *bederatzi* izan dira. Danen gañetik IX'gn Pio agertzen da, 1846-1878'an: Aita Santu 32 urtean izan zan.

Ereslariak saspi izan dira

Osagię edo osagięn semeak bost

Len eskonduak izanak bost.

Anayak, III'gn. Estepan, eta I'go Paul; baita VIII'gn. Benedicto ta XX'gn. Jon be.

Eřeskada onek, 1900 urte iraun dauz, ta Yau-naren abintzaz, munduen azkenerařte iraungo dau. Ostera, aldi atan ludi gustiko yaube zirudien agintari panpařoyen oñordekoak non ote dira? Lořatzik be iñon ezta agiri Aldiak danak iruntsi ditu. Aldiaren aũean gizonaren gauzak eztira ezer. Yaungoikoarenak bakařik etsai gustien gañetik irauten dabe...

GAMA.





XI' Urtia. — 189' gn. zenbakia.

Zornotza'n.—1922' ko Epala'ren—1.

BEROGEIKAROKO, II IGANDIA

Matai-Deunaren, Goizparikiko XVII atzalburutik, esakun ereskada batzuk.

Aldi atan: 1.—Eta sei egun igazifa, Josu'k, Kepa ta Jagoba ta Jon, beraren anayea artun ebazan, eta, aldera, mendi garaira eruazan.

2.—Eta euroen aurian, irabiyau zan, eta beraren arpegija euzkija legez argitu zan: eta bere janzkijak, eduira legez, zuriñu ziran.

3.—Eta ara, Mois ta Eli agertu yakoezan, Berakin itz-egifen.

4.—Eta Kepa'k itz-dagi ta Josu'ri, diñotso: Jauna, ondo da, geu, berton, egotia: gura ba'dozu, emen, iru txabola dagiguzala, zeuri bat, Mois'ari bestia ta Eli'ri, bestia.

5.—Bera, ondiño, itz-egiten eguan, eta ara, argidun edoyak, esaltzen dabez. Eta ara edoi-aboskeak, diñola: Auxe da nire seme mañia, nogan, ni, asko, poztu ixan naz: berari, entzun.

6.—Eta ikaslarajak entzun ixan ebenian, bere betaurian jausi ziran, eta bildur' aundija ixan eben.

7.—Eta Josu eldu yaken, era eurai ukututa, diñotso: Jagi zadiz, ta ez bildur'ik ixan.

8.—Eta euroen begijak jasota, iñor ezeben ikusi, Josu bakar'ik, baño.

9.—Eta jazten zirala, mendifik, Josu'k agindu eutsen, esanik: lkuskixun au, iñori, ez-esan, Gixa-Semia, ilaen-artetik, berbiztu, arte. Eta abar.

* * *

Tabor ta Golgotha mendijak erukija ta zuzenkija darakuskube. Bide bijetatik, ibili biar' gara. Eruki-bidia, bakar'ik, ba'genbiltz, ariskua dogu, bidekatuteko. Eta zuzendasun-bidia bakar'ik genbilkez, itxaropidia galduko geban. Bide bijaen erdifik, ba, ibili-biar' gara, Tabor-mendira, eltzeko.

AURTZOAREN NEGARA

Aurtzo txikia
negarez dago,
ama berari
begira.

—Zer gura dok ene
kutuntxo?

—Nik yoan nai
donokira.

—Donokian
zer yagok
maitea?

—Aingerotxuak
ugari,
Yauna biotzez
maitatu eta
aintza emoten
berari.

Neuk be eurakaz
egon nai neuke
gustiz urun
obenetik,
eurakaz Yauna
aintzalduteko,
iges nai neuke
luditik.

Ludian gaiztotzeko
zoria, nai non dodala
bai'dakit,
orexegaitik
zerura nai dot,
ta eziñaz,
negar
dagit.....

.

GABIREL.

Ludi=*mundu*.
Oben=*pekatu*.
donoki=*zerua*.
Aintza=*gloria*.

AZA AUNDI BAT

(Schmid).

Yon eta Andoni langileak, baseñi batetik zear yoyazala, baratz baten ondotik igaro ziran.

—*Begira — esan eban Yon'ek — oñek dozak aza tzañak! Neure bizian andiagorik etxoat ikusi.*

—*¡Ba!, erantzun eban Andoni'k añokeriz, oñek zer ikusi andirik etxeukiek. Nik ibilaldi baten ikusi ñoan bat; an bean ikusten dokan txauburuen etxea baño andiagoa.*

Yon galdaragiña zan, eta bereala erantzun eutson:—Oñaitik gomutan nok galdara bat egin giñoala txauburu-etxe alboan yagoan eleiza baño andiagoa.

—*Baña Yaungoikoaren — erantzun eutson Andonik — ainbesteko galdara tzaña zertarako zoan?*

Yon'ek yardetsi eutson: — Euk ikusi eindun azea egozteko.

Andoni au entzunik lotsaz goñi-goñi egin zan. Eta esan eutson: Ik guzuñik esateko oiturarik eztaukok, eta ori esan daustak lelo-lelorik, esan dauadan guzuñagaitik lotsatu eragitearen. Ondo yagok eta pozez tantua emoten daustat. Ba...

*Esakun zañak diñon legez
“Guzuñ - zaleri andiago”
guzuñ-eraile danak, sañi yok
txindi bardña beretzako.*

ZER EDO ZER

Kistaf zintzoen gomutatik inoz iges egingo eztaben XV'gn. Benedicto'tzaz, gaur sail onetan ekingo dautsogu. Gauza yakingariak dira, ta "zer edo zer" baño geyago.

Bere gexo aldian

Biotz ederenetarikoa, gogo argia, ta deun baten baretasuna agertu eban.

Battistini, Aita Santuaren osagileea, une gustietan, bere ondoan eukan, ainbeste maite ebana- ren osasun alde, ezei egin al ba'zan ikusteko.

Urtarila'ren 19'tik 20'ra, gau beranduan oera- tu baño len ikusten yoan yakon. Aita Santuak esan eutson: «Ene osagile zar ofek zer egiten dozu? Tira zoaz oera». Osagileak, Doipuru- gaizki zegoala-ta tamalez beterik, bertan belau- bikotu eta otoi au egin eban: «Yauna; neure bi- zitzta eskintzen dautzut Doipuruaren bizitza- gaitik».

Ilaren 21'ean gaizki zegoan, eta alatz edo mi- rariz izan ezik osatzeko itxaropena galdu eben.

Battistini uferatu yakon eta esan eutson: «Doipuru deuna, ludiaren bakeagaitik otoi egin daigun». Eta Benedicto'k erantzun eutson: «Bai munduko gentzagaitik neure bizia eskintzen dot».

Deun baten erantzuna.

XV'gn. Benedicto, langile gogora zan, gauza gustietzaz arduratzen zan, ta zenbat asmo buru- an ta araso eskuarte- an efabilzan, Yauna'k ba- kafik daki. Beaf ba'da gexoak baño ardura ge- yago emongo eutsen. Onetan eriotzea uf euka- la adiratzeko esan eutson: «Doipuru deuna; Yaungoikoak deitzen dautzu». «Yaungoikoak deitzen daust? —erantzun eban— «Ondo dago; Yaungoikoak naikoa dala ba'diño, naikoa da».

Ilgo zan ordua yakin efe eban?

Il zan aurreko egunean gabeko amaretan, ba- riro Eleizakoak artuta, salda apuf bat aftu eban eta amaitu barik otseñei biurtu eutsen eta esan eban: «Biaf goizean -goizetik yantzi egin beaf nozue, Biko kardenalaren yaupea entzun beaf dot-eta». Eta gero Biko kardenalari esan eutson: «Biaf bostetan zeure mesea entzun be- af dot». Eta, lo egiteko astia euken ezkeru

atsedentzeko esan eutsen.

Goizean Biko yaunaren yaupea entzun eban ta seirak eta bost minutueta il zan. Ilgo zan ordua bai ekiala dirudi!

Eriotza edefa.

Azken arnasa emon baño lentxuago Giorgi kardenala iltamu -otoyak egiten egoala, esan eutson: «Emen gagozanok onetsi gaizuz, eta zeure bizitzaren eskintza baristau egizu». Aita Santuak eskuaz iru gurutza egin ebazan, eta bu- rua makuftu eban, ludiko bakeagaitik bizia es- kintzen ebal adiratzeko.

Unetxo bat geroago azken arnasa emon eban.

Benedictus izentzat aftu eban eta benetan *Be- neditus* bizitzan eta eriotzan izan da.

Gogo argia.

Aita Santu au, oso gogo argiduna izan zan, eta onetan XIII'gn. Lon'en antza eukan. One- tzaz gomutetan naz gexorik gaizki zegoala be, itz-neurftu edef batzuk, XIII'gn. Lon'ek egin eba- zala.

Benedicto'ren gexo aldian bere gogo argia agertzen da, bere itzaldietan agertuten eban gogo argi ta gatz andia. Bere esakunakaz ezin neike idazkai au luzatu, baña bere gogo alaya agertzen daben auxe ipiñiko dot. Gazpari ka- denalagaz bere gexoatzaz itz - egiten ziarduala, beste gauza batzuen artean esan eutson: Bai' dakizu neure bizitza gustian, osakaitan zenbat eralgi dodan?.. *Amar'ereal*..

Biotz edefa.

Eginalak egin afen guda galgafia ezin galera- zo izan eban, baña nekeak arinduteko al eban gustia egin eban. Beste askoren artean 1916'ko Epañatik 1918'gn. Azila'rarte, 2.343 doista, eta 8.868 patzetarek azkatasuna bere bitartez loftu eben. Baita beste 3.000 belgikar, eta 20.000 pa- rantzetarek be.

Onez gañera gudari etziran amasapi urtetik berakoen eta befogetamabostetik gorakoen az- katasuna, emakume gustiena, ta osagile ta yau- parena yaritxi eban. Eta aba.

Guda galgafiaren ondoren garatzak gozatze- ko egin dituan alegiñak nok zenbatu?

Igazko lenengo *amaika ile beteetan* bakarik, yanari ta soñekotan, *amaika miloe tira*, ume txiroentzat emon ebazan. Eta azkenez, igaro di-

ran Gabon yayetan emon dituan Gabon-safiak onexek izan dira.

Alemaniko langile txiroei 500.000 lira.

Viena'ko txiroei beste 500.000.

Viena'ko umeentzat 15.000.

Parantze'ko Alain Roscoff, ume erkiñen osatetxerako 200.000 lira.

Eta Rusia'ra *berogotamar* wagoi afozez berterik. ¡Ango *fraternidadeen* ondoan, ba'yaukak zer ikusirik!

Itz baten; Yesu-Kisto'gaitik Idazti deunak diñoan lez, bere ordelari gorengoenetarikonegaitik esan geinke: «Pertransiit beneficiendo...»

Gustie on-egiten ludi ontatik igaro zan.....

GAMA.

ITAUN - ERANTZUNAK

Pasko - txantelak noz emon biala dira? Txaunburuak eurak guk baño obeta dakije ori; baña itaun ori erantzun barik ez isteañen, geure aburua emen agertuko dogu. Era askotara egiten da txantel banatze ori baña egokijena ta ziuñena parokija batzutan ikusi dogun auxe dala deritzat: Kristiñau ikasbide'koa Jaunartzera orduko gusti - gustijak artu ta gero Jaunartzen dabenian a itxi ta bestia (Jaunartzakoa) artu. Oretarakoxe egiten doguz margo bitakuak, ezez berezteko. Kristiñau-ikasbidekoa emoten danian, artzen dabenaren izena ipinten ba-dautsazue ta gero Jaunartzekoak batu orduan be bakotxari bere izena ipiñi ezkerore ez eta ziuñ txantelokazkoa egin-go da...

Barau zale. Barau egunetan gosari ta apari - izkijan zer artu leiken. Gotzaiñaren aginduz egindako kristiñau - ikasbideak ederto erakusten dausku. Ara berak diñoana: «Okela, okela-salda ta añaña izan ezik, beste gañerako edozein janari artu daikie barau-eguneko gozari

ta apari-izkian Bulda oreik daukezanak. «nastau daitekez aragia ta añaña barau utsa dan egunetan». Alantxe diño Kristiñau-ikasbideak. Barau utsak esan gura dau aragi-izte edo bigijia bako baraua.

Zenbaki au gure bazkidien eskuetara eldu orduko, idaztjetara arpidetuta dagozanak lau idazti ta oñitxo bi artu izango devez. Onexek:

1.º *Kristiñau - ikasbidea* azal gogof ederaz.

2'gn. *Goznarkera eñaza.*

3'gn. *Ama Naigabetuari bederatziuruna.*

4'gn. *Nekane edo Neskutzaren babesa.* Antzerki polita.

5'gn. *Ikasi ta egin oñitxo bi.*

Gure Gotzain arduratsua Eleiz-ba'uti onetarako egin daun KRISTI-NAU IKASBIDEA salgei ipiñi da. Oin urte bete inguru lenengo malea argitaldu zan eta orain iru malak batera, au da Kristiñau - ikasbide osoa. Bizkairako bizkayeraz ta Gipuzkoa'ra-ko gipuzkeraz egin da; beraz bakotxak berari yagokona eskatu biala dau.



XI' Urtia. — 190' gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922' ko Epala'ren—15.

BĒROGŌEIKAROKO, IV IGANDIA

Jon-Deunaren, Goizparikiko VI atzalburutik, esakun eřes-
kada batzuk.

Aldi atan: 1.—Josu, aunen ostez, Galilea-itxasoko beste aldera,
Tiberiades dana, juan zan.

2.—Eta ozte andijak dařaikio, alatzeak ekusen ba, gexotzaz, egi-
jala.

3.—Josu, mendira igon zan, ba: eta bertan bere ikaslakin jezaři zan.

4.—Eta Igaratzea (Pascua), Judaren jayeguna, urian eguan.

5.—Eta Josu'k, bere begijak jasota, ozte aundija, Beregana etoř-
ala ikusiki, Pilipa'ri diřotso: ¿Nun ogija erosiko dogu, aunek jan
dagijen?

6.—Au, ba, bera aztertuteko, iřuan: berak ekijan, ba, zer legikean.

7.—Pilipa'k erantzun eutson: Beřeun txindijaen ogijak, ez dira eu-
raentzako naikua, bakotxak, apuř-apuřa artzeko.

8.—Bere ikaslietatik, batak, Simon-Kepa'ren anayear, diřo:

9.—Emen, mutilko bat dago, bost garagar-ogi ta arain bi daukaza-
na; baņa ¿zer da au, ainbestentzako?

10.—Eta Josu'k diřo: Gixonak jezaři egixube. Leku atan bedar as-
ko eguan. Gixoneskuak, ba, bost anei (mila) legez, jateko, jezaři ziran.

11.—Josu'k, ba, ogijak arřu ixan ebazan: eta eskarak egijala, jezař-
iřakuen arřian, banakatu euzan: eta arañña, be, barřin, gura beste.

12.—Eta asetu ziranian, bere ikaslai, diřotse: Otonduak geratu di-
ranak, batzaldu, ez galtzeko.

13.—Batzaldu ixan eben, ba, ta bost garagar-ogijetatik, amabi
otondun otzara, jatunaen ganezkuak, bete ebezan.

14.—Gixon arek ikusiřa, Josu'k, alatzea egijala, iřuen: Au, egiz,
iragarlarija da, *mundura* datorřena.

ZER EDO ZER

Raptim transif.

Itzok, XI Pi Aita Santu bariaren ikuñdi edo eskudoko itzak dira. Eta egoki ta egiazkoagorik ezta ezez aukitzen. Afapalada baten ba Doipurutzaraño eldu da. Urte bi ta erdi baño ezta Gotzain autu ebela; saspi ilebete Kardenal, ta gaur kistaf gustion Aita bakaf ta buru da. Bere lengo izena be, *Akiles* da, ta egazti azkar onen antzera egazkada baten erpiñik goyenetara igon dau.

Gomutaqafia.

XV'n. Benedito iltzer egoala, une baten il antza artu eban. Orduan Ratti kardenala uferatu yakon eta eutson itzal eta maitasunez, agur egi-teko lez bekokian mun-egin eutson.

Gexoa bapatean arfitu zan, eta mun-egin eutsonari itzok esan eutsozan: «Gomutau zaitetz bekokian mun-egin daustazula».

¿Zer adirazi gura ete eutson? Eztakigu. Beintzat kardenal axe da orain bere ofordeko Doipuru.

Iragafki bat.

Ratti yauna ondiño yaupari edo abade zala, X'n. Pi'k Batikano'ko idaztitegia zuzentzeko deitu eutsonean, bere aizkide baru-bafuko batek esan eutson: «Soñeko balzagaz zoaz; gofiaz biurtuko zara, eta gero yantzi zuriraño elduko zara».

Ratti yaunak erantzun eutson: Yaungoikoafen olango iragafkirik ezeidazu egin».

Dirudienez, bere aizkide ori begi onekoa da, erdi-erditik igafi eutson ba.

Adoretsua.

Theisling aba, Domekatafen Buru danak gai onetzaz auxe edestu dau:

«Boltxebitarak Polonia'ko uri-nagosian su ta gar safututeko asmoz ebiltzala, Barsobia'n aurkitzen nintzan.

Mundu gustia izututa egoan. Lateri ordezkariak be iges egiteko gertaketan ziarduen. Ratti

yaunagana yoan nintzan ta bere baretasunak arituta itxi nindun.

—Gustiak igesi doaz, esan neutson. Eta berak ezertarako ikara barik erantzun eustan.—Ba, ni emen geratzen naz.—Neure aritasuna agertu neutson eta nasai-nasai erantzun eustan: —Arisku andian gagozala ondo dakit, baña gaur goxean mesa-aldian, neure bizia Yaungoikoari eskiñi dautsot eta, yazoten dana yazoten danerako ni gertatua nago.

Eredu biqafia.

Vilna'ko Ama Birjiña Baltza deritxon eleizara, bidezkunde baten zan. Otz ikafagarfia egiten eban; amalau maña zeron azpitik. Ratti yauna, etofi ta etofi ebizen kistafai ikasbidea emoteafen, *ordu bi osoetan* edur gañean belaunbiko egon zan.

Edeski bat.

Toma deunaren irakastetxea, XIII'gn. Lon'ek idigi eban. Ikastola onetan Teologi yakiton agiria lenen irabazi ebenak, Ratti'taf Akiles, eta Lualdi'taf Alexander izan ziran. Liberatore aba Josulaunak gaste onein azkafasunaz arituta, euretaz XIII'n. Lon'i itz-egin eutson. «Ezautu gura neukez» erantzun eban Doipuruak. Bere auñean belaunbiko ikusi ebazanean, eskua burugain ipiñi eutsen, eta gaste onei pilosopiatzaz eukazan asmo ederaf itzaldi baten agertu eutsezan.

Eleizako gorengo maletara igongo ebela igafi ebala esan lei, bata Palefmo'ko Kardenal-artzobispo ta bestea Aita Santu da-ta.

Mendiqozale efimea.

Aita Santu bariak txikitatik zaletasun bi agertu ebazan, Idazti (liburu)-zale, ta mendizale, ta zaletasun oneik beti izan ditu.

Idaztitegietan aldi luzeak igarota, opof-aldia eltzen zanean, mendigoyenetara igo-aldi ederaf egiten ebazan. Klub Alpino'ko bazkide zafa izan zan ta bere ibil-aldien bafi bertako aldizkingian emoten eban.

Berak edestuten dau bein baten Rose mendira ezautzen etziran bideetatik bere lagunakaz igon ebala eta 4.600 metro goyan otzik ikaragarienaz egozala gabak afturik, ez atzera ez auñera, ya-

ki ta edari gustiak izostuta, zirkinik egin barik, gau gustia igaro beaŕean aurkitu ziran. Au gora bera etzan bildufu. Egun bi baŕu beste eŕpin baŕtuetara igon eban.

Italia aldetik Mont Blanc'era lenengoz igon dabena berau izan da eta ofexegaitik, bide oferi ointxe be, Ratti ta bere lagun Grasseŕi izenaz deitzen dautsoe.

Afatiŕa ete?

Norbaitek, Aita Santu baŕia yatofiz aŕatiŕa dala idatzi dau. Oin irureun urte ta, Italia'ra euren gurariz gudari bizkaitar asko yoaten eiziran. *Afati* deituen eutsoen bat eurakaz yoan zan eta bertan eskondu zan, eta seme-alabak abize-na onantxe idazten eban: D' Afati, ta gero aldi-enpuruz Ratti. Egia ete da? Afatiŕoi beintzat guzuŕa dala esatea eztagokigu. ¡Izpar polita da-ta!.....

GAMA.

EUZKEL - GAYEAK

Zoŕnotza'ren Itxoŕkunea

Ona emen, beren itxoŕkunea, egokizkoa beintzat.

Zoŕnotz=*Zoŕ* (n) *otz*—a.

Zoŕotza zeindija, orok dakigu, zein dan eta bere ikuŕpena be bai: erderaz, *punta*, *agudo*, dikuŕ. Aulan, *Mendi-Zoŕotz*; *Aitz-Zoŕotz*, geure euzkerean daukaguz.

—Baña, ¿zegaitik, *n* ori, bere itz-erdi-jan, iratzi yako?

—Geure eliak, itz askoetan, orixe dagi: *zuuŕ*, *zuduŕ*; *oe oge*; *a* ta *e*'ren, bitaŕtian, *r*, *aren*, eta abaŕ.

Izki ori (*n*), gurazko irazpena *apente-sis arbitraria* da.

Eta azkenez: *Zoŕnotz*—*a*, gedin ekaŕ au *a* mugitza *artikulua* da.

Beraz, *Zoŕnotza*=*la punta*, *el agudo*.

Bai - daukagu, *Abando'n* bere, *Zoŕotza* deritxon *auzotegija*.

Albizuri'faŕ Serapin.

Itxoŕkun—etimologia. *Zeindi*=adjetivo. (aqui, substantivado) *Ele*=idioma. *Ikuŕpen*=significado.

ITAUN - ERANTZUNAK

Gurutz Bidea. — Gurutz Bideari ezaŕitako parkamenak irabazteko zer egin beaŕ da?

—Gurutz Bideari ezaŕitako parkamenak irabazteko baldintza edo kondiziño oneik beaŕ dira:

1'n.—Yaungoikoaren grazian egon.

2'n.—Kisto'ren Nekaldiriaz *zerbait gogalu* labuŕtxo baño ezpada be. Egokiago da baña, egonaldi bakotxari dagokion gayatzaz gogaltze ori egitea.

3'n.—*Egonaldi batetik bestera ibiltea*. Eleizkizunetan da kistaŕ asko biltzen diranean, zutindu ta baŕiro belaunikatzea naiko da.

4'n.—*Varaituan* edo eten barik egitea. Baña Yaunaŕtzeko edo mesa entzuteko bitartea aŕtu aŕen, parkamenak irabazten dira.

Gurutz-Bide parkamenak. — Gurutz Bidearen parkamenak ezaŕita daukezan gurutzagaz bakaŕik, parkamen gustiak irabazi ete leikez? Zelan?

Bai, irabazi leikez, baña gexo diralako edo beste zio bategaitik *eleizara yoan ezin diranak bakaŕik*. Ta irabazteko kurutza eskuetan aŕtu beaŕ da eta oneixek otoyoq egin: *Amalau* «Aita gure» amalau egonaldi edo estaziñoen ordez; *bost* «Aita gure» «Agur Maria» ta «Gloria» Yosu-Kisto'ren bost zauriei, eta «Aita gure» *bat* Aita Santuaren asmoakaitik.

Agufza deuna. — Eŕosario deuna esateko katetxoa uŕatzen danean, eta aletxo batzuk galdu, kate baŕian ipiñi aŕen, len ezaŕita daukezan parkamenak galtzen ete ditu?

—Ez, parkamenak ez dituz galtzen, katetxoa aldatu ta ale batzuk galduta be.

Kurutzagaz be bardin gertatzen da, irudia beste kurutza bati ipiñi aŕen nekazkak ez dituz galtzen, parkamenok irudiari bakaŕik ezarten yakoz-da.

M.'faŕ G.



XI'URTIA

191'gn. ZENBAKIJĀ.

1922'ko JORĀLA 1



XI' Urtia. — 191' gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922' ko Joñala'ren—15.

1922

1

ABAR-IGANDIA

Matai-Deunaren Goizparikiko XXVI atzalburuba

Aldi atan: 1.—Eta Josu'k, izpide - itz gusti aunek amañuta, jazo zan, bere ikaslariei diñotsola:

2.—Bai - dakixube, gauñtik egun bi bañu, Igaratzea dagokela ta Gixonaren Semia emongo dala, untzau dagijentzat.

3.—Orduban, jaupari nagosijak eta eñiko agureak, lendakarijaen atañtian, Cai-fas eritxona, batzaldu ziran.

4.—Eta batzaña egin eben, Josu, oge-naz, oratuteko ta irailtzeko.

5.—Baña, iñuen: Ez jayegunean, eñijan, *matxinadea* ixan ez dedin.

6.—Eta Betania'n, Jesus, Simon lege-nañdunaen etxian, eguala

7.—Beragana eldu zan, kelagañ - ontzi edeñ-edeña ekañan emakumia ta mayan makuñtuta eguala, bere buru ganera, jari-
jon eutson.

8.—Ikaslarijak au ikusiña, asañatu ziran eta ziñoen: ¿Zetarako galben au?

9.—Au, ba, askogañik saldu leñekian, eta txiruai emon.

10.—Josu'k, baña, adiñurik, diñotxo: ¿Zegañik emakume oneri, gogokañi zarie? egikun ona, ba, egin daust.

11.—Txinuak, beti, daukazube zube-

kin: baña neu enauzube, beti, ixango.

12.—Onek, ba, lobel au nire gorputzean jarijonda, neu ilobiratzeko dagi.

13.—Egiz, diñotsubet, goizpariki au, lu-di gustiko, edonun, argiñalduko danan, beronen gomuterako, beronek egin dau-na, be, dasakela.

14.—Orduban, amabijetariko bat, Juda eritxona, Jaupalburuegana, juan zan:

15.—Eta diñotso: ¿Zer emongo daustazube, ta neuk bera emongo dautzube? Eta eurok ogetamañ zidañ-diru eskiñi eutsoen.


16.—Eta ordutik adijona bila ebiñan be-
ra saltzeko.

17.—Eta lenengo ogi-egunan, ikaslarijak, Josu'gana eldu ziran eta diñotsoe: ¿Nun gura dauzu Igaratz-aparija, atondu dagikezugun?

18.—Eta Josu'k diño. Urira zuaz, lagun bategana, ta esayozube: Irakaslarijak di-ño: Nire aldiña uñ dago, zeurian, nire ikas-lakin, Igaratza dagit.

19.—Eta ikaslarijak, Josu'k agindu eutsoena bete eben eta Igaratza gertu eben.

20.—Eta añatza elduta, bere ikaslarija-kin, jezañi zan.



SALTZALEAREN LAZTANA

«Yuda, osculo Filium hominis tradis?»
«Yudas, laztanaz, Gizonaren semea sal-
tzen dozu? (Luk. XXII - 48)

Yosu-Kisto'ren Nekaldian Yudas'en laztana iguingarientariko gauza da... Yosu'k bere aizkide baruko ta ikasletzarako autu eban; bere irakatsi goitar, alatz arigarri, ta Yaungoikozko ontasunaren ziñaldari (testigu) egin eban, eta alan da gusti be, Yudas'ek eskar-txarrik baltzenagaz, biotzik zeken eta dolorenagaz erantzun eutson. Beronek, gurtzalduko ebenen eskuetan ipiñi eban..! Gure obenak kentzen dituan Bildotz deuna ogetamar dirugaitik otso amoratuaren agiñarfean sartzen dau....! Eta zelango maltzurkeriaz... zelango gofotoaz....!

Biotz barengo girnak eziten alegindu ezalako, Yosu'ri zor eutson maitasunak bere biotzetik iges egin eban, eta, gofotoa bere biotz galduaz yabetu zan...

Arezkero Yosu-Kisto'ren ontasun neurigabeak poza emon bearean min-emoten eutson; beragaz ontasun geyago ta berak gofoto geyago... Maitasun samuragoa ta berak biotz gogoragoa.

Zer dala-ta?

Argia gauza edera da, baña begi gexoentzat mingari. Ontasuna maitagari da, baña biotz galduentzat gofotogari...

Yosu, gure gaizkatzale maiteak, bere yakituri Yaungoikozkoaz, Yudas'en biotz baltza ondo ezautzen eban; baña ezeutson adirazten emon; Yudas aizunak (hipocrita) barengo biozketak estaltzen alegintzen zan, baña noiz edo noiz azaleratu bear....

Betsaida'ko lekaroan Yosu bere Gorputz deuna yanaritzat emoteko abintza egin ebanean, betiko ondatuko zan amiltagirantz makurtu zan. Aureko barikuan, Simon parixetararen etxean egindako yataldian, emakume garbatuak usaindu igoitzkia Yosu'ren buruan ixuri ebalata, iruntziko eban gaiztakerizko amiltegi ori sakondu eban, egun atan ba,

Yosu'ren etsayakaz itundu zan, ogetamař dirun ordez euren eskuetan ipinteko. (Matth. XXVI - 14) Eta eguen gurenez laztanik iguingaria-gaz gaiztakeriko neuria bete eban...

* * *

Azken aparia amaituta, Yosu-Kisto'k maitasunik samurenaz bere onak garbitu eutsozan aren, bere biotz gogorak bultzatuta, Apaltokitik urten ta zuzen Yosu'ren etsayakana yoan zan, Yosu arapatzeko aukerea eldu zala esaten... ¡Yosu'ren ikaslea izan aren, girña eziba-koak noraño eroan leiken gizona...!

Yudas'ek bai'ekian Yosu Getsemani'ra otoi egiten yoango zala, eta, al bait ariñen gudari talde bat, eta yaupari ta parixeta'ren mořoyak bildu, ta makila ta izkiluakaz Yosu otoi egiten egoan tokira zuzendu ziran.

Yudas maltzurak, ondiño be aizkide buru egin gura eban eta Yosu'ren etsyai ezaugarı au emon eutsen: «Nik laztanduko dodana, axe bera da, artu egizube, eta arduraz eroan». (Matth. XXVI - 48) Eta arekaz zer ikusirik etzeukala adirazi gurarik apur bat au'eratu zan.

Yosu iruga'ren aldiz otoi eginda, bere ikasleakaz izketan egoala bertara eldu zan. Yosu'k yagi ta bidera urten eutson. Biotzik onena, ta biotzik baltzena, maitasuna ta gořotoa, ontasuna ta eskartxa'ra auzez-auř aurkitzen dira. Euren bařuan une artan gertatu zana nok astertu? Yudas'en biotza sugearen antzera biortuko zan, baña ondiño be, aizkide-buru egiñik, ureratuta esan eutson: «Aguř Irakasle ori» eta ikasleak oi eban laztana emoten asartzen da! ¡Saltzale iguingaria! Gořotorik baltzenagaz suge gořiak baño eden (veneno) geyago zeukan aizkide-lasztana emon...! Eta Yosu'k zer? Bertan betiko ondatu bea'rean, maitasunik andienaz laztana biurtu ta amultsu diñotso: «Aizkide; zetan etori zara? ¡A! Yudas, laztanagaz, Gizonaren semea saltzen dozu?»

Itzok biotzik gogorena biguntzeko naiko ziran, Yudas'ena izan ezik..¡

Yosu Biotz bigunak ontasunez beragandu gura eban, baña Yudas'ek, girñaz itsuturik, goiko eskařak ezetsiten ditu, argiari begiak itxi, maitasunari biotzeko atepak, eta lkasletzako goiko malatik, betiko zoritxař eta eriotzako ilunpe ikaragařian buruz auře yausten da....!

Yosu'ren Biotz maitagařiak bakařik daki, Yudas'en laztan guzuzeko onek, zelango samintasuna emon eutson!

Ziñez esan zeinkean Yosu-Kisto'k esan ebana: «Discite... Ikasi Ni gandik biotz otzan eta apaldunak izaten...» (Matth. XI - 29)

Eta zoruntsuak iñoz be Yudas'en antzeko izan ezfiranak..!

Manterola'fah Gabirel.

yaup.

O CRUX, A



Yaun maite ori; Gurutz orétan neu-maitasunez
yosifa zakust, buru gorputza uraturik;
Bildur ta pozez, zauri bakoitzan didar au dantzut:
«Maitetasunak zugaitik nauko zinzilik!
«Zure obenak ordaintzearen nago neketan
oñaze-samin itxasoaren erdian,
Neu-maitasunan ager-bidetzat, esan eidazu,
zeugaitik geyo zer egin ete neikean?
«Neke gustiak igaro ditut,
neure odolak ixuri,

SPES UNICA

Yaungoikoa izan eta besterik
emon neikezu gaur zuri?
«Neure bizia zeuri damotzut,
zeuri neure donokia,
zeu obenpetik ataratzeko
zeutzat ni nazan gustia!.....
«Au diñotzue neure zauriak!
entzun arén dei samuñak!.....
auxe diñotzu Gurutz batetik
Yaungoiko-Seme Bakañak!.....»

—Ene Yaun maite; bildur ta pozez,
dantzut zeure dei samuñ,
poza ainbeste maitatzearen,
obenakaitik bildur!.....
Baña Zu nitzaz erukiturik,
zakust, Gurutz deun oretan,
zeure Aitari eruki eske
iltzeñ azken zofiñetan.
Eta, biotza zelan ez daukot
maite-damuaz leñturik?
Maitasun-sua! non zagoz nire
biotz au kiskaldu barik?.....
¡Gurutza deuna! gauñtik Zu zara
nire argi ta bizitza;
¡Zugatz bikaña oron artean!
Zu zara donoki-giltza!.....
Zu nire poz ta sendotasuna,
nire babes ta atsedena!
Zugan bakañik idoro neike
deuntasunik bikañena!.....
¡Aguñ Gurutza maitagaría!
Maitasun ikuñ gurena!
Gurutza deuna! Zeu bakañ zara
biotzon itxaropena!.....

ZER EDO ZER

Yosu-Kisto'ren Epaikarietzaz. (1).

Yosu gure Gaizkatzaile maitea bidegabeko epayaz zigofitu ebanak, Sanhedrin edo Synedrion eritxon batzakoak izan ziran.

Sanhedrin yudatafen arteko epaikari nagosien batzari eritxon. Babilonia'ko atzefkaldetik etofri ziranean irasi eben. Yuda'fak Mois'en aldietatikotzat euken, baña ezta egia.

Geyenez euren batzafak, Eleizaren ego-aldean egoan ari landuzko toki baten biltzen ziran *lischat-hagazith* deitzen eutsoen.

Zenbat eta nortzuk.

Lendakari ta lendakari - ordeazkoagaz irurogetamaika izan beaf izaten eben. Iru taldetan banatzen ziran: Yaupari edo abade nagosiena; idazkari edo lege-yakitunena; (Sopherim) eta zafena (Seckenim); ez zafak ziralakako, sendi ospetsu-entariako buru izaten ziralakako baño.

Talde bakoitzeko ogetairu izaten ziran. Lendakariari *Nasi* deitzen eutsoen, eta bere ordeazkoari *Ath-Beth-Din*.

Epaikari arteko izateko, yudafen legeak yakituri andia eskatzen eban, beste gauza askoren artean efiatiko irurogetama'f izkuntza ta izkeli-giak yakitea. Baña legearen agindu oneri yaramon andirik ezeutsoen egiten eta guzurik esan barik esan geinke, geyenez ezyakin andi batzuk izaten zirala, Yosu'ren aldian beintzat.

HANAS edo ANAN.

Lenago talde onen buru izandakoa, ta buru izena ondino be eroyana zan berau; Yosu-kisto'ren erailtze bidegabean e'furik aundiena beronek euki eban, Kaiphas eta enparauak berak gura ebanera ipinten ebazalako.

Yatoriz Alexandria'ta'ra zan, Seth'en semea, Saduzeta'ren ikasle izan zan. Izakera bizi, argi ta andigurekoa zanez, laster galentzen azi zan. Txindia biltzeko txatala ei eukan, eta diruaren bidez, besusa ede e'fegalo ta abaf, nagosien aizkide bafuko izaten zan.

Ogetamasaspi urtegaz yaupari-nagosi autu eben. ¿Txindiz ala ondo irabazita eukalako? Dirudienez txindiz; gauzak goikoz-bera ebizen eta lendakaritza geyen ordaintzen ebanak geyenez beragantzen ebalako. Oituraz yaupari - nagositzak urte bete irauten eben, eta gero beste bat aututeko, baña Anas oraingo politikuen antzekoa edo zan eta, Yosu-Kisto'ren seiga'fen urtean autu ebenean, amaf urtetan berak yafaitu eben.

Gora-bera batzuk izan ziran, eta Anas'ek ibili ta ibili bere suin Kaiphas-Yoseba'rentzat lendakaritza'au lortu eban, eta onek amazoftzi urtetan Yosu-Kisto'ren 36'ga'fenerarte bere eskuetan euki eban. Biok gura ebena egiten zan; biok yaupari-nagusi izena erabili'en eta befogetama'f urtetan Anas'ek bere bost seme yaupari-buru ezagutu ebazan. Josefo edeslariak diñonez, gizon afo, maltzur, asafu ta ankefa» izan zan, eta zar eginda il zan.

Kaiphas.

Yon deunak diñoskunez, «urte atako yaupari-nagosi zan». Hanan edo Anas'en suiña, eta dirudienez saduzeta'ra zan au be. Buru gitxi, ta yakituri gitxiagokoa, zakafa, ta bere agintze ofegaz a'ropuztuta zegoana. Alan da be, biotz txar-txarekoa zanik eztirudi. E'fomata'f agintariei bidegabe aginduaren, arpegi emetoko inoz etzan gauza izan. E'fomata'fak indafez menperatuta euken yuda'f efiaren naiz erlejiñoaren kaltez zerbait egiten ba'eben, aurka egiten inoz etzan asartu. E'fomata'fen mofoi zirudian. Bere izena goizpa'f edo ebanjelioak bost edo sei bidaf aitatten dau. Yosu erailteko epaitu ebenean, berau izan zan nagosi.

Yosu-Kisto'ren aroko 36'ga'fen urtean, Sirio Vitelio'k lendakaritzatik kendu eban. Eta, Josefo diñonez, yuda'fak ezeben tamal andirik a'fdu. Leman yakintsuak diño beste amabost yaupari yuda'fak Yosu'ren epaikari arteko ixan zirala.

Idazkari edo Eskribak.

Idazkari edo lege-yakitunak, yakitun lez batzar'etara eltzen ziran. Yudafen artean ospe andia euken. Baña Yosu'k euren apainkeri eta a'fokeria safitan arpegira yaurti eutsen: «*Rabbi* izenaz deitu dayoen zale-zale dira, baita yataldi ta batzar'etan toki lenak ar'tzen be. «(Math. XXIII-6).

Sanhedrin'en biga'fen ma'lan egoten ziran.

Ogeta irutik amabiren izen onexek dakiguz:

(1) Ikusi *Chauvin* yakintsuaren idaztitxoak: *Le Proces de N. S. J. C.*

Gamaliel, Simon, Onkelos, Yonatas, ben Uziek, Samuel *txikia* eritxona, Kananias ben txiskia, Ismael ben Elizá, Rabbi Zadok, Yotxanan ben Zatzai, Alba Saul, Txanania, Eleazar ben Parta.

Gamaliel kistař egin zan eta eleiz-egutegi batzuk deunen artean zenbatzen dabe.

Zafak.

Yatoriz ala aberastasunez ospetsuak izaten ziran.

Amařen izenak dakiguz, eta euron artean ospetsuenak, Nikodemus, eta Arimatea'tar Yoseba. Oneik ixilean baño ezpazan be, Yosu'ren yaraixale izan ziran, eta epai okefa ezeben onetsi. Askok deunen artean zenbatzen dabez.

Ponzio Pilato.

Sanhedrin'ak emondako eriotz-epaya, eřomatar agintariak sendetsi beař izaten eban eta, oneik be epaikari artean sařtzen dira.

Bata, Ponzio Pilato izan zan. Andiki artekoa zanez, Kaisar'en senide bategaz eskonduta zegoalako, Yudea'ko yauřlaritza edo gobernadore-tza, Balerio Grato'ren ondoren beragandu eban. Amař urtean nagosi izan zan, eta eskubide andiak eukazan, ia bakaldun ordezko baten eskubideak. Yudařak ikusi be ezin eban. Eta zineř ofetarako zio asko euken. Yudařen etsai amoařtua zan, eta efi onen alde z ez egin ez eze, kaltez al ebana egiteko beti geřtu egoan.

Izakeraz ařoa zan ařen, argala, bilduřti ta erabagibako gizona zan. Orain esango geunken lez: gizon txatxařa.

Bere bilduř gustia Tiberio bakaldunaren aizkidetasuna galtzea zan; au baño edozer gurago eban. Eta auxe zala bide Yosu zigofu eban.

Bidegabeko erailketa batzuk agindu ebazalako, Kaligula Kaisar'ak Galias aldera erbestetu eban. Batzuk diñoe erail egin ebela be; beste batzuk, garbatuta Biena'n il zala, beste batzuk Zuiza'n bere burua osin batera botata ito zala. Bere izena, Yainko-Seme'aren erailtzearen gaiztakeriagaz betiko baltzituta gelditu zan.

Herodes.

Herodes nagosia eritxonon seme izan zan.

Antiphaz bere izena. Auxe zan Yon Ugutzaleak bere bizitza lotsagabea arpegira yaurti eutsolako, burua mostuteko agindu ebana. Galilea ta Perea'ko bakalduntxo lez zan. Gaizto -gaiz-

toa, apainkeri-zale ta ondasun eralgilea. Yudařak gořotatzen eban.

Bere izakera eta egiteak zirala bide inori be etxakon begiko egiten. Azerikeri ta indařez agintaritza lortu eban, ta bere burukeriak egiten lenena dirudi. Yosu'k «azeria» deitu eutson, ta bere auřera eroan ebanean itzik be ez eutson erantzun. Orduan ixekaz (burlaz) zuriz yantzi ta zoro lez bialdu eban.

Azkenez ařokeri ta bekaitzak galdu eban. Kaligula'k erbestetu eban; eta Yosu'ren etof-kundetik 39'gn. urtean Lyon'en il zan.

* * *

Yosu-Kisto'ren epaikari gaizto ta iguingařiak onexek izan ziran. Epai edo sententziarik okere-na ludian eurok emon eban. Euron izen eta egiteak ba, baita euron yaraixaleenak be, zuzen-zaleetasun izpirik giza-biotzetan dagon artean, betiko gaiztetsiak izan beitez!..

GAMA.

Vatikano'rako Abařak

V Sista'k, Roma'ko enparantzeak, edeřtu euzan.

Egiarařak, lenengo aldiz, aři luze-luziak, obeliskuak deretxanak, egin ebezana; aři luze ta edeř aunek, iru leřo eukezan. Beřogetabi olako obeliskuak, Egito'tik Roma'ra, bertoko agimendunak diru asko ordainduta, ekaři ebezana.

V Sista'ren aldijan, olako bat, Kepa-Deun - txadonearen albuana luřalduta eguan. Bere auřetiko Doipurubak, ez euken kemenik, lan ori egizteko.

Baņa Sista bulařtsuba zan, ezi-gatxa: ezeban bilduřik, ezautu.

Doipurubak, Fontana'tar Domeka, artezkaritzař artu eban. 1586'g. Jořala'ko 30' gařenan, gauza gustijak egozan gerturik; eta goxan, Kepa-Deun-txado-

ITAUN - ERANTZUNAK

Barau efeza.—Sapatu santuko baraua eguerdian amaitzen dala egia ete da?

Bai; Eleiz-Legedi bañiak diñonez, egun aítako baraua eguerdian amaitzen da. (Can. 1252, 4).

Yakin-zale.—Gurutzearen oñetan ipinten daben buru-azur edo kalabereak zer adirazten dau? —Buru-azura Gurutzearen oñetan ipinteko oiturea antxiñakoa da. Ara zer dala-ta: Askok ziñestuten eben, ofetarako ziorik egon ez afen, gure lenengo guraso Adam, Koskotegi mendian obiratuta egoala, eta Yosú-Kisto'k aren obena kentzeko bizitza emon ebanean baita be, bere zaurietako odolaz Adam'en buru azura bera antxe egoalako, garbitu ebala. Ziñeskerau irudi lez gauza polita da, baña egiz alan gertatu zala esan al izateko, eztago susterik.

Alan da be margolariak eta irudigileak, buru-azur ori gurutzaren oñean ipinteko oitura oferi saritan yafaitzen dautsoe.

M.'taf G.



XI' Urtia. — 192' gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922' ko Joñala'ren—15.

IGARATZ-OSTEKO, I IGANDIA

(IN ALBIS)

Jon-Deunaren, Goizpañkiko, XX atzalburutik, esakun eñeskada batzuk.

Aldi atan: 19.—Eta asteko lenengo egun aretan, aratza zala, ta ikaslarijak, judañei bilduñaz, batzalduta egozaneke atiak itxita egozala: Josu etoñi zan eta diñotse: Bakia zubei.

20.—Eta au esan ebalá, bere eskubak eta albua irakutsi eutsezan. Eta ikaslarijak, Jauna ikusiki, poza-ixan-eben.

21.—Gero, osterá be, diñotse: Bakia zubei: Neure Añak bidaldu naun legez, neuk, be, bidaltzen zaikiodaz.

22.—Eta itz aunek esanaz, putz - egin eban: eta diñotse: Goteuna arñu-egixube.

23.—Obenak azketzen dozubenai, azketsijak dira: eta geratzen dozubenai, geratubak ixango dira.

24.—Baña Toma, Didimo deretxana, amabijetarik bat, Josu etoñi zanian, eurekin ezeguan.

25.—Eta beste ikaslarijak esan eutson: Jauna ikusi dogu. Baña berak diñotse: Bere eskubetan; untziaen ikurtzea ezpa-dot ikusten, eta neure atzamaña untz-zu-

luban, sañtun dagidala, ta bere albuan neure eskuba sañtu dagidala, ez dot ziñetsiko.

26.—Eta zortzi-egun urñenan, osterá be, bere ikasleak, eta Toma eurokin, etxebarñuan, egozan: atiak itxiñá, Josu etoñi zan, eta erdijan eguan eta diño: Bakia zubei.

27.—Eta gero, Toma'ri diñotso: zeure atzamaña sañtu-egixu, emen, eta neure eskubak ikusi-egixuz, ta eure eskuba ekañk, eta neure albuan sañtu egik: ez ixan zadi zingia, zintzua baño.

28.—Toma'k erantzun eban eta diñotse: Ene Jaun eta ene Jaungua.

29.—Josu'k esan eutson: Toma, ziñetsi dozu, ikusi-nauzulako: ikusi eztabenak eta ziñetsi dabenak, zorijondunak.

30.—Gauza asko, egiz, ta beste alatzeak, bere ikaslaen betañufian, idazti onetan, idatzi eztiranak, Josu'k egin ebazan.

31.—Baña, aunek, idatzi dira, ziñetsi egixuben, Josu, Kisto Jaungoikuaren Se-

ARBIA

(Schmid).

Nekezari txiro batek, gustiak arituta itxiten ebazan arbi aundi bat bere baratzean artu eban.

Eta ein eban: Neure ugazaba Konde jaunari eroan bear dautsot, baratzak arduraz landutea atsegin izaten yako-ta.

Gastelura eroan eutson ba, ta bere lankortasunaren goraldu eban, eta eskeñak egiñaz, bere zintsotasuna saritzeko iru ontzufe emon eutsozan.

Baseñi atako lugin aberats aña zikotza zan batek, au yakin ebanean, berekautan egin eban: Neuk be izko eder bat daukot, eta beriala gasteluko yaubeari erdan bear dautsot. Arbi ezerezATEGAITIK iru ontzako emon ezkerok; nire a lango izkoATEGAITIK jzenbat emongo ete yozak!...

Beriala izkoa lepotik lotu eta gasteluko jaunari eroan eutson, bere eskeintza ontzat artzeko esanaz. Baña Kondeak zikotza zetan etoren igari eban, eta ezeutson artu gura izan.

Baña lugiñak artzeko ta artzeko ekin eutson, ta eskeintza andia ezpa-zan be, abegi ona egiteko.

Kondeak sentzun andia eukon eta esan eutson: Tira ba, zeure eskeintza artu eragiteko ainbeste alegintzen zaran ezkerok, artzen dautzut; eta biotz zabalekoa zaran ezkerok, neuk be gixiagok eztot izan gura. Alan ba, izko orek balio daben baño bi edo iru bidar geyagokosta yatan gauza bat emongo dautzut.

Eta geyagokok barik, berak ekian arbi edera eskiñi eutson. Lugiña gustiz lotsatuta gelditu zan,

*Biotz zintzoak beti artzen dau egiñen onen saria;
Besteren onaz ez inartzirik,
nai ezpogu lotsaria.*

G.

ZORUN-BIDEA

Sañi-askotan dakañ
aurtxoak sendira,
egizko poztasuna
zorunaz batera,
bere begitxo oztinak
mitxeleta-antzera,
dabiltzanean egaz
batera-bestera.

Sendia dagon-aren,
akareñ ezkerik,
maitasun gozoaren
izpi pitin-barik,
iri-bare bat aurak
ba-dagi uts-utsik,
beingoan dago len lez
maitasuna goitik.

Aurtxo baten-aitziñan
goroto zikiñik
agertzeko ¿nok dau gaur
mosuan bizañik?
Umearen audean
otso-antza arturik
dabilenak darakus
etzaukoka alkerik.

Ofmaetxeñar Kepa.

Nik eztiñot eta ez dot esan, be, bera egizkua dala; baña, diñot, egokizkua, beintzat, dala.

Zeure aizkide zintzo,

Albizuri'fak Serapin.

Beñmeo'tik, Jofala, 9'an.

Itz atzalgarriak: Gedin.=vocal. Igidin.=consonante. Sendi.=familia. Abixen.=apellido. Zeindi.=articulo.

(1) Azketzi aizkide, baña zuur, zudur idatzi zendun, ta aulako gayetan ez dogu emen ezer zuzentzen (Artez).



¡RESURREXIT!.....

Egun alaya! Garaitz eguna!
Etsayentzat bildu'garil!
¡Yosu biztu da!... Kista'ok poztu!...
¡Aintza Garaitzalearil!...

«Etsayok orain da'f-da'f zagoze?...

Non aurtemingo poz-poz?

Non dira zuen a'fokeriak,

ifi ta gofoto baltza?...

Eriotz baltze; oin zer dagikek?

Ondatu az ba betiko!...

Erpe-artetik iges eztakusk.

Yosu, Gizon ta Yaungoiko?

Eruki ezaz, nor bildu'tukok?

Nor ire go:beltusunaz?...

Nor bildu'tukok gau'ttik geyago

eure makatz anke'agaz?...

Negar egik bai, tamal-asarez

betilun yari nai aña,

bizi gustiak, nai bok iruntsi...

alpe' bilaukok ordaña!...

A'fokin intzan eurean usterik

ludi gustiko agintza,

baña galdu dok, Yosu biztuaz

gustiz ire bakalduntza».

Yauna'k biztuta zabaldu dausku

guri donoki atea;

Poztu gaitez!... Aintzaldu Yauna!...

¡Gora geu-Gaizkatzalear!...

Egun alaya!... Garaitz eguna!...

txe'fenentzat bildu'garil!...

¡En artetik Yosu biztu da!

¡Aintza Garaitzalearil!...

GABIREL.

IV-1922.



ZER EDO ZER

Yosu-Kisto'ren obiraltzea.

Yudaŕen legeak ez baña, eřomataŕen legeak, gurutzaldurak bertan, usteldu ala piztiak yan arte itxiteko agintzen eban. Ala da be, senide ala aizkideak gorpua obiraltzeko eskatu ezkeru emoten eutsen. Yudaŕen legeak kentzeko agintzen eban.

Yosu-Kisto'ren gorpua Arimatea'tar Yoseba'k -eta eskatu eban, eta yudaŕen oituraz, garbitu, igoftzi eta oyaletan bildu be bai.

Yosu'ren gorpua usainkiz iguřzteko 100 libra miřa ta aloē eroan ebezan. Iru bidař igofřten eban. Oyaletan bildu baño len; oyaletan bilduta gero; ta azkenez obitegian bertan.

Oyalak iru motakoak izan oi ziran. Batzuk luze ta bedarřak, banan-banan gorpu-atal gustiak bilteko; beste bat burua estaltzeko: ta azkenez il-oyala gorpu gustia biltzen ebana.

Egi gařatzak.

Egia, batez be, entzun gura eztabenentzat be ti izaten da gařatza, baña emen ipiņiko doguzanak edozeņi be burua lotsaz makuřtu eragitekoak dira. Gařatzak bai'dira, baña sařitan gogaldu beař geunkezanak be bai, batez be Yosu-Kisto'ri epelkiro ta efenka bakařik yařaitzen dautsogunean. Lubek, Alemaniako gotzain-eleizan idatzita dagoz.

Ara emen.

«*Yauna* deitzen daustazue, eta eztaustazue men-egiten.

Argia deitu eta eztozue ikusten.

Bidea deitu ta eztaustazue yařaitzen.

Bizitza deitu ta nire gura etzarie.

Yakitun deristazue eta eztaustazue entzuten,

Anaya deitu ta ez nozue maite.

Aberats deitu ta eztaustazue eskatzen.

Betikoa deitu ta Nire bila etzabiltze.

Eřukioř deitu ta Nigan eztozue usterik.

Nagosi deitu ta ez zarie Nire otsein.

Altsua deitu ta ez nozue aintzaltzen.

Zuzena. deitu ta eztaustazue bilduřik.

Zigořtzen ba'zaituet ba, ez euki zer esanik».

Babilonia'ko orma lodiak.

Yosu-Kisto baño 540 urte inguru lenago egi-ņak dira.

Inguru gustian 80 kilometro eukien. Gorantza 104 metro, eta zabaleran, 10'67. Burdiņezko 100 ate eukiezan.

Eta gauza batzuetan beintzat babilonitařak gu baño atzerago etziran bizi. Babilonia'n eskegitako baratz-lorategiak be bai'ziran. Eta ez edo-zelangoak be! Luřetik 30 metro goyan, eta 130 metro alde bakotxetik zabaleran eukienak baño. Eufrates eritxon ibaiko urak bertaraño yasoten ebezan. Zelan? Eztakigu, baña orduan be gustiak kokoloak etziralala bai.....

Gauř egunean ia ezer ezta geratzen; euron lořatzak be ostaz-ostaz idoro dabez. Gizonen gauzak ezereztuteko aldiak daukon indařa andia da gero!....

Ludiko zuřatzik aundiena.

Ludiko zuřatzik aundiena, Tulle, Oaxaka Mexiko'ko lateřian ezautzen da. Zipaes motakoa da. Inguruz-inguru 47 metro daukoz. Gizonak inguratzeo 30 gizon alkaři eskuak emonda beař dira. ¡Eřtok mokala..!

Ludiko aři landurik aundiena.

Ludian ezautu dan aři landurik aundiena Baelbek, Siria'n aurkitzen da. 22, 1/2 metro luze ta 4'27 zabal eta 4 goi-be, daukoz. 3.000.000 libra inguru ei daukoz. Eguzkiari opaldutako eliza baten ondafen orřtean aurkitu eban.

Baten-batek itandu leike: Baña olango aři tzar bat ařobitik zelan atara leike? Orixe diņot neuk be. Gai ofetan ainbeste auřerapen izan ařen, gauřko gizonak olango aři bat osorik aterateko gořiak ikusi beařko leukiez...



ZER EDO ZER

Yosu-Kisto'ren obiraltzea.

Yudafen legeak ez baña, eřomatafen legeak, gurutzalduak bertan, usteldu ala piztiak yan arte itxiteko agintzen eban. Ala da be, senide ala aizkideak gorpua obiraltzeko eskatu ezkeru emoten eutsen. Yudafen legeak kentzeko agintzen eban.

Yosu-Kisto'ren gorpua Arimatea'tar Yoseba'k -eta eskatu eben, eta yudafen oituraz, garbitu, igořtzi eta oyaletan bildu be bai.

Yosu'ren gorpua usainkiz iguřtzeko 100 libra mifa ta aloe eroan ebezan. Iru bidar igořtzen eben. Oyaletan bildu baño len; oyaletan bilduta gero; ta azkenez obitegian bertan.

Oyalař iru motakoak izan oi ziran. Batzuk luze ta bedarřak, banan-banan gorpua-atal gustiaki bilteko; beste bat burua estaltzeko; ta azkenez il-oyala gorpua gustia biltzen ebana.

Egi gařatzak.

Egia, batez be, entzun gura eztabenentzat be ti izaten da gařatza, baña emen ipiņiko doguzanak edozeņi be burua lotsaz makuřtu eragitekoak dira. Gařatzak bai'dira, baña sařitan gogaldu beař geunkezanak be bai, batez be Yosu-Kisto'ri epelkiro ta eřenka bakařik yařaitzen dautsogunean. Lubek, Alemaniako gotzain-eleizan idatzita dagoz.

Ara emen.

«Yauna deitzen daustazue, eta eztaustazue men-egiten.

Argia deitu eta eztozue ikusten.

Bidea deitu ta eztaustazue yařaitzen.

Bizitza deitu ta nire gura etzarie.

Yakitun deristazue eta eztaustazue entzuten,

Anaya deitu ta ez nozue maite.

Aberats deitu ta eztaustazue eskatzen.

Betikoa deitu ta Nire biřa etzabiltze.

Eřukioř deitu ta Nigan eztozue usterik.

Nagosi deitu ta ez zarie Nire otsein.

Altsua deitu ta ez nozue aintzaltzen.

Zuzena. deitu ta eztaustazue bilduřik.

Zigořtzen ba'zaituet ba, ez euki zer esanik».

Babilonia'ko orma lodiak.

Yosu-Kisto baño 540 urte inguru lenago egi-ņan dira.

Inguru gustian 80 kilometro eukien. Gorantza 104 metro, eta zabaleran, 10'67. Burdiņezko 100 ate eukiezan.

Eta gauza batzuetan beintzat babilonitařak gu baño atzerago etziran bizi. Babilonia'n eskegi-tako baratz-lorategiak be bai'ziran. Eta ez edo-zelangoak be! Luřetik 30 metro goyan, eta 130 metro alde bakotxetik zabaleran eukienak baño. Eufrates eritxon ibaiko urak bertaraño yasoten ebezan. Zelan? Eztakigu, baña orduan be gustiaki kokoloak etzerala bai.....

Gauř egunean ia ezer ezta geratzen; euron lořatzak be ostaz-ostaz idoro dabez. Gizonen gauzak ezereztuteko aldiak daukon indařa andia da gero!....

Ludiko zuřatzik aundiena.

Ludiko zuřatzik aundiena, Tulle, Oaxaka Mexiko'ko lateřian ezautzen da. Zipaes motakoa da. Inguruz-inguru 47 metro daukoz. Gizonak inguratzeko 30 gizon alkafi eskuak emonda beař dira. ¡Eztok mokala..!

Ludiko aři landurik aundiena.

Ludian ezautu dan aři landurik aundiena Baelbek, Siria'n aurkitzen da. 22, 1/2 metro luze ta 4'27 zabal eta 4 goi-be, daukoz. 3.000.000 libra inguru ei daukoz. Eguzkiari opal dutako eliza baten ondařen orřean auřkitu eben.

Baten-batek itandu leike: Baña olango aři tzař bat ařobitik zelan atara leike? Orixe diņot neuk be. Gai orřetan ainbeste auřerapen izan ařen, gauřko gizonak olango aři bat osorik aterateko gořiak ikusi beařko leukiez...

GAMA.



XI' Urtia. — 193' gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922' ko Orila'ren—1.

IGARATZ-OSTEKO III IGANDIA

Jon-Deunaren Goizparikiko XVI atzalburutik, esakun ereskadea

Aldi atan: Bere ikaslai, Josu'k esan eutsen:

16.—Aldi - unea ta enauzube ikusiko: eta ostera aldi-unea, ta ikusiko nauzube: Añagana nualako.

17.—Orduhan ikaslarijetarik norbaitzuk, algaferi, iñuen: ¿Zer da au diñoskuna: Aldi-unea ta enauzube ikusiko: eta ostera aldi-unea ta ikusiko nauzube: eta Añagana nualako?

18.—Eta iñuen: ¿Zer da au, Aldi-unea, diñuana? eztakigu zer diñuan.

19.—Eta Josu'k ezautu eban iñandu -gura-eutsoela ta diñotse: Onetzaz itz-dagixube, zeбен aftian, niñualako: Aldi-unea ta enauzube ikusiko: eta ostera aldi-unea ta ikusiko nauzube.

20.—Egiz, egiz diñotzube: Zubek oñon eta negaf egingo dozubela; ludiñar'ak, baña, poztuko dira: zubek iñun egongo zarie, baña zuben iñundasuna pozean irabijauko da.

21.—Emakumiak jayotz - unean, iñundasuna dauka, bere aldija etori dalako: baña ume-aña jayota, estureakin ezta go-

mutetan, pozagañik, biztokijan gixona jayo dalako.

22.—Eta zubek be, orain egiz iñundasuna daukazube, baña ostera ikusiko zaitubet ta zuben bijotza poztuko da: eta zuben poza iñok ez dautzube kenduko. Eta abaf.

* * *

*Aldi-unea ta enauzube ikusiko, ilgo nazalako; baña ostera aldi-unea ta ikusiko nauzube, berbiztuko nazalako. Bel-dubak zorabijauta, iñundasunagañik, Jau-nak esandakua ezeben uleñtu. Kirisostoma'ren esakunea da au.**

—Gaurko goizparikijak irakaskixun eder-edeña dauka. Aldija, biztoki onetakua, gustiz labur-labura da: eta ludiñar'ak betikotzat daukena, igeskoña da. *Modicum est hoc totum spatium, quod praesens pervolat saeculum:* Austin-Deunak.

I

¡Ara! Biztoki onetako antzokijan, andikijak, bakaldunak eta lendakarijak ager-



IGARATZ-OSTEKO III IGANDIA

Jon-Deunaren Goizparikiko XVI atzalburutik, esakun eřeskadea

Aldi atan: Bere ikaslai, Josu'k esan eutsen:

16.—Aldi - unea ta enauzube ikusiko: eta oster aaldi-unea, ta ikusiko nauzube: Ařagana nualako.

17.—Orduhan ikaslarijetarik norbaitzuk, algařeri, iñuen: ¿Zer da au diñoskuna: Aldi-unea ta enauzube ikusiko: eta oster aaldi-unea ta ikusiko nauzube: eta Ařagana nualako?

18.—Eta iñuen: ¿Zer da au, Aldi-unea, diñuana? eztakigu zer diñuan.

19.—Eta Josu'k ezautu eban iřandu -gura-eutsoela ta diñotse: Onetzaz itz-dagixube, zeben ařtian, niñualako: Aldi-unea ta enauzube ikusiko: eta oster aaldi-unea ta ikusiko nauzube.

20.—Egiz, egiz diñotzube: Zube k oñon eta negař egingo dozubela; ludiřařak, baña, poztuko dira: zube k iřun egongo zarie, baña zuben iřundasuna pozean irabijauko da.

21.—Emakumiak jayotz - unean, iřundasuna dauka, bere aldija etofi dalako: baña ume-ařa jayota, estureakin ezta go-

mutetan, pozagařik, biztokijan gixona jayo dalako.

22.—Eta zube k be, orain egiz iřundasuna daukazube, baña oster aaldi-unea ta ikusiko zaitubet ta zuben bijotza poztuko da: eta zuben poza iñok ez dautzube kenduko. Eta abaf.

* * *

Aldi-unea ta enauzube ikusiko, ilgo nazalako; baña *oster aaldi-unea ta ikusiko nauzube*, berbiztuko nazalako. Bel-dubak zorabijauta, iřundasunagařik, Jau-nak esandakua ezeben uleřtu. Kirisosto-ma'ren esakunea da au.

—Gauřko goizparikijak irakaskixun edeř-edeřa dauka. Aldija, biztoki onetaku, gustiz labuř-labuřa da: eta ludiřařak betikotzat daukena, igeskořa da. *Modicum est hoc totum spatium, quod praesens pervolat saeculum*: Austin-Deunak.

I

¡Ara! Biztoki onetako antzokijan, andikijak, bakaldunak eta lendakarijak ager-

galdu yuagunean, eta Eukaristiagaz batez be sendotu ta janarrituten yauskuk bizitza ori,

2.'k.—Ondo diñok; baña iru aita nondik ataraten dozak?

1.'k.—Euria bata, Txilibristo deritxona; Jaungoikua bestea, ta irugařena Aita Santua ta beste eliz-gizonak, eure arimiari Sakramentu deunakaz bizitzia emon eta jagoten yautsoekalako.

2.'k.—Euriagaz urten dok azkenean; baña, tira, iru ama ta iru aita oreik autořtzen yuadaz.

I. J. M.

GASTETASUNA

*Beti ameska, beti artega,
beti gauza bari bila;
bizitz-indařak bultzauta doya
gorantz gaste dan mutila.*

*Eragospenik, jez aitatu be!
elburura eldu nayan,
bide lakařai begira barik
eztau nai yakin non doyan.*

*Nai izateak igitzen dau-ta
oldostuteko tarterik,
irudimenak ez dautso izten...
¡Auřera gelditu barik!...*

*Beretzat ezta zeař-biderik,
bide labuřa onena!
neketsu dala? Ezta ori be,
beretzat eragospena.*

*¡Auřera beti! ¡Beti gogotsu!
bidez indařak galduaz,
ta elburura eltzen dojala
bai doya bai nekatuaz!*

*Eta sařitan amesak egi
biurtuta ikusirik,
bere saria eskuratzeko
eztauko, ez, adorerik!*

*Tamalgaria auxe bai dala;
zintso bidean yokatu;
bidean dana nekau dalako
garaitza ezin txastatu!...*

*Ziñez-ziñez ba samingaria,
azkařegi eltzeařen,
gustia galdu, eta azkenean
etsaya bakař pozaren!...*

*Zerbait gogaldu ezkeru baña,
neke-bidea danean,
zeařka igon obe dirudi,
gelditu barik bidean.*

*Alan galuřa lořtzen danean
gustiz indařgetu barik,
gogo gastedun zařak eztauko
etsai gustien bilduřik.*

GABIREL.



ZER EDO ZER

Arek egingo eztabenik....!

Ipař-Amerikatarak gauza bakanak egiten mutlak dira.

Etxeak eta, toki batetik bestera aldatzeko erea asmau dabe. Hibbing deritxon urian, burdin miña ugariak, txaide baten azpitik igaroten zira-la yakinik, eřezago ataratzeařen, bai'dakizue zer egin eben? Ba, etxe mordo a eustazpi bariak egin eta beste toki batera aldatu....!

Oraintzu bafiz, 33'50 luze ta 20 metro zabal daukon Nikola deunaren eleizea, kale bat zabaltzeařen 6 metro aruntzago oso-osorik eroan dabe. 4.500 tonelada pixatzen dituz. Bardin egin dabe 5.000 tonelada pixatzen dituan zortzi oñeko etxe bategaz. Arek dozak mutiak....!

Zer ikusi beař ete yoęuk....!

Ipar-Amerikan loru bako uřutizkiñak auřez zabaldu dira.


Agintariak daukiezan tramankuluez gañera, izpař bialtzeko 25.000 inguru izango dira, eta izpařak entzun edo artzeko 1.000.000 baño ge-yago.

Eta gauza yakingařia. Loru bako uřutizkiñaren bidez, (telefonía sin hilos) eleizan egindako itzaldiak, andik 666 kilometro uřin bizi direan kistařak, euren etxean dagozala, ederto entzun dabez.

Pittsburgh'en Patirki deunaren aba belgundari bik, tramankulu onen bidez ogei probintzita-ko kistařakaz arřu-emonak lortu dabez. Eta aři-gařiena, yaupari ezaz eleizkizunak lagata euki dabezan kistař asko, ařibako uřutizkiñez itzaldiak egiñaz ikurton edo sakramentuak artzeko lain gertau dabez.

Olan ba'goaz, lazter dau asmau norbaitek itzaldiak nai eztabenai entzun eragiteko tramankuluen bat, orduan izango dira kontuak....! Bae-gaitik be, danak eleizara etoři beařko....!

GAMA.



ZIAROTZAKO ELEIZA (Fot. Ojanguren)



XI' Urtia. — 194' gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922' ko Oñila'ren—15.

IGARATZ-OSTEZ, V IGANDIA

Jon-Deunaren Goizparikiko XVI atzalburufik, esakun eřeskadea

Aldi atan: 23.—Beraren ikaslai esan eutson, Josuk: Egiz, egiz, diñotsubet: Neure ixenean; Añari, zer-edo-zer, eskatuko ba'zebe, damotsube.

24.—Orain arte, neure ixenean, deus, eskatu ixan eztozube. Eskatu-egixube, 7a ařtungo dozube, zeben poza osua dadiantzat.

25.—Aunek, ipuñakaz, itz-dagitsubet. Orduba datoř, zeñetan, ipuñakin, geyago, eztoť - itz - egingo: baña, argiro, nire Ařatzaz, iragařiko dot.

26.—Egun atan, neure ixenan, eskatuko dozube: eta eztiñotsubet Añari, zuben aldeť, otoi-dagikela:

27.—Berak Añak, ba, maťe - zaťubez, zubeť maťetan nauzubelako ta ziñetsi-dozubelako, Jaunguagandik, urťen nazala.

28.—Ařagandik urťen naz, ta biztokira etoři naz: ořtera, be, biztokija lagako dot, eta Ařagana nua.

29.—Diñotsoe, bere ikasleak: Ara orain argiro, itz-dagizu ta ipuin bat-eztiñozu.

30.—Orain dazaugu, oro - dakixula ta biař eztala, iřaundu - dagixubela, norbai-

tek: onetzaz, ziñesten dogu, Jaungoikua-gandik urťen zarala. Eta abar.

* * *

Antziñan, Plutarka'k diño, geznarijak bidaldu-ebezala, eřomatařak, Bitania'ra: baña geznari ayetarik bata maiztařa zan; bestia bilduřtija, kemenbakua; irugafena agura zařa, gexoduna.

Iři-bare ta iñakea, geznari, ořetzaz, dagi, Kato'k: Roma'tařen geznarijak, ez bururik, ez bijotzik, ez eskurik eta oñik bez, eztaukalako.

JAUNGOIKO-ZALE'ren, irakuřle ona *saspi-gařen otoiťzara*, eldu-gara ta Donokira Geznea bidaldu ta geure aldeť, otoi-dagigun.

¿Uste - dozube, eskatutakua, lořtu-gadixala? Bayetz dirudi: Jaungoikua, ba, ondasun utza da... Eta eskiñirik dago: «Neure ixenean, Añari, zer-edo-zer, eskatuko ba'zebe, damotsube.»

¿Zegařik, ba, euraen biařtasunetan, otoi-eginařen, eztabe ezer jadesten, norbaitzuk? Jaunguaren auřpegija ikusi-gura

eban Miren Antxiñekuaren opaz iluntzaro Agurtza Deuna edo Erosarijua esateko ekandu goralgafija, ta Jainkuari eskañak, ondiño be zorionian auzotañak joranez ta zaletasunez egin darue.

1.718'gko. Irañan jakin zanian urijan, matxiñuak Bilbon eta Bermion lapufetak eta erijotzak egin ondoren, etozela Lekitañen kaltez, asi eben bederatzi-uruna Miren Antxiñakuaren opaz, eta bestela baitakuan 13'g. egunian kalte barik apal apal etxeratu ziran biderditik.

Ganera itxasoko ekatxetan bere urgazpena eskatu dabien arantzaliak, amaika bidañ gaizkatu dituz Miren Antxiñakuak.


Gexo aldijetan, esturetan eta beartasunetan zenbatu ala ixan dira, beronek emendau ta sorosi dabezan auzotañ eta albeñitañak.

Azkenez, antxiñako janzki edeñ ta urezko bureztunakaz, baita Abaroa'tañ Paskal eta bere emazte ta ondorengiak eta abañ bezutzat eta oparitzat emoniko bitxijakin ondo orniduta dago.

Berau da Bizkayan lenengoz agerturiko Miren antzezkija; baña zoritxañez ondi nausijan «Miren bañija», jañi ebelako «Antxiñakua» oltza ostian benetan ilunduta geratu da.

Ayengiz'tañ Iñaki Aba.

Basuftoko Txotiñoduna.



Euzkadiko Miren Antzezkijen edesti labura

MIREN ANTXIÑAKUA

Lekiño (Lekeitio) Bizkaiko itxasurija da, eta 4.486 auzotaf daukoz; 1325'g. Diaz-Arotaf Miren Bizkaiko Jaun-Ordezkuaren aginduz etxe bafijakaz geitu zan, eta 1334'g. XI Albontsa Jaunak sei oin lodierazko afotxaz, edo afesiz, au da, ormatzarakaz inguratuta jafi eban.

Uri onetantxe ba 730'gnian. erfxadona (Eleixia) daguan toki berpertako ondar-tzan edo aretzan, agertu ei zan Miren Neskutsa elofi abaftsu baten adaburuan. (1) Lekitoko arantzale gixajuak ba goizaldian agerkunde zoriontsu au ikusi eb-nian, alkafen leyan uferatu ziran, eta bere inguruan kurlauta belanuniko jafirik, eraz-kunez beteriko otoitzak egin ebezan; ba-na ikusirik bertan egotez iraun nai ebala, maitasunaren maitasunaz iragi eutsen txadon bat; eta geruago 1289'g. iru Gotzaf-nen bitartez deun opaldu zan. XV'g. eun-kidan befiragi eben orain dakusgun erf-xadon eder afoa, 132 oin luzeran, 136 zabaleran eta 90 goiberan daukona; iru koro,

(1) Ondiño gomutagaritzat eta adirazoteko agerkunde au, jagoten da egurastokijan elofi bat, eta zararen zafez igerituten danian, beste bafi bat jafi darue efitarak.

sei txauño, ta 15 ondi erfitsukin: ganera 1884'gnian. Abaroa'taf Paskal'ek eralgi ebazan alegiñez ornidu, arkolau ta eder-tuteko 500 anei laufleko: baita Efomako sazpi txadon nausijen eskubideak loftu eutsozan.

Goizpaf aldeko koroan, eta ondi nausi-ko oltzaren osteko ukonduan ba jesafita dago Miren Antxiñakua, 40 neufkeunen daukoz luzeran ilargija ta eguzkija onetan, baita ufezko 12 ixafez bureztuta, eta eskef aldetik Semia altzuan efijari begira, berau eskumagaz onesteko eran, eta eskefian «bixitzako idaztiñoa» daukala: zoritxafez eskumako eskua moztuta dauko Amak, baita Ama-Semien arpegi margulduak, bafiztu ta ederfu ebazan Lekuona'taf Andoni margolarijak, len baltzeranak ziran-ta.

Oltza (erfablua) zidaf eftikua da (estilo plateresco) eufez matzofi ta mordoakaz apaindua: goiburuan dauko Bizkai-ikufrdija (eskudua), baita zerbait berago Joseba Deuna bere Ezkon gizkarbija, ta eskef-eskuma beren guraso Deunak Jokin eta Ane; azkenez ondi bafenian agerkunde alaitsu au margotuta antxiñako eredian.

Beñola Fefer'taf Bingen Deunak jafi

eban Miren Antxiñekuaren opaz iluntzaro Agurtza Deuna edo Erosarijua esateko ekandu goralgarija, ta Jainkuari eskarak, ondiño be zorionian auzotarak joranez ta zaletasunez egin darue.

1.718'gko. Irañan jakin zanian urijan, matxiñuak Bilbon eta Bermion lapuñetak eta erijotzak egin ondoren, etozela Lekitaren kaltez, asi eben bederatzi-uruna Miren Antxiñakuaren opaz, eta bestela baitakuan 13'g. egunian kalte barik apal apal etxeratu ziran biderditik.

Ganera itxasoko ekatxetan bere urgazpena eskatu dabien arantzaliak, amaika bidar gaizkatu dituz Miren Antxiñakuak.


Gexo aldijetan, esturetan eta beartasunetan zenbatu ala ixan dira, beronek emendau ta sorosi dabezan auzotar eta albertarak.

Azkenez, antxiñako janzki eder ta urezko bureztunakaz, baita Abaroa'tar Paskal eta bere emazte ta ondorengiak eta abar bezutzat eta oparizat emoniko bitxijakin ondo orniduta dago.

Berau da Bizkayan lenengoz agerturiko Miren antzekija; baña zoritxarez ondi nausijan «Miren barija», jari ebelako «Antxiñakua» oltza ostian benetan ilunduta geratu da.

Ayengiz'tar Inaki Aba.

Basuñtoko Txotiñoduna.



Lekeitijo'ko Miren Antxiñakua

bialdu dagiazala solo oŕen jabe dan Jaungoikuari otoitz egizozue». Rogate ergo dominum messis ut mittat operarios in messem suam».

O Jauna: solo ofetan gizadi guztia irudituta dagonaren Jabea Zeu zara! Zeuri, ba, mixiolariak ugaritu daizuzala eskatzen dautzugu, arimakazko euren zaletasuna geitu, ta euren nekeak bedeinkatu, zeruko garautegietan batuko diran arnari ugarriak Jaungoiko itzaren aziak emon daizan.

O Jauna, zeure agintaritzza zabaldua ikusteko gurariak bururatu dauskun geure eŕegu au entzun! Eta egunoro geure biyotzetatik espanetatik baño geyago eskari eder au, «betofkigu zeure eŕeñua», urtetan dan ezkerero, al danik ondoen eta geure indaf guztiaz «*Siniste - Zabalguntzari*» lagunduteko gauf agertuten dautzugun erabagian jaŕaituteko sendotasuna ta iraupena emoiguzu».

Oaŕa: Otoitz au esaten dan bakoitxeko 300 eguneko parkamenak irabazi zeinkez, eta egunero esan ezkerero, parkamen osoa ilean.

I. J. M.

LILIA

Koldobike'k eta eukien lorategitxo baten, ezpel landaraz inguratuta, lili edeŕ mardul bat, lerdan ta zuri-zuri agertzen zan.

Lilia bestekoa etzan neskatotxoa, goiz baten lora ain edeŕari begira egotan. Iñontzez beterik, eguzkiaren lenengo izpiak, dis-diska bere orietan ebiltzen, ari-bitxiz beterik bai-litzan.

Pozez eta eskaŕ onez beterik, eguzki, iñontz eta loren Egileaganantz bere begiak yaso ebazan.

Gurasoak euren alabearen ontasuna oaŕtu eben eta ixilka alkari esan eutsen: «Edeŕ eta zoragari lora oŕen antzera, bera be eŕugetasun lili bat ez ete da?»

Baña urtea amaitu baño len, Koldobike'k il zan, eta lilia baŕiro loratu zanean, bere ama naigabetuak beren alabaz gogoratuta negaŕari emon eutson

Orduan aitak esan eutson:


—Oraingo lili edeŕ au, ondiño baratzeko ertz batan landaratxo zala, atara nebanean gure Koldobike'k atsekabe andia aŕtu eban, tamala zala esanaz.

Baña gero lilia luŕ obero aldatuaz, baratzaren apaingari biurtu zanean, Koldobike pozez bete zan eta aldatu nebalako eskeŕak egin eustazan.

Ama samuŕ oŕek ba ez egizu negaŕik egin, ori egin beaŕean poztu zaitez, ba luŕetik aldatua izan aŕen, zeruan gotzonen artean dis-dis ez ete dau egi-ten?

*Ludi galdutik uruti
geure lili garbia,
Yaunak Berak aldatu dau
donokien erdira,
baratz edeŕ ta betiko
edeŕtasun tokira.*

M.'taf G.



Idazkun au eginda, Iztegiyan auxe idoro dot: *Zorot* (*zuñut*) *salto de agua*. Nik, neure itxořkunea, egokizkua, beintzat, zala, niñuan. Orain, eztakit, *Zorñotza'k la punta, el agudo, ala los saltos de agua*; ur-ertzearen onduan, basaetxe ixen ori daukana, dago ba.

Baña izkerearen aldetik, nire eretxija egokizkua zan: baña ikurpenaren aldetik los *saltos de agua*, uste dot orain, *Zorñotza* dala.

Baña *Zorñon* daukagu. *Zorñon* onek, eřderaz, *chorro o envuelto de aguas* dikuf. *¿Zorñotza* edo *Zorñotza* lekuba antziñan ugartea ete zan?

Ĵla au egija ete-da?

Amantzi'k ezpai makala darakusku; oratiño *Zorñotza*'ren itxořkunea, zein dan eztiño.

Ĵla ekin-ekiñař, itxořkun zorijondun ori, idorotzen ba'dogu.

Albiz.

Amantzi'ri

Aguf, Amantzi aizkide: Sari-saritan JAUNGOIKO-ZALE'k uts-egiten daust: augafik bertan darabiltzubezan salak be bai noxian bein. Baña jofařakuetan zeu ta Albizuri jaunaren tarfeko eztabaidea, *Zorñotza* dala-ta, irakufi dot. Eta zeuria irakufiřa, ona emen otu yatana. *Zorñotza* = *Zorñotza*; edo *Zorñotza* = *Zorñotza*. *Zorñotza* ori = *txořo*, *txuřu*, *zuri*, *zuřu*: salto de agua, torrente. *Zorñotza* = *txořotza*, *zuzen* = *txutxen*, eta abaf. Oin *zorñon* ba-zan eta ba-da, *no* edo *na sařařna'n*, *ulizařna'n* eta abarřan; *on*, edo *zorñon* ba-zan, *on*, *un*, *lun* eta abarřak ezaun - ezaunak. Ixafa'tik Murgia'rako biarřian, *Beluntza* dago; eta lau-bost lunotxu, uřengua lenguaren ostian, *tza'k* dikufan lez. Orko *Zorñotza* latz-onduan eta aldatz - goratxuan egotiak nire susmuak bayesten dabezala-ta nago. Of ikusi ta azteftu.

Oin beste gauza bat. Arako baten, *gotuts* *goteun*, *gotzain* eta abaf dirala-ta, *go* ta *ga* uldu, ta ordez *t* etofřiaz jasokunik ete-dagon itz-egiten lenguban alkařekin. Ora ba: *Limpas* eta *Santoña'ko* ibaya *Sanga* zan, eta *Sanga* da oindiño; ta *Sanga* ta *oña*'tik, *Santoña*, lenagotxu Euzkadi-zatija ixan zan tokijan.

Aguf, Jel-aldez,

Mibisus

Madrid'etik, 1922-V-4'gn.

Mibisus'eri

Ene adizkide ona: Atsegin-atsegiñez irakufi dot bidaldu daustazun idazkia. Neuk iñoiz euki dodan susmoa sendatuta dakust bertan, baña bidea, beste bat zan.

Ara: *Ĵez* ete-da *zorñon*, *zuřun*? Bertan dago, uřengo trokan, *zuřun-bila*, aldatuta: *tuřun-bila*, ta toki-izen ezaguna *Trunbila-gane*, zuřunbilo -toki-alde benetakoa.

Au ta guzti, be, ez naiz asarřu iñoiz *Zorñotza*'ren itzořkuna emoten, ez nindualako susmu onek asetzen; eta augaitik eskatu neban toki-izenak *Sociedad de Estudios Vascos*'era (1) naiz Jaungoiko-Zale'ra bidaltzeko, idazkian bertan niñoana jadetsi al-izateko asmoz.

Azketsi egistazu, adizkide, zeure idazkia, zeure baimen barik irarřolaratzen dodalako: guztiz egokia deritxat argitaltzea, geure ezta - baidan naikoa argi damolako; ta ganera, bere azken -aldean, itzořkun baria darakusguzulako.

Aguf, Mibisus ene adizkide.

Zorñotza, 1922-V-7'gn.

Amantzi.

(1) Txarřo ipini neban bazkun onen zuzenbidea: ez di ra bidaldu bear Bilbu'ra, Donostia'ra, *Palacio de la Diputac'on*'era baño.

Itaun Erantzunak

Paskoakoa. — Norberea eztan pařokian paskoakoa egiten dabenak, bearřuna betetan ete dau?


Bai, betetan dau, baña egokiago da norberen pařokian egitea. Beste pařoki baten paskoakoa egiten dabenak, bere pařokoari adirazten arduratu bear dau. Au bariz txantela bialduta egin leike. (Can. 859, & 3).

Aldia igaro. — Eta pasko-aldia, bere eruz naiz eru barik, yaunařtu barik igaro yakonak zer egin bear dau?

Aldia igaro ařen, yaunařtzeko bearřuna ezta igaroten; albařt lasteřen bete bear dau. (Can. 859, 4).

Gaizki yaunařtu. — Gaizki yaunařtzen dabenak bearřuna betetan ete dau?

Ez, paskoazkoa Yauna *ondo* arřtuta bakařik betetan da. (861) Beraz txarřo egiten dabenak bariro egin bear.



XI' Urtia. — 195' gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922' ko Bagila'ren—1.

IRUKOITZ - DEUNAREN IGANDIA

Matai-Deunaren Goizparikiko XXVIII atzalburufik, efeskadëa

Aldi atan: Bere ikaslarijari, Josu'k esan eutson:

18.—Agimen gustija, donokijan eta ludijan, emon yat.

19.—Zuaz, ba, ta enda gustijai irakatsi-egixube, eurak ugutzauta Añearen, eta Semiaren, eta Goteunaren ixenian:

20.—Eurai irakatsiñ, neuk agindutako gauza gustijak betetan. Eta ara, zubekin, egunoro, biztoki onen amairañ, nago. Eta abañ.

* * *

Gauza gustijaen Irazaleak antzezki edefa irazan eban; antzezki au gixa-gogua zan: *Geure antzezkira ta irudira, gixona dagigun.*

¿Zertzaz, geure goguaren antza Jaungoikuakin dago? Jaungoikua betikoñ dan legez, geure gogua, be, ezilkoñ da: irazapenan askuna ixan eban, baña amairik ez dau ixango; Jaungoikua bat eta Irukondea da, geure gogua, be, dandasu-nean bat eta iru gogoki dauz.

Órañño, antzezki edef au, año - putzaz

ta diru - zalekeri - autsaz, aragikeri - lupatzaz, oben-orbanakaz itsustu da. Eta ¿zer egin biañ?

Irukonde-Deunari, otoyez gagoz geure antzezkijak osorotu dagixala. Auxe gaurko, geure otoi-gaya da.

Sofkun-obenaz ta baña beste obenakaz gixonak, eskaña galdu eban; baña, be, bere gogokijak, ilundu.

I

Lenengoz, *adimena* osotu edo bariztu biañ da: adimendun - gixona gotzonaen idekua da.

Adimen bidez, jakidi gustijak eta jakintza sakonena azterkau daikez, gixonak. Baña batez-pe Ontasun gorenguenta añu legilantzat. Gixonaren nagositasuna neufibakua da: erijotz - ostez, ba, Jaungoikua, arpegiz-arpegi, ikusi daike...

Baña jau bai - dala zorigaiztua! oben-orbanaz almen au zikindu da. *Homo cum in honore esset...* ¿Zegatik astuakin, bafdinu dau, gixona? ¡Ai! Gogo - onda-

BAI, BAÑA....!

«Asmu ori begiko yat,
ondo dago gustia,
baña... ori ekiteko
ezteritxot aldia.

«Saiñ edera ori ziñez...!
egin beař litzake...
Baña... ondiño apur bat
itxaron beař geunke.

«Gauza danak euren aldiz
ondo urteten dabe,
oingoaz beintzat ez astea
elitzakigu obe?»

«Etsayak esnatu leikez
orain asten ba'gara,
gerorantz ba'leike ez izan
ainbesteko algar».

--Beti gero... beti baña...
beti ezta egoki;
orixe da, ezer ez ein,
ta egiten be ez itxi.

Zuřtasunak eskatzen dau
arduraz ibiltea,
ez baña beste gauza bat
zuřtasunez yanztea.

Gero... baña... ta olako
iztegi ugaria,
gure euskeraz auxe da:
Alpeřkeri garbia.

Baña ta... sařitan aintzat
artzen asten ba'gara,
ezer egiteko beti
izangu aldi txara.

Bai baña... sař askotan
da lanaren etsaya,
ta yaramon eiteafen
euki geinke garbaya

GABIREL.

GURE BATZAŘ NAGUSIA

Edeřenetarikua izango dala aurtengo batzařa oindixek igarřen dogu. Bagenkijan Gernika toki eroso ta egokija dala gure batzařak egiteko; Mungia, Bermeo, Lekeitio, Markiña ta inguruetan bazkide-talde andiak doguz-ta. Augaitik ez dira guretzako arigarřiak leku askotatik, batzař onetarako dagon uzi ta joran bizija adierazoten deuskuela, eldu yakuzan izparak.

Bazkideak urterik-urtera geituten dira-ta, jakiña, batzařak geruago ta edera-goak eta andijagoak izan biar. An ikusiko da Garřa'ren 5'gn. Itzaldija euskal-erřitik ataz aspalditxoan dabilan lekaide belgundari bati agindu yako ta bere arazoak lotuten ezpa-dabe, artuko daua us-te dogu ta batzařa ospetsuago egingo dau.

Bazkide'ren batek gura ba-dau batzařean bere asmoren bat aztertu ta erabagitia il onen 25'garřenerako aurkeztu biar dautso Bazkintza-Artezkarijari; onek barřiz asmo asko aurkeztutia gura leuke.

Ia ba, gustijok asmau zer-edo-zer eta bialdu ona.

ZER EDO ZER

Alpefkeriaz kontu gero!

Goldwater, Newyork'eko osagiñe yakintsu batek diñonez, nagi-alpeñak, ezertarako garik eztaukienak, gasterik ilten dira. Gizon erain eta langiñeak bafiz luzaro biziten ei dira.

Larogei urtera eltzeko bizikera onena, eten barik lan egitea da, lañegi egin barik baña.

Gizon erain ta langiñeak egiten daben utzik kaltegarrena bein adin batera eldu ezkeron lan gustiei batera itxitea izaten da. Erabagi onek gexo aztunak eta safitan eriotzea bere ondoren ekarten dau.

Beraz luzaroan bizi gura dabenak, ekin gogof beañari, eta il arteraño beañari ez tirorik emon...

Euskaltzaleok be, auxe gogoan euki daigun, eta buru txuntxuñean eduf matasa batzuk agertu dirala-ta, ez atzeramorkorik egin, bestela gureak ein yok...! Ekin ba, beañana be bai'dago ta....!

Agure baten egiak.

Agure batek, bein bere inguruan eukazan mutiko mordoari bost gauza oneik esan eutsezan: 1'n. Yai eguneko lanak iñor eztabela aberastu. 2'n. Okeñ-bidez norberagandutako ondasunak iñor eztabela zoriondu. 3'n. Ukañ edo limosnak iñor eztabela txirotu. 4'n. Goiz - aratsean otoi egiteak lanik eztabela atzeratu. 5'n. Seme biuñi ta oitura txañekoa, zorionsu iñoz be eztabela izan.

Edeski bat.

Yeronima deunak, Rufino eritxon bategaz eztabaida bat euki eban. Bere etsayak aldezen ebana guzura zala egiztuteko azaldu eutsozan zioak argi-argiak ziran eta, besteak zer erantzun ezekiala, gaiztoak oi daben lez, agora etofkon gustia yaurtiten asi yakon. Iñon diran irañak esan ondoren auxe esan eutson:

«Yeronima ta asto baten artean bitarte andirik eztago»

Yeronima deunak erantzun eutson: Alantxe da bai, mai onen luzerea bakañik dago bitartean. Edeña sakatu eutson. Mai aren beste ertzean yañita egoana Rufino bera zan ba.

GAMA.

ZER EDO ZER

Alpekeriaz kontu gero!

Goldwater, Newyork'eko osagile yakintsu batek diñonez, nagi-alpeřak, ezertarako garik eztaukienak, gasterik ilten dira. Gizon erain eta langileak bařiz luzaro biziten ei dira.

Larogei urtera eltzeko bizikera onena, eten barik lan egitea da, lařegi egin barik bařa.

Gizon erain ta langileak egiten daben utzik kaltegarrena bein adin batera eldu ezkerro lan gustiei batera itxitea izaten da. Erabagi onek gexo aztunak eta sařitan eriotzea bere ondoren ekarten dau.

Beraz luzaroan bizi gura dabenak, ekin gogof beařari, eta il arteraño beařari ez tirorik emon...

Euskaltzaleok be, auxe gogoan euki daigun, eta buru txuntxuřean eduř matasa batzuk agertu dirala-ta, ez atzeramorkorik egin, bestela gureak ein yok..! Ekin ba, beařizana be bai'dago ta....!

Agure baten egiak.

Agure batek, bein bere inguruan eukazan mutiko mordoari bost gauza oneik esan eutsezan: 1'n. Yai eguneko lanak iñor eztabela aberastu. 2'n. Okeř-bidez norberagandutako ondasunak iñor eztabela zoriondu. 3'n. Ukař edo limosnak iñor eztabela txirotu. 4'n. Goiz - ařatsean otoi egiteak lanik eztabela atzeratu. 5'n. Seme biuři ta oitura txafekoa, zoriontsu iñoz be eztala izan.

Edesři bat.

Yeronima deunak, Rufino eritxon bategaz eztabaida bat euki eban. Bere etsayak aldezten ebana guzuřa zala egiztuteko azaldu eutsozan zioak argi-argiak ziran eta, besteak zer erantzun ezekiala, gaiztoak oi daben lez, agora etořkon gustia yaurtiten asi yakon. Iñon diran iraņak esan ondoren auxe esan eutson:

«Yeronima ta asto baten artean bitarte andirik eztago»

Yeronima deunak erantzun eutson: Alantxe da bai, mai onen luzerea bakařik dago bitartean. Edeřa sakatu eutson. Mai aren beste ertzean yařita egoana Rufino bera zan ba.

GAMA.



XI' Urtia. — 196'gn. zenbakija.

Zornotza'n. — 1922' ko Bagila'ren — 15.

Goteun-Etorkunde Ostez, III Igandea

Luka-Deunaren, Goizparikiko XV atzalburutik, esakun ereskadea

Aldi atan: 1—Beregana, eltzen ziran zergarijak eta obendijak, berari entzuteko.

2—Eta parisetañak eta idazkarijak gaitz-iñuen, esanaz: Obendijak abetal-tzen dauz onek eta eurakin jaten dau.

3—Eta irudikija diñotse, esanaz:

4—Nor zubetatiko gixona da, eun ardi daukazala, ta euretariko bat galtzen ba-dau, larogeta emeretzijak lekaruan laga-ta, ziñez, galdutakuaen bila, idoro arte eztuana?

5—Eta bera idoro dabenian, beren sorbalda ganian, yartzen dau pozik:

6—Eta etxera etoñita, aizkidiai ta auzokidiai deitzen dautso, diñotsola: Zorijona, emodazube, neure ardi galdua, idoro dodalako.

7—Diñotzuket, berolan, donokijan, obendi garbañuagaz, poz geyago egongo dala, larogeta emeretzi doneakin, garbairik biar eztabenakin, baño.

8—Edo amar diru-zidañ daukazan emakumiak, diru zidañ bat galtzen ba-dau, kurtzulua ixiotu ta etxia garbiñu, ta bilatzen, jorain, eztau, idoro arte?

9—Eta idorota, aizkidia eta auzokidialak batzen dauz esanaz: Zorijona emodazube, galdutako diru zidaña idoro dodalako.

10—Bardin diñotzuket, Jaunguaren gotzonaen auñian, poza obendi - garbaitzaz, ixango dala. Eta abañ.

* * *

Zorijona, Kisto'k, Artzain onak, Berarentzako, gura dau, obendi garbaiduentzako, baño: beren poz gustija, obendijoen garbayan dau, ba: eurok mañe dauz. Donokirik ludira, Jaunguaren Semia, ekañi eben, obendijak. Obendijaen artian, geyenez, Kisto dabil. Poz ta atsegiña, obendijaen garbayaz, ixaten dau Kisto'k

Gai au atzaldu biar dot.

Jakifunen artian, ezpaya dago: Adan'ak oben ezpaleu egin, Kisto, ludira etoñiko ete-zan ala ez? Ezetz, Toma Deunak diño. Eretxi au, Nizeno - Batzañ nagosijak autoñtzen dau: *Qui propter nos homines...* Goizparikijak be, berau diño: *Non veni vocare justos, sed peccato-*

GUSTITARIK IRAKURÍ BEAR DALA?

Yatetxe baten, erlejiño gayetan yakitun zan gaste bat egoan. Bein ugazabagaz, aurtemin argitaldutako liburu batetzaz itz egiten ziarduela, gasteari itandu eutson: Idazti edo liburu ori irakurí dozu?

—Ez, erantzun eutson, idazti ori Eleizak debekau dabela yakin dot-eta.

—Ba, txarito eindozu, yardetsi eutson etxeko ugazabak, dana irakurí bear da, ona ala txara dan yakiteko.

Onetan, baseitara gaste bat otzarakada peretxikoa eskintzen uferatu zan.

Yatetxe yabeak erosi eutsozan, peretxiko-zale itsua zalako. Alan da be batzuk ezeutzen begia betetan eta bateri usain egiñaz, gasteari itandu eutson:

—Peretxiko onei zer deritxoezu? Onak ete dira gero?

—Gizona, txastatu, probau egizuz, erantzun eutson gasteak.

—Baña, gero txarak urtengo ba'lebe?

—Eztautso ardura, zeuk diñozunez gustia txastatu bear ba'da.!...

—¡Zoroo!, esan eutson ugazabak asarez, ilteko zorian yartea gura dozu ala?

—Eta zeuk zegaitik gura dozu len aita-tu dozun idazti txara neuk irakurtea, oretarako eskubide ta yakitura daukonak txara dala esanda gero be?

GABIREL.

luřetan alan egoten dira, ta lendik bere egon eukezan *ajen* meřdal eta gizenak. ¿Alan ete da? Bařiz emen *axan aján* eta *ayan* enaz gomutetan iřox entzun dodazanik esan danerako.

Ořen antzeko jazoera bat, Gazteiz'tik Mondragon'era suburđian netofela entzundakoa. Araba'ko leununia amařueran lez, baso bařenian ikusi nebala-ta nago txadon polit bat. Neugaz etozanak geure elian iřarđu eben - ta, esan neutsen: ¿An basterian dagon elextxuari zelan deritxo? *Ařojabe*, Markiřa'řak lako *ja'gaz*, erantzun eusten. Benetan ařo edo bestietatik uřtętxua deritxot, esan neutsen. Arik laster, suburđitik jatsi ziran, ta ango ingurukoak ixan bial' eben. Txadon ořen ixena *Arroyave* idatzita ikusi dot. Araban oiřuten da *Arroyave* abixena bere.

Ořmetxe'řaf K. A.

ZER EDO ZER

Erantzun polifa.

1793 Parantzi'ko itxulaskundean, Kafier gaiztoak Nantes'ko baseřitar bati iřotson:

—Guk zuen eleiza ta tořeak eratsi ta zuzituko doguz.

—Ba'leiteke-erantzun eutson baseřitarak-bařa *izařak dagozan tokian itxiko dauskuzuez*, eta arek irauten dabęn artean, Yaungoikoaren izen deuna, berak aũean ipiři dauskun *idazti ořetan* geure semeai irakurten irakatsiko dautsegu.

Izan be, Yaungoikoa bai'dala ta gurřu beař dogula yakiteko begiak zeru izařatura yasotea naikoa da...

Trumoyaren durundua.

Oztotz edo trumoyaren durundua, ořestuak egiten dabela edonok daki.

Udako egun beroetan bařa ořeztu-argi ugařiak sařitan ikusten dira, eta euren durundurik eztogu entzuten.

¿Ez ete dabe egiten ba? Egin bai bařa euren zaratea gure belarřietarařo ezta eltzen.

Eta trumoyaren durundu ori zelan sortzen ete da?

Itaun oneri erantzuna, W. J. Humphreys ipař-amerikatarak oraintsu emon dautso. Berak diřonez, ořeztua igaroten dan luzera gustian, naiz odeitik odeira izan, naiz odeitik luřera, bapatean bero aundia sořtzen da, ta inguruko aize gustia be, une batean bero-bero egiten dau; eta aizea beroagaz aunditzen dalako, onek ateraten dabęn zaratea inguruko aize gustian zabaltzen da su-izkiřu baten zaratea zabaltzen dan lez.

Bařa tximistea *bapatekoa* izanda, ots-andia *luzaroan* zelan entzuten da? —Tximistea bera be, gustiz luzea izaten dalako. Tximistearen ertz bata ba, gure belarřietatik beste ertz bařa askoz ařiřago aurkitzen da, ta ofexegaitik durundu aundiak bata besten ondoren entzuten dira.

Sařitan tximistek *sei*, *zortzi* kilometro luzeran eukiten dauz, eta olan ots edo durunduak 24 iroir. n edo segundoan irauņgo dau, iroiren bakořtean durundua 340 metro bakařik ibilten da-ta.

Yakitun onek diřonez, trumoyaren durundua 20 edo 25 kilometro bařo ařiřagotik ezta entzuten, eta auxe dala-ta udan tximistea ikusiaren, zaratarik eztozu entzuten.

Bai dira bařa beste yakitun batzuk ařiřagotik be entzuten dala irakasten dabęnak.

Dana dala au be zer edo zer da.

Deun izateko zer beař da?

Benito Yoseba Labre' bidezti txiroa deitzen eutsoen zorundnari itaun au egin eutsen, eta berak erantzun eban.

Deun izateko, biotz baten iru biotz eukitea beařekoa da. Biotz bař suřkoa, Yaungoikoaren maitasunean gustiz gařetan dagona; beste bat aragizkoa, geure geide edo projimuagaz samřtasunez beteata, eta irugařena burdiřazkoa, au da, norberentzat gogařa.

Eřezeta txara eztrudi!

GAMA.



Goteun-Etorkunde Ostez, V Igandea

Matai-Deunaren, Goizparikiko V atzalburutik, ereskadea

Aldi atan: Bere ikaslai, diñotse, Josu'k.

20.—Diñotsubet, zuben donetasuna, idazkarijaen eta pariseta'raena baño, andijagua ezpa-da, donokijan etzariela saftungo.

21.—Entzun dozube, asabai esan yakela: Ez irail: eta irailtzen dauna, epaigarija ixango da.

22.—Baña diñotsubet neuk: bere anayea iraintzen daun edozein, epaigarija ixango da. Bere anayeari, malmutza, diñotsona, batzar-epaigarija ixango da. Eta tentela diñon edozein, *Gehinnom* sutarako epaigarija ixango da.

23.—Ondijan zeure oparija opaltzen ba-dozu, eta bertan gomutaratzen ba-zara, zeure anayeari zer-edo-zer zeure atxin daukala.

24.—Bertan, ondi-aurean zeure oparija laga-egixu; ta lenen, zeure anayakin aizkiditzen zuaz: eta orduban, etorifa, zeure oparija opaldu-egixu. Eta abar.

* * *

Edeskun entzun-gatxa, entzudazube:

Alexandria'ko Erkaba Jon-Deuna zan. Jaungoiko jopu au, bein, jaupa-egifeko eguan, eta bere areyo jauparitzaz gomutetan da.

Eta berakin aizkidetu gura-dau; irañik, beren aldetik, egin ezeutson a'ren eta, bai, irainduba ixan. Orañiño, Jau-naren agintzeagaz gomutaurik; *vade prius reconciliari fratri tuo*.

Ara, gixozte aurean, Ondi'tik aldentzen da, jauparija bilatzen dau, azkespena lo'rtuta, Ondira ostera dua, ta jaupea dagi; esanaz: *azketsi geure zo'ra, geuk, be, geure zo'rdunena dazketsegun lez*. ¡Erkabak eta Gotzaniak au dagi! ¡Beren menbekuakaz! Eriko esamesaen, jaramon-esaz.

Urte-aruan, gauza on asko dagigu; baña gorotua geure bijotzaetan ba-daukagu: alpe'ralpe'rikuak dira. Geure egikun onak egin daiguzan, auto'rkuna egin, ta iku'rtan-Deuna artun; baña auretik eta lenen, *zeure anayakin aizkiditzen zuaz*.

Geure opeak gogobakuak ba-dira, Jaungua eztabe atsegintzen: eskubari,

EUKARISTI BATZARA EROMA'N

Igaro dan Orila'ren 24'tik 28'ra Eukaristi - Batzar orokaña egin zan. Berau da XXVI'na.

XXV'gna. 1914'nean Lourdes'en egin zan. Eder-ederä ziñez; azkenengo egunean 200 gotzain, 5.000 abade ta 200.000 kistañ bildu giñan - eta. ¡Alako notintzarik! Ibildeun edo prozeziñoa *ordu biterdietan azi ta afatsaldeko saspiterdietan* amaitu gendun.

Guda galgariak galerazota, aurten arte ezta egin, baña orain egin dana beste gustien buru yartekoa lakoa izan ei-da.

Asierako batzarëan, Orila'ren 24'an, 200 gotzain bildu ziran eta notintza ikaragaria. 600 abeslarik abestu eben, eta 86 urte lepoan dituan Vannutelli kardenalak, agur-itzaldia egiñaz, XI'gn. Pio'k itzaldi eder ta samur bategaz erantzun eutsen. Urëngo egunetan «Eukaristia ta Gentza» gaitzat artuta, munduko izlaririk bikañenak itz egin eben. *Gau-gurtzaleen* eleizkizunean, Doipuruak berak mesa emon eban, eta bildu ziranai Doipuruak berak Yauna emon eutsen, gotzain batzuk lagun zituala. Alan da be Yaunañtzak *orduterdi* iraun eban. Mesa onetan bakoñak bere izketan Aita Santuaz batera Kredoa esan eban.

Azkenengo egunean, lenengo gizardietan kistañak erailten ebezan Koliseo deritxon tokian 20.000 umek Yaunañtu eben. Elizkizun samurä toki aretan ainbeste umek Yaunañtzea.

Baña gauzarik ikusgariena afatsaldeko ibildeuna. *Amalau* kardenal, *irureun* gotzain eleiz yantziakaz, eta *bosteun mila* lagun baño geyago ibildeuna zala -ta bildu ei ziran. Yoan-etoñian *saspi ki-*

lometro ibili zan gizon talde au ikustekoa izango zan! Ibildeuna Letran'go Yon deunaren eleizara eldu zanean, aureko zelayan 200.000 argi baño geyago biztu ebezan.

¡Alako ikusgariarik seguru be!

Eleizea iruntzi gurarik dabizen otsoak zati bateko lana bai'dauke. Gixajoak eztabe oartzen, euren amoru gustia Yosukistoganako maitasuna geyagotzeko baño ezta!

Eroma'tarak ao batez esaten ei eben ori lako ibildeunik iñoz be eztabela eza-gutu. Eta ori, lenagoko zarak yai eta ibildeun ederak ikusten oituta dagozala, batez be Eroma'ko yabetza Aita Santuari indarez lapurtu auretik.

Eskuetan daukodaz zertzelada batzuk.

Yapon'go ziñopak Deun zirala Eleizak iragari eban egunean, euron artean Martin Deun, euzkotaña, 300 gotzain, 15 kardenal, 4.000 abade ta 100.000 kistañ atzerikoak bildu ziran. 1862'ko Mayetz-paskoetan egin zan yai au.

Kepa deunaren eriotzea gomutatzeke, 1867' gn. Bagila'ren 26'n, IX Pio'k deituta, 500 gotzain baño geyago bildu ei ziran.

Eta Batikano'ko Batzar orokaña egin zanean (1870) 700 gotzain baño geyago bildu ziran.

¡Orduan be eleizkizun ederak egingo ziran ba!

M.'taf G.

¿ZER OBE?

Ur gitxidun érekak
dagie zarata,
ugaridunak bariz
doyaz mara-mara.

Zaratatsu ta
onura gitxi,
érekatxoen
legea;

Ibai zabalak
ondasuntegiz
inguratzen dau
bidea.....

.....

*Yakitunak be
oñua gitxi
ta on ugari
oi dan lez.
Ezyakiñaren
bizia auxe da:
Zarata asko
ta ezer ez.....!*

GABIREL.

ZER EDO ZER

Idaztiak ugari

Parantzeko izpafingi batek diñonez 1920'gn. urtean argifaldu diran idazti edo liburuak onek dira:

Ingelanda'n, 11.026; Amerika'n, 8.329; Belgika'n; 558; Txeko-Slovakia'n; 3.572; Dinamarca'n 3.757; Parantzia'n, 6.315 Alemania'n; 32.325; Olanda'n, 3.974; Italia'n 3.837; Luxemburgo'n, 90; Noruega'n, 949; Portugal'en, 1.710; Rusia'n, 742; España'n, 1.577; Suecia'n, 3.613; Zuiza'n, 1.453;

Eta Eusko-eria'n zenbat? —Ba..... beso bakaf bateko atzamarakaz kontatzeko beste, ta eurak be etxean ondo-ondo *gordeta* eukiteko..! Gustiz ba, 115.847 ta euskerazkoak gañetik.

Askotxo dira ezta? Gauza onak izateko bai neuk uste, gure erian ba gauza ona *urie* dala esaten dabe.....

Bai, gauza ona ugaria ezta, ta beraz idaztiok ain ugariak beste toki batzuetan izanaen, onak ez tirala izango uste izanaz, euskotafok ia, ia, *kontsolau* egin beafko gara. Kontsolatzen ez tana, berak gura ez tabelako izaten ei da ta.....!

Idazti deunak zenbat izki?

Liburu edo idazti santuak zenbat izki (letra) daukiezan yakiteko gogoa norbaiti etofi yakon, eta lan gogaikari ori amaitu ebanean aonexek zertzeladok idatzi ebazan:

Idazti santuak *irurogetamabi* dira ta gustian artean 3.566.480 izki edo letra; 773.746 itz; eta 31.102 atal edo versiculo ei daukiez.

Atzalburuak 1.189

Idazti gustien erdiko atzalburua 100 g. eresia ei da.

«Yaungoiko» izena 46.277 bidef aitatzen dabe. «Yauna» bariz 5.000.

Zenbakiok luzeak dira, baña lan ori beragandu ebanen *pazientzia* laburagoa eztok izan! Yakitun ori Job santuaren aizkide izan zala ezpai barik esan geinke!

Ziñesteko beafkunik euki ez afen, nik gizon langile oferi oso-osoan ziñesten dautsot; eta irakufleen batek ziñestu gura ez paditu, berak zenbatu daizala....!

XI'gafen Pio ta Inglatetako profestanteak.

Inglateta'ko izpafingiak, XI'gafen Pio Doipuru egin dutela-ta, asko idatzi dute, ta idatzi dutena bera aipatzeko izan da. Ona emen protestante izpafingiak esaten dutena.

Church Times'ek Doipuruaren yakintasuna, izkuntz-yakintasuna eta bere zurtasuna aipatzen difu. *Guardian* izpafingiak, Manchester'en izan dan Doipuru bat, englanderaz itzegiten duana Mont-Blanc mendi tontofera igo duana topatzea, gertaera befia dala dio.

Jewish Guardian'ek befiz, XI'gafen Pio'k emaitz asko ta gurenak dituela esaten du: yakintsua dala, idazti zalea, gizaketa yakintzetan trebea ta buru'sua, ta benetako orokara (katolikoa) dala. Gañera, berak, ate aldeko leyoetik, Roma ta lur guzia onetsi zuanean, doipurutza bikain ta aundiari asiera eman ziola. «Guk judafak, dio izpafingi onek, eta Doipuruak duan siñismena dutenak, guziok, beragan aizkide on bat degu. Berak, bada, gentza (pakea) ta Jainkoa'ren irazaki (kreature) guzien ona nai du-ta.

Kanada'ko neufiztasuna (tenplantza)

Oraindik antxiña ez dala neufiztasunaren bazkunak, batzaf bat izan du, edariak afitzea eragozten duten legeak betetzen diran ala ez ikusteko.

Aldi onetan Kanada'ko erki (probintzi) geyenetan eJariak saltzea debekatuta dago.

Garagardoa eta ardoa, gobernuak oftarako ipiñita dauden batzuk baño ez dituzte saltzen, eta orduan pitinka. Eta ori bakafik ez dute egin nai, beren asmoz ugo'fikidun edariak ez saltzea, ta onetako edaritegi guziak kentzea, eta garagardoan eta ardoan dagon ugo'kia (alkola) ere gutxitzea nai dute-ta.

Emen gure erian ere ez litzake ofelako legeren bat gaizki etofiko. Aunela ikusten dan aña ero ta gaiztakeri ez litzake ikusi. Aita edalea ta ama pafaf zalea ba'dira, umeak zer izango dira ba?

ELEIZ-ORIA

Zabaldu egizu zeure eleiz-ta fen afitian.

Illean 100 iyeki, lauerleko 2. JAUNGOIKO -ZALE-banakarijari eskatu.



XI' Urtia. — 198'gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922'ko Gari'a'ren—15.

Goteun-Etorkunde Ostez, VII Igandia

Matai-Deunaren Goizparikiko VII atzalburutik, eřeskadea

Aldi atan: Bere ikaslai diñotso Josu'k.

15.—Iragafłari guzuřtjetatik, ardi janzkijakin zubekana datořtzanetatik, eta bafutik otso lapuřak diranetatik, alde-egixube.

16.—Euroen igalietatik dazakezubez. ĞBiařba, elofijetatik matza, ta sasi-lařetatik ikua dařtzube?

17.—Berolan zugatz onak igali onak dagiz; baņa zugatz txarřak igali txarřak dagiz.

18.—Zugatz onak, ezin-dagi igali txarřik; zugatz txarřak ezin-daike igali onik egin.

19.—Igali ona egiten eztaun edozein zugatz, ebagija ixango da, ta sutara jauřtubuda.

20.—Beraz, euroen igalijetatik, euraek dazakezubez.

21.—Jauna, Jauna diñostan nor-gura, donokijan ezta-sařtungo; neure Ařaren, donokijan dagonan, guramena dagijana baño: donokijan sařtungo da berauxe. Eta abar.

* * *

On asko, ludijañ, jarijon dabez egizko iragařlarijak; baņa kalte asko, ostez, iragařlari guzuřtijak. Biztoki onen askunatik, Ğnork, euroen gaiztakerijak zenbatu? ĞNork geure lenengo ařa ta ama obenera erazo-dauz? ĞNork iñuan: *etzarie ilgo?* Eta Ğzer jazo zan? Jaunguaren eskařa ta baratza galdu eben. Aka-bakalduna Ğnortzuk ogendu-eben? Iragafłari guzuřtijak; garaitzearen ordez, gudakea galdu-eban. Sissare, be, iragařlari-guzuřtijak ogendu-eben.....

Ez uste-ixan iragařlari-guzurtijak amařu dirala. ĞBai-dagoz oraindiño! Ğ*Attendite*, ba!

Iragafłari guzuřti aunek Ğnortzuk dira? Alapide'tař Korneli'k, zingiak dirala, Eperen-Deunak, lagun gaiztuak dirala diño. Orařiño, gixadi deungia, aragi-zifala ta gokaiztua dirala iragarlari guzuřtijak, diño buru-argidun gixonak.

Ene irakuřle matiak: Ğ*Attendite!* Iru iragařlari guzuřti aunen bidebakerijak ezau-

GALBURUAK (1)

*Seme txikiena
laguntzat ebala
yoan zan lugin bat
gari solora,
yakiteko asmoz
bere sail ederak
eldu ete ziran
igitarora.*

*Dirudienez ba,
lerden dagozanok
askozaz obeak
izango dira,
ainbesteraño ba
etziran yausiko
besteok ederak
izan balira.*

*—Ene aita zelan
-mutikoak diño-
gdri batzuk dagoz
lerden, sutunik;
beste asko bariz
luñean etxunda
lotsa ba'lira lez,
dagoz apalik?*

*—Ara ene seme
etxunda yagon au,
alorta ederez
beterik yagok,
lerden yagon ori,
año egon añen
aletxo bat barik
lasto utsa dok.*

*Eure gogoan ba
yosi eik betiko
esango yoadan
egi garbia:
«Ezyakiña añoa
izaten dan legez,
apal-apala dok
yakitura...»*

GABIREL.

Bakio'ren itxořkuna.

Atsegiñez irakuri det Albizuri'tar Serapin Jau-nak Bizkaiko basauri oferi irizten dion itxoř-kuna. Baliteke ba Bakio izenak «ibar txikia» adiraztea, gure Uri onetan dagon Murgia izenak «muru txikia» esan nai duen bezela.

Ala ere Bakio izenari nik beste itxořkun polit bat idoroten diot. Lubakia itzak «luř ebakia» esan nai duan lez, Bakio izenak, nere iritziz, «to-ki ebakia» esan nai du. Ernani'n badago basetxe bat Bakeo ixenduna eta etxe oi malkar txiki bik egiten duten eřeten txiki batean dago. ¿Polita al da itxořkuna?

Astigaraga.

Txadon Zaya.

ZER EDO ZER

Eleiza'ren etsayak be....!

Eguneró dakusgun gauza da, Eleiza'ren etsa-yak eurak be, Aita Santuari egunerik - egunera begirune ta itzal andiagoz begirutzen dautsoela.

Ondiño iře bi eztirala, XIII'gn. Lon'ek langile ta ugazaben arteko auzietaz, idatzi eban idazki edereřen XXXI'gn. urteuřena ospatu eben. Eta «Rerum Novarum» argitaltzea ospatzeko egin zan batzařera, Italitar agintariak ordeazkoa bialdu eben Aita Santuaren goralbenez itzaldi bat egiteko. Eta izlariak berak oafu ebanaz, bera zan agintarien izenean, *lenengo* Lon XIII'n ospetsua goraltzen ebana.

Tira, ba, belutxo bařa, noz edo noz begiak idigi dituez!

XV'gn. Benedicto socialista baten eretxiz.

Turati, italitar alduna eta socialiste alderdi baten buru danak, CRITICA SOCIALE deritxon al-dizkingian, XV'gn. Benedicto'ren goralben andiak egin ditu. «XV'gn. Benedicto-diño-gizadi gustian itzalez inguratuta, Doipuru guren bat lez il da. Agintariak eta alderdiak bere inguruan makurřu dira, garaitzalearen aũean garaituak makurřten diran lez. Eta azkenengo gudan bera izan da garailari».

Eta berak egindako lan ederař goraldtu ondo-ren amaitzen dau: «Gauzak bere tokian iraute-ko, irakatsi sendo, sustarřsu ta betikořak beař

dira. Eta irakatsi ořein yagola Yaungoikoa'ren aginduz Eleizea da. Bera da agintzaren iturřa; Lateřiak ba beragaz aitu beař dabe. Eta ezagu-tzen eztaben lateřiak beren burua algetasun-pean ipinten dabe».

Eleiz-etsayak au diñoenean zer edo zer izan-go da!

XI'gn. Pio Eukaristi Batzař ondorean.

Oraintsu Roman egin dan Eukaristi-Batzařa, gařantzitsu eta Doipurutza'ren altasuna ager-tzeko ta sendotzeko aukerakoa izan dala, Elei-zaren etsayak eurak autortu dabe.

Le Temps izpařingi yudařak, yudař ospetsu batek Doipuru (Aita Santuaren) goralbenez esan dituan gauza edereřen artean auxe dakař: Was-hington, S. Remo, Cannes, Spa, ta Genoba'n gizadia baketzeko egin diran batzařak Eřoma'koa ikusita gogora datofkozala, bařa arek Eukaristi Batzař ondoan eztabela zer ikusirik. «Beste batzařetan areatzen iragiten ekin dau-tse; emen (Eřoma'ko batzařean) lengo gizaldi-etan eustazpiak ezařitako lana ta gaľuřa etořiko diran gizaldietan ařtuko dabena somatzen da.

Katolikotar Uskuřtzak (erlejiřoak) bere al-men gustia beragandu dau; gaur egunean mun-duan egizko yaube bakařa bera da; ta beste ale-gin batzuk alpeřekoak izan dirala ikusirik; ta boltxebitařen ondatzte aũean, zerbait sendo, bizi ta iraunkořa eskintzen daskuna bera ba-kařik da. Eleiza gaur egunean iřnoz bařo indař-tsuago da».

Yudař onek diñoana Yaungoikoa'ri eskefař egiz utsa da izan be!

ELEIZ-ORĪA

Zabaldtu egizu zeure eleiz-tařen ařtian.

Iřean 100 iyeki, lauerleko 2. JAUNGOIKO-ZALE-banakarijari eskatu.



XI Urtia. —199'gñ. zenbakija.

Zornotza'n.—1922' ko Dagoniã 'ren—1.

Goteun-Etorkunde Ostez, X Igandia

Luka-Deunaren Goizparikiko XVIII atzalburutik, ereskaidea

Aldi atan: 9. — Eta batzubei, euroen burubaetan doniak legez uste-edixanai, ta bestiak ezesten ebezanai, ipuin au diñotse Josuk.

10.—Txadonara, otoi-egijentzat, gixon bi igon-ziran: bata parisetafa, ta bestia zerga-biltzalia.

11.—Parisetara zutik eguan, eta bere gogo-baruban aulan otoi-egijan: Jaungua, eskañak - dagitzudaz, beste gixon lapur, zuzengabe, senartorde-idekua enazalako: zerga-biltzale au dan legez.

12.—Aste - betian biritan barau - dagit: neure otasun gustijaen amañenak damot.

13.—Ostez, urun eguala, zerga-biltzaliak bere begijak gorantz ezebazan jaso gura, beren bulafa jo baño, esañaz: Jaungua, obendi oneri efuki-zadi.

14.—Diñotsubet donetuta au, ta ez a, beraren etxera jatsi-ixan da: goraltzen dan edonor betu-ixango-dalako: eta apaltzen dana, goralduba ixango-dalako. Eta abar.

* * *

Ene irakuleak: ¿zer deritxatzube; zubezana ba-dator txirua ukara-eske, ta au bere soñean janzki edefakaz jantziã, ta

beren esku - atzamañetan erestun edefakaz? Ukarik ez dau-biañ gixon onek, diñozube. Txiruak, ba, ostez, euroen biañtasuna darakuskube, geure bijotzak efukiz samurtzeko. Gabaonitafak, Josue'gana elduki, eskañ-eske, efuki-irudikijakin erdu ziran.

Afokerija ta andustia gofotogarijak dira: ta, ostez, efukigafija da apaltasuna. Au olan dala, argiro darakusku gauko goizparikiko afo-putz betetako parixtañak.

Parisetar onen lelokerija, Bernarta-Deunak edefkiro dikuñ: *Stipem mendicans, manus divitiis et auro plenas ostentat; ¿quid mirum si vacuus remanet?* Efuki-itufira ertzen da, ta efukija biañ eztaula darakus; Jaungoikuari otoi-egin-gura-dau ta bere buruba goraltzen dau. ¡Parisetar gaxua! Astian biritan barau dagixula; amañenak be emoten dozuzala ta ukarã be, emon dagixuzala; orañiño gustija uskerija da. Kia legez, zeure egipen onak suziñu dira... Zerga-biltzalia, bañiz, apal-apal dagolako, efukija loñtzen dau...

Biañ-biañezkua da otoyã: baña onuratsuba ixateko, apaldasunakin lagundu-biañ dogu. Garbaya, be, biañezkua da:

Terese Deunari

«Egizko bizitza, a, goiko bi-
zitzà da». (Terese Deuna).

Terese Deuna goragaña,
idazle argi, gurena,
gogo bizitzan ilunpe dana
argiz betetzen dozuna,
eguzkia lez argi dagizu
Doibatza'ren goi-ortzean,
ta maitasuna zabaltzen dozu
kista' oron biotzean.

Zure adimen goi-argitsua
arigaña da ¡ziñez!
biotza baita oldarka dozu
Jaunmaitasunezko gañez.
Alan iluna garaitu zendun
epelkeria bazteñtu;
lañaz beteko eleiz-baratzak
lorategi on biuñtu.

Ludi ontatik nañaska doyan
bideztiari bidea
eraztuteko damotsozula
idazti bidez argia;
era berean agertzen dozu
biotz bañengo gañ-sua
irantziagaz ikasle oroi
Yainko maitasun sutsua.

Donoki bidez zure oñatzai
yañaituteko eskaña,
loñtu eiguzu, baita deun oñek
Jaun-maitasunezko gaña
oso osoan geure biotzau.
izan daiten Josu'rena
zeurea beti izan zar i legez,
Josu'n Terese gureña.

¡Aintza ba zeñuri, deun bikañ ori!
lagun gure Iroñkasle!
izan gaitzoñ zeure antzera
egizko Jañngoiko-Zale.

GABIREL.

Avila'n VII-18-922'n,



ZER EDO ZER

Ortiziti-yakitunak Alfa Santuaren ofetan.

Lateri gustietatik bilduta Oriña 2'tik 10'ra, Ortiziti ta ludiziti-yakitunak (1) Efoma'n batzar egin dabe.

Beñeun inguru bildu ziran. Lenengo batzaldian maipuruko italitar bakalduna ta Maffi kardenala izan ziran, au astronomian yakitunetarikoa dalako.

Beste gai askoren artean ofetarako izentauta egoan batzorde batek, urtearen zenbakuntzea barizitzeko darabiñen asmoa aztertu eban.

Gergoritar egutegiaren aldez erabagia aftu eban, auxe da orain darabilguna; baña zerbait aldatuta.

Egitekotan auxe aldakuntzau egingo dabe:

Edo urteko egunak 13 iñetan saftu; iñe bakotxa 28 eguneko eginda, edo lau iruiñebetokotan banandu, iñe bi 30 egunekoak eta bat 31'koa ipiñita; baña aldakuntzau egin ezker, urtean egun bat aste baruan saftzen ezdana izango da, eta 366'koa danean *egun bi*; iñe bakotxeko egunak beti aste baruko egun bardiñean yausi daitezana. Asmoak onexek dira, baña ondiño erabagi barik gelditu ziran. Ofaitik batzar onetakoak gauza edef bat egin eben. Azkenengo egunean Doipurua ikeñtzera 130 yoa ziran, eta Aita Santuak itzaldi edef bat egiñaz pozez bete ebazan.

Ziñez begiko yaku, 130 yakitun ludiko baster gustietatik bilduta, Yosukisto'ren ordezkoren aurfan makuñtuta ikustea.

Ziñeste ta Yakidia ezin alkañtu leikezala diñoen kaiku gixajoak, baidauke emen zer ikasi!

O'Connell kardenala ta Aribako Ufutzikiña (teléfono).

Oraintsu Efoma'tik biuñtzean itxasoan etofela Boston'eko ikastetxe Katolikotafean dauken

aribako ufutzikin bidez agur-gezna aftu dau. Boston'go ikastetxean dauken ufutzikiña oso edef eta indañtsua da, ta O'Connell kardenalak ikastetxeari bezuzaz emandakoa.

Loru edo aribako ufutzikiña, eleiz itzaldietarako Ipañ-Amerika'n zabalduaz doya. Bariku Gurenez, Txikago'ko Viator deunaren Ikastetxeko buru Kirby abak, Yosukisto'n Nekaldiatzaz egin eban itzaldia, entzun ebenak 150.000 lagun inguru izan ei ziran. Entzuleak ogetaka efkitan bananduta dagozanak izan ziran, eta aribako ufutzikin bidez entzun eben itzaldia ordu laurengoa izan zan.

Zorginkeria dirudi baña, tramankuluak euki ezker gauzarik eñezena da. Ia geuk be kistar ikastia euzkeraz zabaltzeko onangoxe bat zuzentzen dogun..!

GAMA.

(1) Astronomia ta Geofisica.

ELEIZ-ORIA

 Zabaldu egizu zeure eleiztafen añtian.

Iñean 100 iyeki, lauerleko 2. JAUNGOIKO-ZALE-banakarijari eskatu.

EUSKEL GAYAK

Irukliz'ren Itxorkunea.

Ona emen toki-ixena Kortezubi'n dagoana.

¿Zein ete-da bere itxorkunea?

Itxorkun au, eñeza ezta.

Lenengoz, izkeraren aldetik, adiralduko dogu; ta gero, ikuñpen aldetik.

IZKERAREN ALDETIK

Irukliz-ixenak atal bi daukaz: Iru-(k)-liz.

Iru au, eñer ete-da?

Iru au, izkeraren aldetik, buru'tik datoñela, diñogu geuk. U gediña ba, i-tan erabijatzan da. Aipidiak: *ume=ime; urun=urin; ule=iñe* ta abaf.

K izkija, izki aboskija da. Aipidiak *Irakaskola'* ren, *k* izkija, izki-aboskija. *Lugafe'* ren (luñ (g)



Goteun-Etorkunde Ostez, XII Igandia

Luka-Deunaren Goizparikiko, X atzalburutik, esakun ereskaidea

Aldi atan: Bere ikaslai, diñotso, Josu'k:
23.—Zubek dakutsuna ikusten -dabek, begi zorijondunak.

24.—Diñotsubet, ba, zubek dakutsuna, gura-ixan-ebela ikusi iragañlari ta bakal-dun askok, ta ezeben ikusi; dantzuzubena entzun, eta ezeben entzun.

25.—Eta ara, ziltzaetan jagi zan latarija, diñotsola: Irakaslaoi, ¿zer dagidala bixitz-betikofa neukake?

26.—Eta diñotso berak: Lagijan ¿zer idatziña dago? ¿zelan irakuñten dauzu?

27.—Erantzuki diño berak: Jauna, zure Jaun-Goikua, bijotz gustiz, ta zeure gogo gustiz, ta zeure indař gustiz, ta zeure adimen gustiz mate-egixu: eta zeure geidia, zeure buruba legez.

28.—Diñotso: ondo erantzun dozu; orixe egixu ta bixiko zara.

29.—Baña, bere buruba agarbiñu gurarik, berak esan eban: ¿Eta zein da neure geidia?

30.—Eta itxa artunda diño Josu'k: Hirosolym'etik Jeriko'ra jazten zan gixona ta lapufak aurkifu euzan, eta baña bera

uldu eben areik: eta zauriñu ezker, il-agiñian, iges-ziran.

31.—Eta jazo zan, bertatik, bidez jazten zala jauparija: eta ikusi ebanian, igaro zan.

32.—Berolan, jaupaltseña be, leku aren onduan eguala ta ikusiña, juan zan.

33.—Baña, bidez joyan samariñara, beren ondora etofan: eta bera ikusiki, efukiz efukiñu zan.

34.—Eta uferatuta, beren zaurijak lotaluztu eutsozan, gaimela ta ardaia jarijonda: eta bere asto-ganan jariña, abegtxera darua, ta bere ardurapian dauka.

35.—Eta ufengo egunan txindi bi atarau euzan eta abegetxe-nausijari damotso, diñotsola: onen arduria beuka: eta ganez igoñtu dauzuna, damongotsut natoñanian.

36.—¿Zein, iruretatik, uste-dauzu, geidia, arentzako, lapuñen artian jausi zanentzako, dadiña.

37.—Diño berak: efukija arekin egin ebana. Eta diñotso Josu'k: Zua, ta bardin egixu. Eta abař.

¿NOR DA?

Zuri, eder zoragañi, 8
eguzkia legez argi,
edertasun bikañena,
maitasunik samuñena,
onoimenez bardingabe,
goi-eskar oron emalē;
gotzonez inguraturik
gizonok pozez beterik
donokian dakusguna
zabaltzen goi-poztasuna;
Nor dan, nor bardingabea,
eskarēz bete beteā?

Yeriko'tar lora eder
Arantzarteko lilia:
Zuritasunez gurena;
Gure poz; gure argia;
Miren gure Ama kutun
Jaun beraren yauregia;
Yaungoikoaren Ama da
Sortzetik gustiz garbia.....

Dagoniā 15'n.

GABIREL.

Mastegiñ batek il zorian egoala bere semeai esan eutsen:

Ene seme maiteak: Neure etxetxo au ta inguratzen dabena mastegia bakañik yarauntzi edo erentzizat itxiten dautzuet; baña mastegian ondasun andiak aurkituko dozuez. Luña ondo astindu egizue ta ondasuntegi ori idoroko dozue.

Aita il zanean bere semeak su ta gañ luña aztertzen asi ziran, baña uñe ta zidañaren azteñenik ez eben idoro.

Udagoyena eldu zanean baña, ainsbeste nekez landu eben mastegiak askozaz mats mordo geyago emon ebazan, eta beste urteetan lako bi irabazi eben.

Orduan igañi eben aita aitatutako mastegiko ondasuntegiak zer esan gura eban eta mastegiko ateburuan itz neurtu oneik ipiñi ebezan:

Luñik latziñen bañu be
uñezko mia dago,
baña lanez izan ezik
ezin leike idoro.

(1) Schmid'en ipuñia.

nonigo) Aedo'tar Laurentzi, Kařantzako semeari 6.000 laurlekotan; baita zidařezko oteunontzi (kopoia) ta oteunerakuskiña (kustodia) 18.000 laurlekoren orděz, ostera emotekotan; baña bai zera, ondorenguak artez biurtu biařean, zoritxařez tati egin eben.

Miren «Zori oneko» basatxaunogan, len ikũsten ziran trapalak edo besape maki-lak, adatzak, guzur - beso ta oñak, itxas ontziñuak eta abar... ormetatik dingilizka; baña ořeik be zoritxařez, kalterik egiñ ezafen, alatzak zenbatu baño, orain dala urte gitxi, txauño bafizkundian, bastertu ebezan ta kiřu.

Dana dala ondiño Irailako 18 gn. Kařantzatik, Ituriostik, Balmatzetatik eta Galdametzetik oste aundija batzen da Miren «Zori oneko» Amaren basatxaunogan.

Ayengiz'tar Iñaki Aba.
Basurtoko Txotiñoduna.

ZER EDO ZER

Batlikano'ko Eleizea.

Katolikotařak daukogan Eleizarik andiena Eřoma'ko Batlikano Eleizea da. Konstantino'k egindako antxiñako Eleiza zařa yausten asi zanean Nikolao V'gnak baři au egiteko erabagia arřu eban. 1450'n asi ta 1620'n VIII'n.

Urbano'ren aldian amaitu eban; Zabal-luzeran neurři onexek daukoz: 187 metro luze ta 135 zabaleran. Londres'eko Paul deunarena baño 29 metro luzeago da: Florenzia'ko Gotzain-eleiza baño 39; Milan'goa baño 52; eta Konstantinopoli'ko Sofia deunaren eleiza baño 78 luzeago.

Kosko edo kupularik andienak 40 metro ta zerbait geyago zabaleran; eta betik gora 138 neurkin edo metro daukoz. Eleizeari eusten dau-tsoen agaři edo kolunak gutziz 748 dira; eta bařuan dagozan irudiak 390; oneitatik 40 metalezkoak eta 100 atxurdiñezkoak dira.

Bařuan 60.000 lagun baño geyago arřzen ditu:

Idazti deuna zenbat izkuntzafan?

New York'en argitaldutako zenbatza batek diñonez, Idazti Deuna edo Biblia Europa'ko ez-tiran 412 elez argitalduta dago. 1880'n 238 izkuntzatarala aldatuta egoan, beraz ordutik ona zerbait lan eginda. Baña alan da be, ondiño eundaka abendak dira Idazti Deuna euren elez ez-taukienak, geyenez euren izkuntza ondo ezau-tzea lortu eztalako.

Indian esaterako 150'tik 92'ra biurtu dabe; baña enparauetara biurtzeko aurkitzen dituezan eragozpenak garaitzea ondiño eztabe lortu.

Ipar Amerika'n osterala ia abenda gustiak euren elez dauke Idazti Deuna.

Euskaldunok, onetan indotařen antzeko ez izateafen be, euskeraz ondo egindako bat pozik arřuko geunke....!

Izparřo bi.

Patzezkatař aldizkingi baten irakuri dogunez, Brasil'go Guarkezala lateřian, Biko-torto deritxon ibai ertzean bidezti batzuk *lau metro luze ta ogei ontza zabal* daukozan sayets *atal* bat aurkitu dabe. Ořaitiok sayets ofen yaube izan zan *aberetxoa* etzan makala izangol!....

Hernando Nuñez Ribeiro lugin aberats ospetsuak, Lukas deritxon eřian, *bost kilo ta lauren* daukon lusagař edo patata bat arřu ei dau. Ezta txikia gero, baña guzufeřkoa ba'litz be askozaz *patata* txikiagoa elitzake izango.....

Aldi bafiak era bafia.

Pittsburg'eko katoliko biri kistař ikastia protestante ta ziñesge artean zabaltzeko era baři bat otu yake: Ezpayak alde batera itxi ta katolikotařok ziñesten doguzan egiak argi ta garbi, diran lez, iragarki edo anunziotzat etsayen izparřingietan argitaltzea. Eta asmo ori lengo urtearen azkenerantz era onetan agertu eben bertako izparřingietan:

«Aita'ren eta Semearen eta Goteunaren ize-nean; Amen» «Yaungoikoaren goralben eta aintza geyagorako; geure abendakideai yakin erazoteko; ezertako ezpaři eta asafe asmo barik; eta gustiei dautsegun maitas mařen bakari; izparřingi onetan Eleiz Katolikotařaren irakatsiak argitalduko doguz».

Eta iragarki oneitzaz eurak bakari erantzuten ebela azaldu ondoren, lengo Urřila'ko 23'n iragarki au ipiñi eben.

«KATOLIKOTAR DOIBATZAK 1.900 URTE DAUKOZ».

«Katolikotaf Doibatzak irakasten dau Kisto' ren egizko Eleizea Beldukaf edo apostolutara izan beaf dabela, belduak eustazpitzat daukazana, Yosu-Kistoko aututako amabiak gizadia gaizkatzeko arazoan bere ondorengo izango ziranak». Eta au egiztuteko ingalanderaz ipinten ebezan Paul deunak Epesotafai idatzitako itz batzuk.

Eta onen antzera beste iragaŕki batzuk.

Zer deritoxozu? Asmo polita ezta? Eta batez be amerikaf usainduna. Begirakada baten *ba-
na*'ren bat ipiŕi leikiola badirudi; alan da be angogosiak txalotu dabela ikusteak, bide ori onuratsutzat etsi dabela adirazten dau.

GAMA.

AMAENTZAT

Gixabatza, gustija gero, gaizki zan. Josu-kisto'k berau arteztuteko, donokitik jatsi ta osakija ekaŕi eutsan. Gexo zan gixabatzari osaki au ezafteko ume batzuk, emakume batzuk eta gixon gixaxo batzuk autu ta bere ondora urbildu euzan, eta euren bidez gixabatza osatu eban.

¡Amak! ludiko txikijak zebeŕ es-
kubetan dozubez; txikijak dirala-ta ez egikezubez iŕnoz ezetsi; txikijago ta kutunago ixan egixubez; Kisto'k lez, tziki-txikijak gaufko gixabatza be osatzeko autu egixubez; bulaŕeko dirala asi ta aŕezkero, txiki diranian batez-be, Kisto'z asebeŕte egikezubez, ba gastien eskubetan dago ludiko etorkixuna. Gastien jabe ixa-
tera eltzen ba-gara, ludi gustiko jabe be lasteŕ gara.

INDIJUAN JARRAIBIDIA

«Guanapalo'ko Indijo bati edena edo benenua emon eutson bere lagun batek bekatxez (inbidijaz). Ilteko zori aretan ba Gure Jauna ekaŕi eutsoen, eta bere auŕian diŕio: «Jauna'gazko lanak berak ordainduko daustaz indijuak baŕio obeto: itxaropen aonegaz bijotzetik parkatzen dautsot edena emon daustanari, bada aolantxe laketu dau Jainkuak. Bai dakit nor dan, eta egundo gatxik ez dautsodala egin; jakin eragin nai neuskijo menmenetik parkatzen dautsodala, eta nire gurari bakaŕa dala, bera bere dongakerijaz damututia». Bere min eta erijotziagazko misiŕnerua atsakabez ikustian diŕio gexuak: ¿Zegaitik, Aita, naigabetzen zara? ¿nire egipide (obligaziŕio) bakaŕa parkatzia ez al da? Zeu gozatziaren ara. Deiturik semiei bere auŕera diŕiotse: «Neure ta Jainkua'n dongespena edo maldeziŕnua ganera etoŕi eztakizuben, iŕnoz jakiten badozube nok edena emon daustan, eztagijozuela egundo gatxik egin, al izango dozuben on gustija baŕio. Auxe agindubau emoten dautzubet Jauna'k on egin daizuben eta neu betiko zoriontzan sartu nagijan».

Eta gu, iŕnok zozertxu dongaro egiten ba-dausku, gabiz nundik ordia emongo, nundik txarto egingo. ¿Azkenengo egunian ez ete gaitu lotsatuko Jainko auŕian indijon batek?

«Egutegi - ingufija» etikua.

Z. D.

DEUN IÑAKI'RI

Bizkaita'ren biotzak iñoz pozezko solitiñik egin ba'dai, benetan dagi egun oneitan, berari lez eusko odol garbiak bere biotzean irakin eutsana deuntasu-naren gorengo mañaraño igon zala, 300 urte deuntzat iragara ebela aurtan be-tetan dirala ta Eroma'tik Loyola'ra ointsu ekañiriko gorputzkiña bere artera dakañela ta gorputzkin ori Bizkaia'ren zaindari deun Iñaki'rena dala gomu-taurik.

Eta gorputzkin ori, guztiok guñ-dagioeguntzat, Bizkai-Aldundijak eska-tuta, eñirik-eñi darabilela ta gotzain jaunak gorputzkiñagaz onesten gaituala ikusten dabenian; belaunbiko jañita guñ-egiñaz gogoz opalduko dautso daukan gustia bere bidez Jaunari; ta bide batez bere zaindariaren siñismenak senda-ro, iñoz be moteldu barik, euskotaf guztien artean iraun dagiala eskatuko dau. Egund ofeitarako eñita'ren artean dagoan garak baiezten dau diñogun au.

«Jaungoiko - Zale» kuok bañiz ezin dogu eskutau deun Iñaki'ri dautso-gun onerazpena, besteak baño. be zegaiti geiago daukagu ondiño beragaz poztuteko-ta. Bere biotza biztuten eban garak garabiltz ba geu be.

AD MAIOREM DEI GLORIAM; JAUNGOIKOAREN AINTZA GEIAGORAKO zan bere ikuñ-itza, eta ofeñek bultzauta irasi eban bere Lagundi ospatua siñismendunak sendotu ta siñisgeak Jaungoikoaren ezaupidera ekañteko.

«Jaungoiko - Zale - Bazkuna» be ofeñtarakoxe softu zan, eta bardiñak dira beronen asmuak be: JAUNGOIKOAREN AINTZA GEIAGORAKO lan egitea da bere elburua; ofeñtarako euskeldunen artean euskerazko idazti, aldizkingi ta abar ugari zabalduaz, eñietan aldratxoak eralduta guztie kristiñau - ikasbidea ego-kiro azalduaz... ba'daki ba aonelan egin ezkeru, oiturak obetu ta Jaungoi-koaren aintza geituko dala, erlejiñoko egiak ondo jakin eta uleñtzea dalako Jaungoikoaganako mañtasuna geituteko oñañirik onena.

Augaitik ba deun Iñaki'ren gorputzkiñak garaikiro Bizkai-eñiok ikeñ-tzen dituan egunetan, gure biotzetako poza agertu barik ezin dogu itxi; eta bere aurtan auzpaz jañirik guñ - egiñaz geure bidean biziroago lanean jañai-tzeko adorea Jaunagandik jañitxi ta geiturik gure bial guztiak be onetsi da-giala eskatzen dautsagu euskaldun deun andiari.

ELKANO

Itxasgizon entzute andiko au jayo zan Gipuzkoa'ko Getaria deritxon urian.

Eri ta érbeste entzutea emon eutzan jazeriaren apur bat adierazotera noia.

«Sevila'ko S. Ildefonso» eritxon txadonan, negu bateko gaurik geyenetan, jantzi ufdindun gixon bat ikusten eben belauniko geure Ama zerukoaren aurian, eskari (otoi) gartzuak egiten. Ordu aretan txadon aietura joaten zirenak, ikusirik gizon begirakuna baketzu, arpegi jatofi oneko antza eukana ta bere egoera ain egokia, oso adi (aíetaz) berari begira egoten ziran.

Alako baten aldendu(ayenatu)zan. Gero, bata bestiaritandu afen, nora joan zan edo zer egin zan gizon aregaz, inok bere ezeban erantzuten, zer jazo zan. Gizona eskutuki (misterio) bat zan.

Andik luzaroetara, lenagoko txadonan, leku ta ordu bardinian, arako ezezaguna, gizon andiak lez apal, bafirik agertu zan, eta ikusi eben buruz bera, argi ixotu bat eskuan eta geure Ama Miren'i goratasunak abestuten, eta Miren'en aurian egoan aulkian lora, maskof (conchas) eta abaf is-ten.

Ori egin ebana zan, Sebastian Elkano entzutetzua (sonatua), «Victoria» untzian lufaren inguru gustian ibilita eldutakoa. Lenengoz inguru ain arisku andiko ori ondo egiteko biar eban laguntasuna emoten beutzan, Miren'i eskiñi eutsazan lora ta beste gauza, lufalde gustietan batutakoak, emoten egoan, betetan ebala joan orduko agindutakoa.

An egozanak, ezagaturik, arako len nor zan jakin ezin ixan ebana zala, Miren'en laguntasunaz, ordurafte inok egin ezebana beteta, bezafkatu ta ongi-etofi gartzua

emon eutsen. Orduan itxasgizon ezastukoak, begirakuna samur bategaz deadaf egin eban: *Eziñik eztago Miren'en laguntasunaz. Miren barik gustia txafto etofi doa.*

Ara or, Elkano entzutetzua, lufaren ingurua aratuten joan orduko zer egin eban, baita eskef onekoak lez andik etofitako egitadea bere. Lenengo, euskeldun egiazkoa lez, zeruruntz jaso bere almenak, gero ondo ibilteko.

Jazoera ori artu dot «Maria al alcance de la juventud, o sea, explicación del Catecismo de la Santísima Virgen» deritxon idazti polit, ofen antzeko jazoerarik asko dakañezanetik. Prantziako Marista batek egin eta A. Cepeda Miren Biotzaren Semeak erderara biurtu eban.

Elkano ospetzuak agurtza esaneran espan eta biotzian safi erabiliko zituan arentzako (letanias) itz onek (Sedes Sapientiae ora pro nobis) Jakituriaren egonlekua, eskatu gugaitik.

Oímetxe'taf K. A.

TXORIAK (1)

Gauza zoragaríenatarikoa ziñez, aran erdian dagon efitxoa, inguru gustian arnari zugatzak dauzala. Gauza atsegin-gafíenatarikoa, usain gozoz aizea betetan daben loraz beterik, zugatz oneik udabafian ikustea.

Eta gustiz ikusgaría zugatz adafok udagoyenez, madari, sagar eta okaranez zamauta ikustea.

Txori askok, euren enbof ta adafetan, inguruko pagoetan lez, abiak egiten ebezan, txofo-txio gozoz aizea betetan ebela.

Gurasoak safitan euren semeai esan oi

eutsen berez ikasitako abesti areitan afe-
ta ipinteko eta oartu be bai:

—Izaki txikiok kalterik txikienik be ez egiteko arduraz ibili zaitez; euren abiei ez ikuturik be egin; araneok liliak yantzi edefez apaindu, eta txoritxoei yanaria eskintzen dautsen Yauna atsekabetu gura ezpadozue; geure maitasunez ba bakarik, emon dautsez Yaungoikuak lorai euren margo edefak eta usain gozatsuak; eta uretxindofoei abots garbi atseginafia.

Alan da gusti be mutiko zaka batzuk abiak artu ta apurtzen ibiltzen ziran...

Txoriak izutu ta arantetik apuf-apufka iges egin be bai. Eta afezkero baratz eta bedafzetan abesti bat etzan entzuten, eta eritxoak itun eta ixiltu biurtu zan.

Ori baño be mutiko gaiztakeriak ondoren kaltegañagoak ekafi ebazan. Len txoritxoak yaten ebezan, eta crtuarientzat ain kaltegañi diran afak izugañiro ugaritu ziran, eta osto eta lorak iruntzi egiten ebezan. Zugatzak laster negu goñian lez soil gelditu ziran; eta len arnari edo fruta ugari yaten eben mutiko gaiztoak, sagrañ ale bat barik egon beañ izaten eben.

Txori abes samufak

Ene ume maiteak;

ta arnari gozatsuak; Yaunaren emaitzak lez bai'dozuz maite;

txorien abitik

urindu zaite.

M.'taf G.

(1) Schmid.



NASKALDIJA

Befmeo'tik. —Befmeo'ko afantzaliak, edef-kiro dabiltz: inozko afantzzea, uda onetan loitu dabe. Geure kayan ikusi eztan beste *atun* afapatu dabe. Eguna ixan-da, *3 000 kintal* kaira, ekafi dabena. ¡Au bai-dala afantzzea! Baña, befmeotafak afantzale azarifik (valentia)k dira: gau, ta egun itxasuan, dagoz: afaña etxera dakafenian bakarik, emen dagoz. Afaña ageftzen ba-da, urun izanañen, beriala duaz biñ.

* * *

Geure aizkide zintzo, Baxineta'taf Joseba'k alaba edef-edefa dauka. ¡Egun zorunak ba, geure aizkidiak eta bere emaste Ezkibel'ak daukez! Euzkeltzale ben-bena da, geure aizkide, *Goxeko Ixaña*'ko zaindarija.

* * *

Udea igazten, sendi batzuk, befton dagoz: Albizuri'taf Perderika ta beren ezkon Olaziregi'taf Sofne, be, euroen alaba Sofne, Begoñe, Txabier ta Elixabete'kin.

Euzkeltzale zintzo-zintzua da sendi au: euroen seme-alabeak, Bilbao'n jayoafen eta bixi be, geure euzkera, baño eztakije. Euzkotaf sendi gustijak, olakoxiak ixan biañ-leukie, ta geure euzkera gaxua, bixiko leukie. ¿Euzkerea geuria ezta? Zegañik, ba, bera ez-mate? Geure guraso zañaren *berbetia* da bera...

* * *

Uberua'taf Polikarpa ta beren emaztia, Amerika' tik etofi dira; euzkeltzaliak, senañ-emazte bijak, dira ta *Jaungoiko Zale*'ra, arpidetu dira. ¡Edefto! Olantxe, dagije, geure euzkerearen mafeokak.

* * *

Miren-deunaren txadonean txauñeskin (organo) barija jaftzen dabil Alberdi'taf Lope: asmo bixi-bixija ei-dauka, jaun onek, Bizkai'ko txauñeskin onenatarikua, bertokua, ixan dadiñ.

LOYOLATAR IÑAKI DEUNARI

*Iñaki deuna, gustiz altsua, 10
Gure Zaindari zoriontsua,
Kisto'n gudari aintzagaria,
zeugana dator Bizkai-eria
ta belaunbiko, burua makur,
pozez beterik diñotzu; ¡Aguñ!*

*Aguñ bai zeuri, eri guztiak
aguñ aberats ta ezeukiak,
gaste ta zarak anai-aguñ,
kistañ gustiok omen samuñ
dagiogu zeu-gorpuzkiñari; (1)
¡Aguñ biotzez Anai-Zaindari!*

*Doibatz ortzean ekaitz gogoñ
baltz agertzen zan aldian;
Yauna'k erukiz eskañ ugari,
izuririk biotzean,
Bere gudari autu zinduzan;
¡Aukeratze pozgaria!
oitura txañ ta guzuñ artean
zabaltzeko goi-argia.*

*Zuk ikuřintzat, «Yaungoiko-Aintza»
gudaroste «Lagundia»,
eta izkilutzat «Gogo inarkun»
izkilu bardingabea
arturik, beti bialdu dozuz
etsai gogorenak iges,
eguzki aitzin atzerantzaka
ilunak egin oi daun lez.*

*Gaur egunez be, oitura txarak
nasturik guzur lañoaz,
gure oiturak bastertzen dabez
ziñestea epelduaz;
Au zuzentzeko, YAUNGOIKO-ZALE
yatortzu, Anai altsua,
eskatzen jaren! etsayon kaltez
argi, adore sutsua.*

GABIREL.

(1) Bizkaï'ra ekari dabelako.



ZER EDO ZER

Urteufen ospetsua.

Ludi gustiari itxasoz lenengoz inguru egin eutsela Iraia'ren 6'an laureun urte betetan dira.

Eta yazokun arifagari onen gomuteak poztu egin beař gaitu, au loftu ebana euskotara izan zalako; *Elkano'tar Yon Sebasten*, Getari'tar goragařia. Gai onetzaz ba, zertzeladatxo batzuk ipintea egoki deritxogu.

Magařanes ospetsua buru ebela, ludiari inguru egiteko asmoz, 1519'gn. urtean bost batelek urten eben San Lukar de Bařameda deritxon tokitik. Iraia'ren 20'an urten eta iru urte inguru itxasoz neke ta lořez ibili ondoren, *Victoria* eritxon batela, eun toneladara eltzen etzana bakar-bakarrik biurtu zan *Elkano* buru ebala. Beste gustiak sakabanatu ala itxaso ondatu ziran. Magařanes bera Pilipinas aldeko ugarteetan guda batpen erail eben.

Elkano 'k zuzentzen eban batela, *Victoria* 14.460 legua iru urte inguruan ibili ondoren, 1522'ko Iraia'ren 6'an San Lukar de Bařameda'n sařtu zan.

Beragaz beste iru euskotar eldu ziran *Akurio'tar Yon*, *bermeotara*; *Aratia'tar Yon*, *bilbotara eta Zubileta'tar Yon*, *barakaldotara*. Itxas-arakatze onetarako bost bateletan yoan ziran eus kotarak *ogetabost* izan ziran; gustian izenař ez luzetzeařen ezin geinkez ipiņi; baņa bai, Cabo Verde'ko ugarteetan portugaldarařak espetxeratu ebezelako, Elkanogaz batera eldu etziranenak. Onexek izan ziran:

Insařaga'tar Martin, bermeotara; Txindartza'tar Kepa, bermeotara; Iruņa'tar Laurentzi, Sorabiłatara; eta Tolosa'tar Kepa, tolosara.

Euskotar itxastari asařtuok, gořagari dira; eta geure txalo beroak *Elkano*'ren egite gomutagari au andikiro ospatzeko, yai andiak gertau dituan Batzordeari!

¡Yaungoikoari eskeřak!

Ondiņo iļe gitxi dirala irakufi gendun *Giovanni Papini*, *La Voce* deritxon italitař izpařingi gaiztoaren zuzendaria, katoliko egin zala, eta idazti onak egiteko gogo sutuagaz, lenengo idaztia Yosu-Kisto'ren aldekoa egingo ebala.

Egun batzuk dirala bařiz pozez irakufi dogu

Gilberto Keith Chesterton; ingalandař izpařingilari ospetsua be katolikotara zineste argiak beřagandu dabela. Idazle au, 1874'an yayo zan, eta idazti asko idazti ditu. Idazle onek argitaldu eban «Ortodoxia» deritxon idaztia irakufi gendun ezker, begi-begiko egin yakun; eta bertan benetako siņestera makuřtuta ikusi ařen, garbiro etzalako azaltzen tamala emoten euskun; baņa orain Yauna'ri eskeřak tamal au poz biurtu da egizko bideřik oso-osoa sařtu dalako. Onera biurte onek protestanteen artean sartada andia egingo dau!

Len *Jeorgensen*, *Verlaine*, *Coppée*, *Huysmans*, *Bourget*, *Brunetiere*, *Bazin*, *Benson* izan ziran; eta orain beste askoren artean len aitatu ko biok zineste argia ikusi dabe...

Yauna'ri eskeřak, zineste eguzkiak, guzurlaņo baltzak idazle ospetsuenen buru-biotzetan ezereztuten ditu.....!

¡Lotsea merkel

Modako yantziakaz geřtutzen dana ikusita, lotsea merke salduařen, iņok eztabela erosi gura esan lei; axe da gauza bat askok eřez galduaren iņok topatzen eztabena; ontzat euren buruak egiten dabezan emakumeen artean be, *lotsabakoen* yazkerea zabalduaz dakusgulako. Eta ori Aita Santua aurretik dala Eleizako nagosiak lotsabakeři au kistař artetik beintzat basterřteko egin dituezan alegiņak eginda...! Entzun da goř eiten, Adan'en semeak mutilak dirala; baņa, gai onetzaz beintzat Eba'ren alabak be... emakumeak dira!

Norbaitek gure esakuna «Alpeř da Miren makilatu»... gogoratu eragingo leuskit baņa, oraintsu gai onetzaz Malaga'ko gotzaņak idazti daben *zerbait* euskeratzea egoki izango dala uste dot, «Yaungoiko Zale» irakufien dabenak onen beřizanik euki ez ařen.

«Kale-zear yoan eta eleizan sařtzen diran andere ta andereņo batzuk aitortzean artzen daben maite-damua onangoxea edo izaten da.....

Yosu-Kisto neure Yaun, egizko Yaungoiko eta Gizona; zeu zareana zarealako, eta «modea izan ezik» gauza gustiak baņa maiteago zaitudalako, damu naz biotz-biotzez zu naigabetuaz, eta sendaro erabagiten dot, geyago ez pekaturik egiteko, «modeak agindutako obenbidezkoak izan ezik»; eta zu iraindu eta iraindu eragiteko bideetatik «ez» aldentzeko»...

Damu-egintza au autortzerako eztala gai?

Azken-Epai egunean ikusikogu, apaingafiro
biloisturik doyananen autoftze ta yaunartzeak
zer balio daben.....

Otz-otzean, eskier'eta atsekabe andiaz diño-
tzue *Manuel Malaga'ko Gotzainak*

Sermoi labur'eta zofotza, ¿ezta? Ba, andiki
batzuri batez be, zerbait geitxoagok kalterik
ezleuskioe egingo.....

GAMA

EKIN

Gure azkenengo batzar' nagosijan,
beste batzuen artean, asmo bi one-
kek aurkeztu ziran:

1. Eñirik txikijenetan be euskeraz-
ko idaztijak erosteko era ona izan
daiten, idaztitegiak ipiñi.

2. «Jaungoiko - Zale»ri eñijetako
izpar'ak bialdu.

Gai onetzaz batzar'ak erabagi biar-
ik ez egoan, asmo oñek gustijak on-
tzat artu ta bazkidiak lan ori asi ta
ekin baño; eurak egitekoa da-ta.

Bazkintza - Artezkarijak lendik
esanda dauko gauza bi-oñek garan-
tzitsuak dirala, ta bazkide gustijak
oñetan sayatu biar dirala. Izan be,
eñijetako izpar'ak zelan argitaldu,
bazkidiak bialtzen ezpadauskuez?
Eta nun eta zelan ipiñi leikezan idaz-
titegiak nok daki obeto bakotxak
bere eñijan baño? Augaitik ekixube,
ene irakurliok, zeuen arazoa dala
au. Zuek bialdu egizuez izpar'ak eta
guk argitalduko doguz. Bilatu den-
daren bat gure argitalgunak saldu

gura dauzana, ta pozik bialduko dau-
tsoguz; eta saldu sarija emon be bai.

Batzar'ian onetzaz esan zana etzan
alpeñekoa izan: Uñengo egunian ida-
zkiz Lekeitio'ko bazkide batek ira-
gafi euskun idoro ebala berak saldu-
larija, Etxebar'ieta'tar Joseba. Gauñ
zenbaki onetan dakuskezuez Berme-
o'ko izpar'ak.

Onek asi dira; beste batzuk jafai-
beyoe.

MIREN IZEN GOZOA

*Gozo-gozo,
samuñ da,
estitsu tu
biguna,
gizonontzat
ludi ontan
geu-amaren
izena.*

*Baña donoki
goyan daukogun
Aman izenen
gomutak;
eztauz betetzen
osoroago
bere semeon
biotzak?*

*Argi bizia,
itxaropena,
maitetasuna
nai bo'gu;
Miren Amaren
izen edera,
gomutatzean
daukogu.*

*Biotz argala;
ez ba, bildur'tu,
zeure etsayen
gudakaz;
osoro danak
garaitukozuz
Miren izenen
laguntzaz.*

GABIREL.



Goteun-Etorkunde Ostez XVII Igandia

Matai-Deunaren XXII atzalburutik esakun eřeskadea

Aldi atan: 35.—Eta berari iřandu eutson aretariko latari irakasleri batak, ziltzaetan.

36.—Irakasleriya, ęzein da lagijan, agintz nausija?

37.—Diņotso Josu'k: zeure Jaungoikua maře-egixu zeure bijotz gustiz, ta zeure gogo gustiz ta zeure adimen gustiz.

38.—Nagosijena ta agintz lenengokua auxe da.

39.—Eta bigařena beronen idekua da: zeure geidia mařeko dauzu zeure buruba legez.

40.—Agintz bi onetatik lagi gustija ta iragařlarijak biař-ixana dauke.

41.—Eta batzauta dagozala, paristařai iřandu eutson Josu'k

42.—Diņola: Kisto 'tzaz ęzer deritxatube? ęnoren semia ete-da? Dinotsoe, Dabi'rena.

43.—Diņotso: ęZelan Dabi'k, ba, goz berari Jauna deřuten dautso, esanař:

44.—Neure Jaunari Jaunak esan eutson: neure eskumaldian jafi zadi, zeure areyuak zeure oņaen oņařtizat ipiņiraņo?

45.—Jauna deitzen ba'dautso Dabi'k, ęzelan beren semia da?

46.—Eta itxik ezin - egijan erantzun

iņork: egun aretatik iņor etzan azartu geyago iřaunik egiřen. Eta abař.

* * *

Zelan-edo-alan, gaiki gustijaen jauna da suba, ta beti egilia da: noz-edo-noz geldi dago axia; ura be, geratzen da ta luřa be, geldi dago; ez baņa suba; beti dagi onek, eta biař be-bai, ostian amandauko litzake: ořenbeste egingořa da berau. Subakin mařasuna antzeztu oi eben eřkabeak; euroen setea ba, bařdiņa da. Egingořa da mařasuna be: iņoz bez eztago geldi, noz-edo-noz atsedetzen dira zismena ta itxaropidia; mařasuna iņoz -bez baņa. Ezpadagi mařasunak, mařasunik eztago: *si non operatur, amor non est* (GERGORI DEUNAK). Atsedengia da egiņa au ta ezin-aizundu edo eskutau daike. Au ta be, gixadi orori ia Jaungua mařetan ete-daben iřandu ezkeru, erantzungo dabe gustijak: Bai-mařetan dogu: baņa bilduř-naz guzuřa ete-diņoen; Loyola'tař Iņaki'k diņo, ba: *Amor ab operibus magis pendet, quam a verbis*: egiņenakin itxakin baņo obeto agertzen da mařasuna. Kerik бага eztago surik: mařasun-egi-

PERU TA TXOMIN

Peru

*«Asko yakiten ei yok
asko dabilenak»,
egitzat emoten yok
zañen esakunak.*

Txomin

*Ba' leitekek egi izan,
etxoat ukatzen,
auxe baña saritan
yatak gogoratzen:
Batera ta bestera
ibilita gero,
¿zelan yakusguk asko
len bestean lelo?*

*Ibiltea ba' litzok
yakintzan ituñi;
¿zelan yabik ludiyan
lelo ain ugari?*

Peru

*Izan be olantxe dok
aizkide Txomin.
Asko ibiliañen
astoa beti bat dok;
iñon eta iñoz be
eztok zaldi egin.*

GABIREL.

Sinistu ete-geinke?

Gernika ondoan Muxika deritxon eria ez dozue entzun inoz? Begira, ba, zelako kristau-oirurak gordetan ziran efi ofetan, aldi luzia oindio ez dala.

Neska - mutiak dantza - lekuan batuta, euron dantzea asi baño len, iru gauza oneik egiten ebezan: *txalo* bat lenengo, *Aitearen* gero, bira bat ufengo, ta dantzea ondoren; eta iru gauza ofeik dantza bako-txean gordetan ebezan. Ofeik bai oitura zoragafiak! *Aitearen* egin dantza bako-txaren auran! Zeinbat jausi gara ofetan gauko euskaldunak! Ofegaitik geure askatasunean be gero ta jausiago goaz.

Geure Jauna geuk itxi dogu, ta berak be neufi badiñean isten gaitu. Judafen antzera ez dakigula jazo!

Txalografia.

Josulaun guztien Buruak España'ko Josulaun - etxeak ikeritzeko ordezko bat igez bialdu eban; eta ordezko ofek aberki bako-txaren izkerea erabili ta zabaldu dagiyela agindu dautse.

Au dala-ta, Kataluña'ko Josulaunak katalaneraz itzaldiak jatorduetan egiten asi dira; eta Oña'n be aurten euskerazko itzaldiak jantokian entzun dira.

Izpar ori euskaldunentzat benetan txalografia izan bea litzakigu; bada Josulaun agufariak asi ezkeru, bultzada aundia euskereari emon daikioe. Inaki deunaren semeak ofegaitik dira!

I. J. M.

Inaki deuna «Gogo inarkunen» zaindari.

Aurten laureun urte betetan dira, Inaki deunak «Gogo-inarkunen» deritxon idazti edera egin e-bala.

Azalez gauza andirik ez tirudi, baña mamiñez edefenetaikoa, gizona bafendik onduteko aukerakoa, eta deuntasan bidea erakusteko egokienetarikoa; Aita Santu, deun eta idazle onak erakusten dabenez.

Gauza onak zarata gitxi, ta zarata askok gauza on gitxi dakañela egunero ikusten doguna da; eta auxe da gogo-inarkunak (ekerzizioak) egiten dabena; ixil-ixilean gizona goikoz-bera aldatu; gizonari bere izenaren yaube izaten irakatsi; eta au baño gauza gurenagorik eta bea fekoagorik eztago ez bizitza onetarako ez bestean betiko zoruntsu izateko.

Idaztitxo ofetako irakatsiak egin dabezan, eta egingo dabezan onurak ikusirik ba, XI'gn. Pi Doipuruak igaro dan Garagarilaren 26'an «Gogo-inarkunen» Zaindari gure anai altsu Inaki deuna autu dau.

Izpar pozkafia euskotafontzat!

Ludiko itxasontzirik aundiena.

Orain arte egin dan itxasontzirik aundiena «Majestic» deritxona da. Doistañak egin eben eta «Bismark» izenaz guda nagosia asi baño lenago itxasoratu eben. Ingalanda'k beragandu eban.

Luzeran 291 neurkin edo metro daukoz, eta zamauta 64.000 tonelada pixetuten dituz eta erainkiñak dauken indaña 66.000 zaldirena da.

Itxasontzi onek bere lenengo yoan-etofia igaro dan Bagila'ko 24'an amaitu dau, eta onunzkoan, New York'etik Southampton'era dagozan 3.139 mila 5 egun, 9 ordu ta 42 iroiren edo minutoan igaro ditu. Ibiltea da gero! Bañuan, batez be lenengo mañan doyazanentzat, yauregi baten euki leikezan aukerak ei daukoz.

Gizonak bizitz arazoetan egiten dabezan aurf-erapenak gogo-arazoetan ba'legiz, orduantxe ondo!

Doipuru mendigoizalea.

XI'gn. Pi Doipurua mendigoizale asartua izan zala toki onetan aldi asko ezjala ikusi gendun. Auxe dala-ta, mendigoizalerik ospetsuenak beratzaz gogoratzen dira izpar onetan ikusi geinekenez.

Ludian danik mendirik gurena Everest deritxona da. Oraintsu bizia galtzeko zorian ipiñita, mendigoizale ospetsuenak bere galurera eltzeko asmoz yoan ziran. Eta Doipuru autu ebenean, Doipuru mendigoizaleari zorion agufa bialdu eutson taldeak berak, Everest mendian, 8.322 metro goyan artu dabən aitz zati bat bialdu dautso, ebano ta zidafez egindako ointxo baten azpian idazkun begiko bat dabela.

XI'gn. Pi'k oso abegi onez artu dau; eta mendigoizaleen buru danari idazki bat eskefak egiñaz eta urzeko domiña bat gomutakitzat bialdu dautsoz.

Bauke nondik orafu,

Pantzekatar aldizkingi baten irakuñi dogunez, Nipon'en (Japon) Kotxi deritxon erkian olaf enda bat ei dago *iru metro* luzerako bustena


daukana. Enda onetako oloa bariz busten motza izaten da eta bere afautza bakotxa lauerleko bi ordaindu beaf izaten da. Oñafa geldi-geldi egoten da eta yanaria ondoan ipiñi ezkerro, orman sartutako taket baten ganean zirkiñik egin barik egun asko igaroten dituz. Egon beaf, ainbeste-ko bustena erabilten zeregin gitxi eleuke euki-ko ta.....

Txinafafen gauzak.

Txinatañai senide urfekoen bat ilten yakenean, *lutua* erabiltea legeak agintzen dautse. Lege au betetan eztabenak irurogetamar zigofkada artu ala lau urterako erbesteratzen dabe. Zigor bata edo bestea, erudunak aukeratzen dabena. *Lutua*, gurasoak iru urtean erabilten dabe, baña latefi-otseñak ba'dira 27 ilebete bakafik. Seni taftekoa ilda *ogetamar* egunean senide urfena ez bizafik kendu ez soñekorik be ezin leikie aldatu.

Au azkenengo au ofaitik eurentzako ekandu obea da!

GAMA.



!(Foto Ojanguren)

PERRETXIKOAK (1)

Bein baten ama batek bere alabatxo Katariñe, aitari asko atsegin izaten yakozala ta, perotxikotan mendira bialdu eban.

Biurtu zanean neskatoak esan eutson:

—¡Ene ama; nik aurkitu dodaz gaur peretxikoen edeñak! Begira! —esan eutson—otsarea zabalduaz!—

Gustiak goñiak dira eta bitxiz apainduta dagozala dirudi. Lengo egunean ekañi zenduzanen antzeko txiki ta urdiñak be aurkitu dodaz, baña erkin etsita bertan itxi dodaz.

Zu zara kaska ariña! —erantzun eutson amak—Oñek, begirako ain edeñak dirudien peretxikook, oso edentzuak (berentzuak) dira eta yaten dauzana il egiten da, eta bañiz etxurabakotzat ezetsi dozuzan urdiñak egin-egiñian be onenak dira.

Ludi onetan gauza askogaz bardin gertatzen da.

Onoimen (birtute) apal eta ixil asko dira zarata gitxi egiten dabenak. Eta oitura txar disditsuak bai dira leloak añitzeko lain diranak.

Txar en guzuzeko azalak eñez, ene alaba, atsipetu geinkez, eta obenera eroan be; ba, ene alaba

Azal dizditzuz oitura txar en
menperatzen dau gizona,
edenez bete gogoa eta
galdu erain be zoruna.

M.ñaf G.



XI'Urtia. — 203'gn. zenbakija.

Zornotza'n. — 1922'ko Ufifa'ren—.1

Goteun-Etorkunde Ostez XIX Igandia

Matai-Deunaren Goizparikiko XXII atzalburutik esakun ereskadea

Aldi atan: 1.—Eta erantzuki, Josu'k ostera be irudikijakin diñotso, esanaz:

2.—Donokiko bakaldefija, gixon - bakaldun lakoxia da, eztegubak beren semiari dagijana.

3.—Eta eztegubetara deñubai beren jopubak bidaldu euzan, eta ezeben etofi gura.

4.—Ostera be, beste jopu batzubek bidaldu euzan, diñotsola: Deñubai esan-egixube:

Ara, neure bazkarija geñtau dot, neure zezenak eta txori-egaztijak irail-dira, ta oro geñtauta dago: eztegubetara zatoftz.

5.—Ezetsi-eben, baña, eurek: eta beren etxe-baztefera bata, ta bestia beren irabazpidera jua ziran.

6.—Eta bestiak otseñai oratu ta iraindu ezkeru, iraildu ebezan.

7.—Eta asafetu zan bakalduna entzun ebanian: eta beren gudaroztiak bidalduta, iraila areik irail-euzan, eta euroen urija sutau eban.

8.—Orduban beren jopubai diñotso: Eztegubak, egiz, gertauta dagoz, baña deñu diranak gai-etziran.

9.—Bide-urtekunetara zuaz, ba, ta ido-

roten dozubenai dei-egixube, eztegubetara.

10.—Eta bidietaz urtenda, beren jopubak idorotako gustijak, gaiztuak eta onak, batzalduebezan: eta eztegu-tokija deñubakin bete-zan.

11.—Eta sañtu zan bakalduna, etofi ziranak ikusteko, eta bertan gixona eztegu-janzki bakua ikusi eban.

12.—Eta diñotso: Aizkidia zelan emen eztegu-janzkija eztaukazula sañtu-zara? Baña ixildu zan bera.

13.—Orduban beren señai diñotso bakalduneak: Beren eskubak eta oñak lotuta, at-ilundijetara jauñti - egixube: an neña ta agin-kañaskadia ixango da.

14.—Asko deñubak diralako, gitxi, baña, autetsijak.

* * *

Euzkeraldu dan goizparikija uleñtzeko uañtu-biañ dogu, Jaunguaren eskaña ludi onetako aberazki gustijaen ganetik etsi biañ dala. Lenengoz, donokiko ibazpenaren zustraya dalako; ta baña be, Jaunguaren aizkidia gagizalako; ta guenez, donokiko aintzearen bafurea dalako. Ber-

BEDAR BIKAÑA (1)

Birgite ta Paule baseñitar mirabeak, otzarakada bana arnari buruan ebezala yoyazan.

Birgite'k etenbako ezpa ta mormoxetan ziarduan, Paule oster a bide gustian bañez eta yolaserako gogoaz yoyan.

—Eta Birgite'k esan eutson: —Olan bañe egiteko gogo a zelan daukozu? Zure otzarakadea nirea baño ariñagoa ezta, eta ni baño indartsuago be etzara ba.

Paule'k erantzun eutson:

—A, nik neure otzarakadan, zama gustia arintzen daben bedar bat ipiñi dot, eta ore-xegaitik igari barik daroat.

—Oraitiok, erantzun eutson Birgite'k, bedar orek guztiz bikañak izan beañ dau. Neuk be daroadan zama edo otzarakada au arintzeko bedar ori eukiteañen, eztakit zer emongo neuken be...

Paule'k erantzun eutson:

Zama (karga) gustiak arindu ta neke gustiak gozatuteko indara daukon bedar-aren izena auxe da: *Eroapena*.

Zama astunena
arindukozu,
Eroapenagaz
artzen ba' dozu.

M.'taf G.

ASIS'TAR PANTZEZKA DEUNA

Aukera danak ezesten dituz,
irañak bere laguntzat,
soñeko urdin, lokari latza
beste barik, ondasuntzat,
Pantzezka doya eririk-erik,
Txirotasuna goraltzen;
aberatzaren poz ta zoruna
guzurfa dala esaten.

Alaitasuna biotz baruan,
ifibarrez arpegia,
ituñiaren barutik ura
sortu oi dan lez garbia,
Pantzezka deunan biotz barendik
sortzen dan goi-abestiak
itotzen dituz biotz samiñen
ituntasunak gustiak.

Eguzkia ta sua naiz urak,
lora samur ta txoriak,
baita erailtezez bizi dan otso
ankeñ ta bildurgarriak,
Pantzezka'n aoz entzun dau lenen
izen samur au: «Anaya».....
Beren itza ba zelan ez izan
asafe oron amaya?

Neke, samiñez, baita zauriz be
Kisto berbera dirudi;
esku-oñetan ta biotzean
Berak lez daukoz bost zauri;
alan be argi beti dakusgu
oñaze gogor erdian,
pozaz oldarka, alai abesten
bere anayen arteun.

Yaunmaitasunaz alaitasuna,
gentza ludian zabaldu
eta, «Eriotz Afabeari»
maitez besoak edatu
eutsozanean, alai abesten
azken arnasa emonaz,
Yaungoiko Aitak saritu eban
betiko goiko zorunaz.

GABIREL.

¡A! neure amatxu
mañe-mañia,
zugana nator
gaur aika,
Zure aurian
belaunikorik
nago tamal ta
otoika.

Beti-betiko
zorun gozua
jarañuteko
of goian
zaindu nagixu
gaizkiñetatik
lufian nagon
artian.

¡A! ze gozuak
dira danentzat
Zure begikun
argiak
Zure aurian,
ama mañia,
poztuten dira
guztijak.

Noz amañuko
da, ama mañia,
nire bizitza
luzia?
Noz amañuko
dira niretzat
nekiak eta
ludia?

Ofexegatik
Zugana nator,
¡a! neure amatxu
onena
Ezkatzen zuri
ustez beterik
niretzat zure
zaipena.

¡A! nire amatxu
guztiz Zoruna,
nire biotzen
jabia;
Noz juango naz
ikustera zu
guztiz eñef ta
garbia?

Nire gorputza
ilten danian
nire goguak
poz-pezik
igez egingo
dau donokira
guztiz zorunez
beterik.

E. S. A.

Okef egña zuzentzen!

Ogei urte inguru dira, Parantze'ko agintari; gaizto batzuk lege biuri baten bidez, lekaide ta lekaime (prañe ta monja) gustiak erbestera yaurti ebezala. Zer dala-ta lege ori emon eben? Ezer-tarako zio barik. Katolikotafai dautsen amofuz, edo gure basefitañak esan oi daben lez: *Ondo egñen pague...*

Oin ostera, euren abefira biurtzeko deitzen asi yakez, ori bañiz agintariak eurak diranak izan da...

Bentzat Wight ugar-tean egon diran benedita-ñak bañiro Solesmes'eko euren lekaretxera laster biurtuko ei dira, eta beneditañ lekaime batzuk be, dei berbera entzunda, bardin egingo dabe. Asi dira-ta urte gitxi bañu enparauai be ueste dogu ateak zabalduko dautsiezala.

Bialdu ezpaebezan bañiro deitu beañik ezeben izango baña... tira, okeñak zuzentzen asi dira-ta...

Batzañ aundi bat efa... itz bat be entzun ez...

Italitañ *gor-mutuak* zelan edo alan *entzun* beañ izan dabe *idekoak alkatzea* ona dala, ta bañ'dakizue zer egin daben? Ba, sentzunak osorik daukezan askok egiten eztabena. *Bariketan ibili barik alkatu*, ixil-ixilik euren eskubideak zaintzeko softu daben bazkunan bañiz 40.000 sañtu dira. Eta oraintzu erabagi bañiak artzeko euren-tariko 300 ordelari Eñoma'n egin daben batzañ baten bildu dira.

Bildu ziran askok euren asmo ta erabagi gayak agertu ebezan, eta ezbañ gogoñak euki be bañ, yakiña! bakotxak al eban eran, eskuz, kinuz eta abañ.

Gustiak ikasteko gogo bizia agertu eben, eta ofetako ikastolak eskatu be bañ... eta ori gora bera iñok ezebazan espetxera sañtu! Beañ ba'da itzik ez ebelako egin parkatu egingo eutsen. Alan da be neuk dakidan eñi baten izan ba'litz eztakit zelan ibiliko ziran!!

¡Eskatu! ¡Eta ikastolak atan be? ¡Ixilik gero, mutiko! Ezpabe....!

Dana dala, italitañ *gor-mutuak* gauza bi irakasten dauskuez: Bata *alkartasuna indaña dala*, ta bestea; *itzik egin barik be erabagi onak artu leikezala...*

Zeozertxo.

Terese Deuna 1582'ko Urñila'ren 4'an gabeko amafak inguruan il zan, eta ufengo eguna, iñaren *bosta* izan beaŕean, Urñila'ren *amabosta* izan zan. Zelan? Oso efez, egin ebena egin ezkeru. Aldia zenbatzeko erak asmau ebezanak euron artean *Dunixi Txikaŕa* eritxonak, seigaŕen gizaŕdian uts bat egin eben, urte bakoŕxean *minuto* batzuk gitxiago zenbatzen ebezan, eta aldienerpuruz amaŕ eguneraño eldu ziran. Eta euzkiak gizonen zenbatzeari yaramonik egin barik bere bideari yaŕaitzen euton - ta, yakitunak oarŕtu eben euzkian, esaterako udabaŕira eldu zanean, gizonen egutegian ondiño amaŕ egun gitxiago zirala. Eta urte atan, Europa'ko lateŕi geyenakaz itunduta, XIII Gergori Aita Santuak oker au zuzentzea erabagi eban, Urñila'ri amaŕ egun kenduta. Eta egin-egiñean be oker zuzentze au Terese dcuna il zan egunean gertatu zan. Olanŕte gertatu zan, iñaren *lauan* il; ufengo egunean obiraldu ta ufengo eguna *amabosta* izatea.

GAMA

EUSKEL - GAYAK

Zenaŕuza'ren Itxorkunea.

Urteoro, Bolibaŕ ta uŕaldietako jaupari itzalgarjiaŕk euroen Bazkunako batzaŕa dagije. Urte bakoŕxean uri batan dagije; auŕten Zenaŕuza'ren zainjea zan, batzaŕ aŕatutako ori egifeŕko. Bazkun ori eguala be, enekijan neuk.

Bazkun ofen elburuba gustiz edeŕa da; bazkide-anaya-goguen aldeŕ il-otoyak egin.

Lagunakin Zenaŕuza'ra niñoŕyantzat, iñuen aizkide batzuk. — ¡Tira ba, bai guaz! Bidez giñoŕyazan ba, aizkide batzuk; bitxabala lagata, indautxubatik genbiltzan, ariñaŕago eltzeko Zenaŕuza'ra. Yaŕtza'taŕ Adan'aren leŕti edo *piñaditik* gabiltz! eta beinguan txadonean gengoŕzan. Leku edeŕ onetan, orduŕtxe lenengo aldiz nengoan. ¡Geure Bizkaï'ko Aldundijarentzako lotsagarjia da Zenaŕuza! ¡Len lirain, ta gauŕ, *ildegija* dirudi!

Txadonaren alboko etxebatza zaŕkirotuta ta obenduta dago; lazokerija ta ardura eza baño bertan eztago. Bertako txauburubaren alegiñaŕk alpeŕikuak dira, Aldundijak lagundu ezik.

Il-otoi edeŕa, egin eben bazkide - jauparijak. Eta gero batzaŕa. ¡Bazkun onetan anaŕasuna ta maŕasuna baño eztago!

Zenaŕuza edo Zenaŕutza'ren itxorkunea neki-jala nik, eta J. Z.'ean argiŕaltzeko, iñuen nobaitzuk. Itxorkun ori ba'neki eskieŕ; orduantxe zekikie zubek. Itxorkuneak, bilatuta, burura eztaoŕtz; uŕte-barik datoŕtz.

Zenaŕuza'k iru atal daukaz: euraek azteŕkatu -biaŕ-doguz: *Zen-aŕu-za*.

Zer ete-da zen ori?

Orain arte *Cenarruza* idatzi da ixen ori: idazti zaŕaetan be, *Cenarruza* daukagu. Aufeko Aldundijak, eŕi -ixenak, euzkeraztuta *Zenaŕutza* jaŕi eban.

Gure asabeak C'gaz K izkija idazten - eben, baŕta K, oguztu C'gaz: *casa casa Guernica Gernika'ren ordeŕ*. Eta geure auŕetiko asabeak eŕderazko idazkerea baño ezeuken: eta euzkerazko ixenak be, eŕderazko izkijakaz idazten eben. Gauŕko Zenaŕuza'ren *Zen* ba, *Cen* idazten eben- Onez-ganetik, C ta Z bardiaŕnak eztirala diñoŕgu. Abuagaz bijak oguztu ezkeru, igartzen da.

Gastelaŕak, eŕomataŕaen K C dagije: *pakis, pacis*.

Olanŕte, txafŕto, idatzi eben, ta aŕezkeru nastia datoŕ. Euzkeldunak baŕiz, *pakia, bakia* diñoe, *pacia* idatziŕta egon aŕen.

Beraŕ *Cenaŕuza'ren Cen, Ken* dala dirudi. Ostian, *Cen, Zen* ori zer dan eztaŕkigu.

Cen, Ken, daukagu ba, geure aburuz edo eŕtxijan.

Eta *Ken* au zer da? *Ken Koen'tik* letoŕke: *Koen goen* eta *goyen'etik* legeŕ. *Ken*, baŕta, *Kan* edo *gan'etik* letoŕke. *Gandika'tik, gendika* datoŕen legeŕ: *Gan, gen, ken=cumbre* eŕderaz. C'gaz g ta k idazten eben laterataŕak. Aor nire, eŕetxija, *Cen (Zen)'tzaz*. Au da: *Cen=Ken, gen gan (la cumbre, el alto, eŕderaz)*.

Zenaŕuza edo Kenaŕutza'ren bigaŕen atala aŕu da.

Aŕu zer dan bai-dakigu. Aŕu=barranco, eŕderaz. Argiruago ezin-daike egon.

Zenaŕuza edo Kenaŕutza'ren irugaŕen atala, *tza* da. *Zenaŕutza* idatzita, beren bertako *Geŕoki'*ko ormean dago. Idazkun au baŕija da. *Za, tza* dala, argiŕo ekijan Aldundijak. Olan uŕte



XI Urtia. — 207 gn. zenbakija.

Zornotza'n. — 1922'ko Urilaren — 15.

Goteun-Etorkunde Ostez XXI Igandia

Matai-Deunaren XVIII atzalburutik esakun eřeskadea

Aldi atan: 23.—Beren ikasliai irudiki au diñotse Josu'k: Donokiko bakaldefija, gixon - bakaldun lakoxia da, beren otseñai ařtu-emonak gura-eutsoena eskatu.

24.—Eta ařtu-emonak atzalduki, aurkeztu eutsoen euretariako bat, amař mile txindi zoř eutsozana

25.—Eta ezeukan lez zegaz ordaindu, berau ta beren ezkona ta semiak, eta eukan gustija, saltzeko agindu-eban beren jaunak, ordaindu edilantzat.

26.—Belaunbikoturik orduban otsein a, otoi-dagitso, diñotsola: Jauna, itxon -nagixu, ta zoř gustija ordainduko dautzut.

27.—Eta erukiřuta Jauna otsein aretzaz, azke laga eban eta zořa azketsi eutson.

28.—Baña urřen da otsein a, beren otseingide bat, eun txindi zoř eutsona, aurkiřu-eban; eta oraturik, iřo gura eban, diñotsola: zoř daustasuna ordaindu - egi-dazu.

29.—Eta belaunbikotuta beren otseingidia, otoi - dagitso, diñotsola: itxon -nagixu ta zoř gustija ordainduko dautzut.

30.—Baña ezaban gura berak: eta jua

zan, eta espetxean sařtun ixan eban, zořa ordaindu ařteraño.

31.—Eta ikusiki, jazoten zana, beren otseingidiak, otilundu ziran asko; eta jua ziran eta euroen jaunari gustija, jazotakua edestu eutsoen.

32.—Orduban deřu-eutson beren jaunak eta diñotso: Otsein deungia, zoř gustija azketsi dautsut, otoi-daustazulako.

33.—Eta zeure otseingidiakin, zeu be, etziñian erukiřu biař, zeukin neu erukiřu -nazan legez?

34.—Eta asafatuta beren jauna, oñaztalai emon eban, zoř gustija ordaindu arteraño.

35.—Aulan, dagitsube nire donokiko Ařeak, bijotz - bijotzez, beren anayeari, bakotxak azketsiko ezpa'zebez.

I

Jaunguaren iraña da obena.

Oben ilgořa dagijanak řzer dagi? Jaungua iraintzen dau. Irañearen neurija jakiřeko, lenengoz, Jaungua nor dan jakin biař dogu. Eta au gauza gatxa ta eziña da. *Jaunaen jauna ta bakaldunaen Bakalduna aa. Jaungoikua.* Muge ta azken-

EPEREN ABIAK (1)

Mutiko bik mendi baster baten egoan garitza baten eper-abia bat aurkitu eben, eta arautzen gain egoan amea arapatzea lortu be bai.

—Ik arautzak artu egizak-iñotson nausienak besteari-ta nik epera gordeko yotat. Arautzak eperak beste balio yabek.

—Eta gasteenak erantzun eutson: ori egia ba'dok eutsoz arautzok eta ekak, eper ori.

Orduan ezpayan asi ziran, eta azkenean alkañi uleetatik tiraka be bai. Burukan ziarduen artean, nausienari eperak eskuetatik iges egin eutson, eta gasteenak uste barik arautzak zapaldu ebazan. Eta ezer barik gelditu zirala ikusirik, baketu ta alkañi esan eutsen:

—Zuzen yegoan bai, gure aita, ekin da ekin egi au esaten yauskuanean:

Yaraitu zintso aldiak beti
erakutsi daun egia:
«Galdu dan olo edera baño
arautza bat dok ohea».

M.'taf G.




Foto Ojanguren

Lekeitio'ko Eleiz-aure ta tofia



ZER EDO ZER

Ori baño zerbait geitxuago bai'gozak!

Wasih'ngton'eko Izakien Edesti Biltegian (1) leya'ontzi batzuetan gordeta ei dagoz 154 libra pizetzen ebazan gorpu baten ondakiñak. Onexek dira:

Ontzi baten 96 libra ur.

Beste bat 34 1 | 2 libra koipe utsaz.

Ama' librako gelatina zati bat.

Zortzi libra ta erdi kare fosfato.

Iru libra albumina.

Kare karbonato beste bat.

Libra bat azukera, beste ainbeste almidoi, kare kloruro sodio kloruro enparaua.

Sasi-yakitun batzuk irakasten dabenez gizona ori baño ezpalitz... txindiagaitik euren burua auteskondeetan - da, saltzen dabene astakiloak zuzen legokez, saritan eurak balio dabene baño geyago artuko leukie-ta.

Baña... ori baño zerbait geitxoago bai'gozak; ofez gañera, ontzian gorde ezin leiken eta txindi gustiak baño ohea dan gogoa be bai'ogü, lafe-gitan beratzaz aztuta biziaren be...

Aguftzakin edo efosario ospetsu bat.

Fotx, Parantze'ko gudalburu-lena, eta guda andian garaiñari izan zana, zinieste sendodun kista zintsoa dala gustiok dakigu, baita auxe zala-ta agintari gaiztoak, guda aurfetik, bastertuta euki ebela.

Ba, giza-guren au, aguftza edo efosario-zale -zalea da, eta gudaldan bertan leti ehezetan eban.

Au yakiñik, Kolon'en Zaldunak deritxon bazkunakoak aurtemin Txikago'ra egin dabene osteran, Gibbons kardenal yakintsuak erabilten eban aguftzakin ufezkoa eskiñi eutsoen. I ta gizatasun malan gorago igonaz, Fotx'ek poz-pozik artu eutsen.

Guk ezautzen doguzan eta katoliko anditzat buru egiten dabene batzuri efosario bat eskiñ ba'eutsen, beaf ba'da beatotzat artuko ebekan bilduñez-edo, lotsaz artu ta ixil-ixilean gordeko ebela, ¿ezteritxo zu? Neuk bai beintzat!

Baña izenaren yaube diran gizonak beti *gizon* agertzen dira!

Go'f-mutu bat abade.

Ephemerides Liturgicae artutako idazki baten irakuri dogu, 1920'an, beaf diran bai penakaz go'f-mutu bat abade edo yaupari egin zala.

Auxe da yayotzatik gor-mutu edo izge dana, abade egin dan lenengoa.

Ez baño uste izan orain mutu danik, irakastex on baten itz-egiten irakatsi dautsoe, eta abatezarako beaf dituan yakingayak be bai.

Ondiño gizaldi bat ez tala, ez bai gogofak izan ziran gai onetzaz, geyenak go'f-mutuak gauza andirik ikasteko etzirala gai aldezten ebela; oin bariz iñok baño lenago Astarloa durangaf ospetsuak ta euzkeltzale yakintsuak oin *120 urte* irakatsi ebana; au da, mutuei itz-egiten irakatsi leikiola, iñok eztau ukatzen.

Ori baño geyago. Larnay, (Poitiers'en), 1878'tik 1885'era Marta Obrecht, *gor-mutu ta itsua* zanari gogo ta gorputz arazoetarako egi ta yakin-gai gustiak irakatsi eutsoezan, eta zeregin onetan geyen lagundu eutsona Blanca eritxon lekime gor-mutu izandakoa izan zan.

Ementxe bai egi esan geinke Terese deunak esaten ebana: «*Pazientziagaz* dana lortuten da»

Yazokun afigafia

Bertran'daf Koldobika deuna, Ameriketara belgundari ebilela, yauntxo batzuk yanari batera deitu eutsoen. Eta yoan egin zan baño egi garatzak esateko asmoaz. Yaten egozala ba, bertan egozan yauntxo ei, adiraxten emon eutsen, eurak yaten eben ogia, bertako indotañen odolaz nastautakoa zala, eruki barik menpean eukiten ebezelako.

Eta egi garatz au euren begien aurfen ipinteko, ogi zati bat artu eban, eta euren aurfen sakuatuz, gustiak afituta ikusi eben odol ugariak urtetan eutsoa.

Arpegira egi garatzak andikiari yaurtiteko adore andia beaf da, baño deunak egiak esaten..... *deun* dira!...

EGI - BARIK ALPERIK

Guzur bat aintzat artzen danean
dakarēn onuragaitik,
ezta kentzea ezez izaten
gizon askoren burutik.

Zer dala baña egia ikusi
ta ez maitetu gizonak?

Egi-egariz ibili beti
ta ez nai bere onurak?

Guzurā dala dirudi baña
sari dakusguz tamalez,
urēz beteko gizon afoak
egirik ikusi nai ez.

Oren yaungoiko txindia da-ta,
urdala oren eleiza,
olako danak zelan gura ba,
egirik? Ezta ezeza!

Auxe bai dala lotsagaria
adimendun gizonentzat,
egiak mindu, egitik iges,
urdala yaun ta yabetzat!

Zamaz beteko asto gaxoak
eruki emoten dausku;
baña gurariz txindiz zamauko
gizonaz zer esangogu?

Ure lufaren izpi dis-ditzak
lausotu dautsoz begiak,
eta pozaren ikusi ezin
goiko egien izpiak!

Eta zorunan bila or dabil
lertzeko zamaz lepoan
biderik-bide, bera begira,
ituntasunaz gogoan.

Alperik baña; laño artean
bilatu nai dau egia?
Ez ete daki egi-zoruna
dala Yaunaren izpia?

Azkatasuna zelan aurkitu
urēzko estuntzaz yosirik?
Eztuntzak bariz zelan uratu
egi utsaz izan ezik?.....



XI'Urtia.—206'gn. zenbakija.

Zornotza'n. — 1922'ko Azilaren—1.

IDAZTEUNAREN GOIARGIA

Aspalditxo esan gendunez, Idazteuna (Liburu Santuak) Yainkoa-ren goiargiz idatzita dago, au da, Goteuna-k (Espiritu Santuak) idazleari Bere argiz adimena argitu, naimenari idazteko eragin, eta idaztean Berak esan nai zuana bakarrik esan eta Berak nai zuan eran egin zedintzat laguntzen ziola. Ta augatik Goteuna-ren goiargiz idatzitako idaztiak, utsik bat ere ezin izan, Yainkoa Idazteunaren egile izanik, egia baño ezin esan dezakelako.

Idazteunaren Lege Zara, Yainkoak beretzat bereziki aukeratu zuan erriari eman zion. Lenbizi Mois-ek ortzi-luraren asiera, gizonaren sozkuna, ta Abaŕan ta bere ondorengoan edestia; ta Mois beraren azkenengo urterañokoa idatzirik, bere bost idaztiak Kutxa Deunean ipintzea agindu zuen. Mois-en bost idazti auen ondoren, yuda-eriko gizon batzuk beren eriko edestia idazten yaraitu, ta beste batzuk Yainkoaren bidea, irakaskintza deunetan eta yainkozko bizitza egiten zutenen gizon deunenetan erakutsi ziguten.

Eta yuda-erriak idazti auek guziak (Lege Zarekoak) yainkozko sozkuna zutela uste izan zuten. Bai zekiten, batzuk

Mois-ek, besteak Dabi-k, besteak Salomon-ek ta abar idatzita zeudela, baño idazti auen egilea Yainkoa zalakoan zeuden.

Beraz, yudaŕak uste izan zutenez, beren idaztiak (Lege ta Igarleak), yainkozko idaztiak ziran, eta Yosukisto-k bere itzaldi ta irakasketa guzietan yudaŕei, zuten uste au ez zien ukatu, bayeztu baño. Eta aunela bein esan zien: «Idaztiak aztertu itzazute; zuek beayetan betiko bizitza dagola uste dezute, eta beayek nitzaz ziñalda damate, Aitak ni igofri nauela-ta». Yosukisto-k, bada, yudaŕen ustea egitetsi ta indarfu zuan, eta uste aura egia izan ezik, iñola ere ezin egitzat eman, Yosukisto Yainko izanik gezuŕik ezin esan zuan-ta.

Baña Yosukisto-k yudaŕen aurean ez ezik, bere belduen (apostoluen) aurean ere Idazteunak ziona gertatu beaŕ zuala bein baño geyagotan esan zien; ta aunela Bere nekaldian gertatuko zanetzaz zien: «Zuek guziok gau onetan nitzaz nabarmenduko zerate. Idatzita dago bada: Artzaia yoko det, eta ardiak bareyatu-ko dira».

Belduak ere orixe erakutsi zuten, ta ori adierazi nairik askotan esan oi zuten:

¡TXORI GAXOA!

*Bere ointxoak zugatz adar-gain
zoriontsu dan txoria,
alaitasunez txorotxioka
dakusgu abeslaria.*

*Aizeak-zeaf bizkoñ doyala
izadi eres biguna
entzun dau eta, berak be bardin
goraldu nai dau Yaun ona.*

*Eskeñ oneko agertu nuirik
beren Egile Yaunagaz,
izate-zoñ ordaintzen dautso
abesti gozo-samuñaz.*

*Begi-begiko txoritxo au da
gustioentzat maitagari,
eskeñ oneko maitetasuna
bialtzen Goiko Yaunari.*

*Bañā zoruna beti da labuñ!..
Su-izkilua gertauta,
gizon bat dauko begira aretaz
samuñtasunaz aztuta.*

*Eta bat-batez ¡danba! entzunik,
txio lañiak egiñaz,
irabioka luñerantz yausten
azken arnasak dabilstaz....!*

*¡Il da gaxoa! Ez bañā gizon
ankeñari esan barik:
«Zer egin dautzut ni erailtzeko?
¿Noz egin dautzut kalterik?
Yauna goraltzen abestuteaz
iñok egin dau obenik....?
Ez neban uste ain biotz-gogof
izan leikela gizonik....!*

ZER EDO ZER

Edefto erantzuna.

Veuillot idazle ospetsuak idatzia da.

Bein baten basefitar gaizto batek, beste auzoko bateri ixeka egiten eutson, berak lez igandez lanik ez ebelako egiten, eta orde z yaupa (mesa) entzun eta egiñen onetan igaroten ebalako.

Basefitar zintsoak ikaskizun eder bat emon gurarik, auxe erantzun au emon eutson:

—Uste egik, gizon batek bere sakelean ondo gordeta saspì ontzufe yaukozala, baña txiro batetzaz erukituta, beretzat bat bakara gorde-ta, beste seirak emoten yautsozala. Zer eretxiko eunskio?

—;Zera! Zer esango dauskat ba? Egiñen edef bat dokala, eta gizon esku zabalari, beti eskaf ona agertuteko beartuta yagokala.

—Ene aizkide jedefto erantzuna!

Oin esan eidak; txiro ofek eskaf oneko izan beafean bere ongileari oratu, lufera bota, eta astinduaz, beretzat gorde yon ontzufe bakara kenduko ba'leuskiok: Zer esango eunke?

¿Zer esan? Eskaf txafeko gizon gaizto, ankefa dokala, eta gitxienez espetxean saftu beaf leukiela eta urkatu be bai...

—Ba, ene aizkide ta auzokide, egin-eginean ofrxe daukok eure edestia.

Yaungoikoak lan egiteko emon daukazan sei egunak sei ontzufeak dozak; eta bat beretzat gura yok, igandea; eta berari opaltzeko agintzen dauka; ik bariz, eta ire antzera beste askok, eskaf onak emon beafean, bere agindua eztok betetan, eta irainduaz saspigafena be ostu egiten dautsok. Ondo begituik eta barfin-barfin dozakala ikusikok.

Oin eure biotzak diñoskanez, epaya emoik eta bete auferantzean,

Erantzun au biotzean saftu yakon, eta ufengo igandean asi ta auferantza yaupa entzun eta yago lanik ez eban egin.

Euskotaf gustiak auxe egingo ba'lebe, eta ondo gogaldu, igandeko lanak inor eztabela aberastu!...

Osatze afigafia.

Urtero lez pantzetaf katolikoak, aurtan befogetamafgaen bidezkundea Lourdes'era egin dabe.

Euroen artean, mirariz auferko urteetan osatutako 150 yon dira. Eta Lourdes'ko Ama'ren bitartekotasunez osatze gelgafi bat ikusi dabe. Lebek osagile ospetsuak osatze au mirarizat arfu dau.

M. Rivolaen izena daben amasei urtedun mutila belauna bere tokitik urten edo erasota, tu'mor edo *anditu zuria* deritxoena eukona, ibildeu-nean yon zan. Eta Lourdes'ko uretan ankea saftu ebaneko, bat-batean osatuta gelditu zan. Eta efenik eta ezertako lofatzik ez ei yako gelditu.

Gasteak mirari edo alatz au ikusirik, Ama Birjinaren irudia besafetuetaz esan eban: «Orain beintzat nire aitak nai-ta-ez ziñestu bearfo dau».

Orixe opa dautsogu geuk be, ta beste batzuk egiten daben lez argiari begiak eztayozala itxi.
GAMA.

IDAZTI BARIJAK

EUSKERA, III URTEA-3'g. ZENBAKIA.—Lengoan arfu dogu, Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak dakazan ingurfi aunen azkenengo zenbakia.

Lau lan daka'z: «Burunda'ko Euskalkia», A. Intza'rena; «Institut d'Estudis Catalans», Azkue jaunaren txostena; «Bai» ta «Ez» aditz-aufean», Eguzkitza jaunarena; ta «Bai» aditz irabiatu-aufean», Azkue jaunarena.

Oso iraku'gafiak dira lau idazkiok.

«Euskera»ren arpide - sariak: Eusko-Ikaskuntza'ren bazkide diranentzat 6 lauerleko urtean, eta ez diranentzat 10. Zenbaki bakotxa 3 lauerleko.

Eskatu Bilbao, Ribera, 18.

S. FRANZISKO XABIER'EN BDERATZURUNERAKO IRAKURRALDIK.—Aita Mendiburu, Josu-lagun eta euskal-idazle ospetsuak idatzi ebazan, idaztitzo onek daka'zan iraku'gaf-yok; idazkerea (ortografia) bakafik aldatuta.

Indietako Beldu aundiaren jazopenak edefkiro azalduten ditu.

Salgei bakotxa lauerleko baten: *Mensajero del Corazón de Jesús*.—Apartado 73. - Bilbao.



XI'Urtia.—206'gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922'ko Azifaren—15.

ELGAROKO I IGANDIA

Luka-Deunaren XXI atzalburutik esakun eñeskadea

Aldi atan:

25.—Eguzkiñan eta ilargiñan eta ixarætan ikufak ixango dira: eta ludijan endanen ixu-ikarea, itxasuaren eta uñæen ofuak ikarauta.

26.—Gixonak igortuta, bilduragañik eta itxaropidiagañik, ludi guztijarentzako etofkixunakaz: ortzeko almenak lokatuko dira ba.

27.—Eta orduan Gixasemia edoyez datoñala, almen andijaz ta aintzeaz, ikusiko dabe.

28.—Betetan asten diranian etofkixun aunek, begiratu ta zebeñ burubak jaso; uñan zuben erospena dagualako.

29.—Eta irudikija diñotse. Ikua ta beste zugatz gustijak begiratu egixubez.

30.—Igalia eurakandik emoten dabeni-an, udea uñan dagola bai-dakixube.

31.—Ofetaraxe, zubeñ be gauza aunek egiztuten dakutzanien ekixube Jaunaren Bakaldeñija uñan daguala.

32.—Egiz diñotzubeñ, sentza au igaziko eztala, gauza dan-dan auek bete baga.

33.—Ortzea ta ludija igaziko dira: nire itzak, baña, eztira igaziko.

mini, et terribilem valde: Jaungoikuaren egun - eguna, baña ixukoña, diño Kere-mia'k. *Diem crudelem et indignationis plenum;* egun ankeña ta sumin betia, Isai'k diño. Eta ¿zegañik Epaikunde - egunatzaz ainbeste latz-ikara? «Epaikarijaren jakintzea atzipetu ezingo dalako ta beren zuzentasuna zabañtu ezingo dalako ta beren almenatik aldendu ezingo dalako» (Austin Deunak).

Gauñko goizpañkijean, epaikunde bildurgañi au geure betañian imintzen dauku Doibatzak. Azkeno egun au, ba, gogoratu dagigun Austin Deunaren irakas-kintz-bidez.

I

Lenengoz, Jaunguaren jakintzea atzipetu ezingo dalako.

Soñzetik oben-egiña ukatu dau gixonak. ¿Zer daga Adama'k, Jaunguaren agintzea ez-beteta? ¿zer, anai - erijotz - ostez Kain'ak? Euren obena ukatu eben. Baña azkeno epaikundian alpeñikua olako esamesa ixango da. Orduan ba: *Liber scriptus proferetur in quo totum continetur unde mundus iudicetur;* idaztija idegiko da, gixadija epaitzeko. Idazti au ¿zein da?

ESKER - TXARA

Ludi zabal au
da baratz aundi
apaña oro
landaraz,
beteta dana
lora ederez
nastaurik non nai
arantzaz.

Zaintzen dauna be
iguintzen dau ta,
goñotogañi
orontzat,
besterentzako
gorde añen be,
iñok eztau nai
beretzat.

Mota gustiko
landara onak
txoko danetan
daurkezuz,
euren ondolik
aldendu barik,
txarañak be idoro
eikezuz.

Landara txarañ au
bariz ugari
ikusit gura
ba'dozu,
biotz andidun,
oron ongile
dan ingurura
begitu.

Oron artean
baña bat dazaut
begitiko iñontzat
eztana,
ongilearen
biotzak non nai
ondo ezautzen
dabena.

Zoruntzu da ba
«esker - txarañeko»
inguratuta
dagona,
ta iñor ainbarik
aurkitzen bo'zu...
zalantz barik da
zekena.....

GABIREL.

IXILTASUN ARIGARIA

Bařiketa ta zarataren gizaldian bizi gara bařa ondiřo bai'dira euren beařkuna betearen ixiltasuna ondo bařo obeto zaintzen dakienak.

Autofkuntzako ixiltasuna zaintzearen bizia galdu eban Nepomuzeno'tař Yon zoriontsuak, gure gizaldi onetan yařaitza-leak bai'ditu.....

Dinogun au, oraĩtsu amaya euki daben yazokun ařigari bategaz egiztuko dogu. (1)

Aix.parantzetař goteřkiko eřitxo baten gertatu zan.

Eři onetan egoan gastelu baten emakume onbidetsu ta aberats bat bizi zan. Bertako txaunburu eđo pařoko on-onagan us-tea ipiřita eukon, bere bizibideko gora beretan zuzen ibilteko.

1889'ko goiz baten emakume aberatsa odol-eřeka baten erdian, bere yauregian erailda aurkitu eban.....

Txaunburu ona, oitura eban lez,goizean goizetik eleizaratu zanean eleiz-zařa (sakristaua) uferatu yakon autořtu egin gura ebala esateko.

Abadea poz-pezik autořtegian yaři zan, maltzuřak eukazan asmo gaiztoak bururatu barik.

Bere eleiz arasoak-amaituta etxeratu zanean, txiřel bi aurkeztu yakozan, aftu abade eřubakoa ta espetxeratzeko asmoz. Igaři eban emakume aberatsaren erailte ikaragarria berari leporatu gura eutsoela-ta, gustiz izututa gelditu zan...

Ildakoan auřera eroan eban eta zurbildu zan... bařa itzik ezaban atera. Au ikusirik epaikariak esan eban, erailea bera zala yakiteko orixe zala ezaupiderik onena, bestela zeibait esango ebala.

Ganera gasteluan sařera andia eukona

zan, eta auřeko ařatsaldean be bertan izan zan; erailteza gertatu zanean, etxea zaintzen eban txakufen ausirik be etzan entzun-eta, erailea etxean ezaguna izan beař....

Auzitegira eroaten dabe,bařa epaikariaren auřean ixilik geratzen da...

Gotzařnak bere izen ona zaintzeko,menpetasunez itz egiteko agintzen dautso, bera bařa ixilik...

Bere nagosiak ondo ezagutzen ebelako eřuge zala igari eban, alan da be auzitegi-an aldezlariak itanduten eutsonean, bere aizkide ta senideak egia esateko ařen egiten eutsoen ařen, bera ixilik eta ixilik.

Auzia amaitu zanean epai au entzun eban: «Bizi gustirako erbestetu ta lan neketsuetara zigortzen dogu» Epai gogoř au entzun eban eta ixilik yařaitu eban...

Gizonentzat eřudun zala argi agertzen zan...

Bařa Yaungoikoak bere gogoa gurutza aztunaren azpian ipinten dau gero gustiz gora yasoteko.

Gustiak eřudun etsi eban eta epai gogoa betetako Naume, Pazifiko deritxon itsasoan dagon ugarte batera erbestetu eban...Eta antxe egon da gaxoa bai, baita giza-gurena be, *ogetamairu urtean* bere zigofa eřu barik eroapen andiz igaroten, espetxe-zařnak bere ontasunařen ařitzen zituala.

Aurten, 1922'ko igaro dan bařilan gastelu eđera dagon eřiko sakristaua gexotu ta gaizki yaři zan. Gasteluko andrea esaten ebenez, orain 33 urte bertako txaunburuak erail ei eban ondasunak ostuteko.

Eleiz-zařa aldi atako berbera da.

Eriotzea uferatu yakonean autořkuntza egin ondoren *notario* ta lagun biri deitu eutsen eta euren auřean autořtu eban be-řolako andrea erail ebana eta ondasunak ostu eutsozana *bera ixan zala!*....

Txaunburuak gastelutik urten eban aratsalde atan bertan ilunabaferantza gaste-luan sartu zala, eta etxeakoandrea aizto edo kutxiilo bategaz il eta ostu ebanean gaiz-takeria bere parokoari autoftu eutsola, olan bere aldez *agoa itxi eragingo eutso-lako*; ziuñ egoan ba, autoftkuntzan entzun-dakoa argitu baño lenago urkamendian be bizia emongo ebala. Eta zuzen egon zan.

Abadea beti ixildu zan, eta ixiltasuna zaintzearen ogetamairu urte lan neketsu-etan igaro ditu..! Autoftkuntzako ixila zan -eta... ixilik euki beaf..!

Baña gurutza aztunaren ondoren pozta-suna datof, eta igaro dan garagarilean epaikari edo juezak ikusi dabe *ogetamai-*

ru urtean zigor gogofaren azpian euki daben eleiz-gizon ona erubakoa izan dala eta espetxearen ilunpetik atara dabenean, lengo erian paroko egin dabe, ixiltasuna zaintzearen ziñopa edo martiri izan dana.

Au yakiñik baster gustietatik kistañ asko yoaten dira, bera ikusi ta deun bateri lez eskuetan mun - egitera.

M.'taf G.

(1) Yasokun au gaitzat aftuta, Spillman aba idazle argiak; irakurgai edef bat «Una victima del secreto de la Confesión» deritxona argitaldu eban. Irakurle batek baño geyagok ezagutuko dabela uste dogu. Ba, an azaltzen dan yasokunak urte onetan amai edefa euki dau, ementxe esango dogunez.




Foto Ojanguren

SEGURA'KO (Gipuzkoa) TXADON NAGUSI ANTZIN-ANTZIÑAKUA



ELIZONDO'TAR JOSEBA MIRENA

ABA KAPUTXIÑO

TA

SOTA ETA ABURTO'TAR KATARIÑE
ANDERAÑO

Linpias'etik belbilan etozala, 15 neurkiñe-ko garaitik itxas bastereko atxetara jau-sita, il onen 5'gn. il ziran.

G. B.

Bijaramonian, izparingirik ez egoan-ta, aizkide batek jazokun tamalgari au edestu euskunian izuz eta ikaraz konkoñtuta gel-ditu giñian. Bijak genduzan ezagunak: Elizondo Aba Gernika'ko batzañera yoya-la emen geure etxian izan gendun; Sota'tar Katariñe bañiz nok ez eban ezagututen bere on-egiteetatik? Ganera Sota jauna geure ongilia da-ta, bere naigabiak geuri be berariz ikutu biañ.

Olako orduetan ezagututen da nor nor dan eta oingoan beintzat Sota jaunak ikusi dau aizkide asko daukala; Bizkai gusti-jan eta uññago be, alderdi gustijetakoak tamal andija agertu dabe-ta. Obiratxian 10.000 lagun baño geyago ziran, eta gero eri asko ta askotan egin dira il-otoyak. Ez dakit nik zer daukan ontasunak; bijotz gustijak irabasten dauz; eta Katariñe on-ona zala gustijok dakigu. Ondo erakusten eben Ondafetan ainbeste langile ta txirok bere gorpua igarotian, negañari ezin eutsin eutsoenak, ondo agertu eben Sota jaunaren gexo-etxian Katariñe'k ama batek baño obeto zainduta osatuten egozan gudari mutiak..... Olako ongiñeak elitzakez il biañ, esan euskuen; baña Jaunak saritu biañ dauz ba bere atsegintzan.

Elizondo Aba'ren gopazkidiei ta Sota jau-nari ta sendijari geure biotz-biotzeko ta-mala dagertsegu; ta bazkide gustijoi otoi bana ildakoen aldezkaten dautzuegu.

Mesa deuna toki eta ordu gustietan.

Lufa biribiña dalako, eguzkiak lufeko toki gustiak bata besteen ondoren argitzen ditu, eta eri bakoxtantzat orduak bata besteen ufengo igaro añen, *ludi gustian ogetalau orduak batera izaten dira*, eta alan norbait agertuko ba'litz toki gustietan batera bizi al izan leikena, arentzat ordu *bañar* etenbakoa izango litzake.

Eta Eleizak lateri gustietan yaupari edo aba-deak bananduta daukozalako, eten barik euron bitartez Yosú-Kisto'ren Gorputz eta Odol deuna mesa edo yauparen bidez Yaungoikoari eskin-tzen dautsoz.

Diñoguna egiztuteko Maillet aba yosulaunaren lan au ipiñiko dogu.

Paris'en gaberdiko amabiak diranean

Txina'ren sarñaldean toki oneitan mesa esaten da: Txensi; Se-Txuen; L'ünnan ta Kouzi-Txeu'n. Ordu onetan bertan Siam laterian ta Malaka ugarteetan, eta gerotxoago Bismania ta Tibet'en.

Goizeko ordubatak diranean. — Asia'n: Bengala Dakka, ta Kalkuta goterñkietan; apur bat geroago Zeylan'go ugarteetan, ta ondoren Madras eta Madure'ko Belguntzetan.

Goizeko ordu bietan. — Asia'n: Malabañ itxas-ertzeko iru goterñki oneitan: Misur, Goa, ta Bombay'n.

Goizeko iruretan. — India'ko itxasoan; - Parantze ugarteetan, beriala Borbon ugarteetan eta gero-txoago Madagaskañ'en.

Goizeko lauretan. — Asia'n: Persia ta Aden'go Belguntzetan; Arabia'n; Bagdad'en; ondoren Mesopotamia'n, gero Siria ta Palestina (Damasko ta Yerusalem).

Apirka'n; Abissinia ta Zankebar Belguntzetan, eta Europa'n; Rusia'ko atal baten.

Goizeko bostetan. — Asia txikeñean; beriala Grezia'ko ugarteetan; Europa'n: Poloni ta Rusia'ren alde baten, baita Austria ta Turkia'n be, Bulgaria bañuan dala. Apirka'n; Ejipto, Natal itxas-ertzean, Kapreri ondoan, eta Buena Esperanza deritxon lurmutuñean.

Goizeko seiretan. — Europa'n: Austria ta Alemania atal baten, Suiza ta Italia'n, Roma'n; beriala Beljika ta Ingalandan. Apirka'n. — Tripoli,

Tunez eta Pernando Pgo'ko Belguntzetan, gero Argelia ta Arnobey'n.

Goizeko saspiretan.—Europar; España, Portugal, Eusko-erri gustian eta Irlanda'n. Atalan-tiko itxasoan Santa Elena ta Feroes ugariteetan.

Goizeko zortziretan.—Apirka'ko itxas-ertzetan, Senegal'en; S. Luis ta Korea'n; Senaganbia ta Ginea'n Cabo Verde ta Azores'en. Izotz itxasoan: Islandia'n.

Goizeko bederatziretan.—Ego-Amerika'n Brasil'go izturi, Pernanbuko ta San Salvador'en.

Goizeko amafetan.—Ego-Amerika'n: Brasil; Guayana ta Paraguay'n; Ipar-Amerika'n: Teranova ugaritean;

Goizeko amaiketan.—Ipar-Amerika'n: Nueva Eskozia'n, Antillas itxasoan: Trinidad, Dominika, Martinika ta Guadalupe deritxoan ugariteetan. Gerotxoago Haiti ta Santo Domingo'n: Venezuela, Bolibia ta Arjentina'n.

Paris'en eguerdiko amabiak diranean.

Mesa deuna emoten da: Ipar-amerika'n: Kanada, Hudson Virginia, Karolinas ta Florida'ko Belguntzetan.

Antillas itxasoan: Jamaika ta Kuba'n. Ego-Amerika'n: Nueva Granada, Ekuador eta Peru'n.

Afatzaldeko ordu batetan.—Ipar-Amerika'n: Missuri ta Lusiana'n eta bereala Texas eta Mexiko atal baten.

Ordubietan.—Ipar-Amerika'n: Mexiko ta indotaren artean.

Iruetan.—Ipar-Amerika'n:—Kalifornia ta Oregon'en.

Lauretan.—Itxasoan: Magareba ta Markesas ugaritean.

Bostetan.—Ozeania'n: Pomoto ta Taiti ugartetzan, eta ugartetza nagosian.

Seiretan.—Ozeania'n: Samoa Tonga ta beste ugarite askotan, gero Valis eta Fortuna ugariteetan.

Saspiretan.—Ozeania'n: Viti ugartetza, Gilbert ugarite ta Nueva Zelanda'n.

Gabeko zortziretan.—Ozeanian: Pinos eta Nueva Kaledonia ugariteetan. Nuevas Hébridak, Karolinas ta Pilipinas bafietan.

Bederatzietan.—Ozeania'n: Australia sarkaldean; Sidnei, Brisbana, Nueva Ginea, Karolinas ta Marianas'en.

Amafetan. Ozeania'n: Adelaida' Australia sarkaldean, Molukas, Zelebes eta Pilipinas'en. Asia'n: Mandtxuria, Korea, ta Nippon'eko Lieou-Kieou ugaritean.

Amaiketan.—Ozeania'n: Pertux goterikian, Australia sarkaldean, ta Malasia sarkaldean. Asia'n: Txina sarkaldean (Gekin, Shanghai ta Nankin) ta gerotxoago Kotxintxina ta Tonkin'en.

Malakias iragarleak esan ebana egiztuta dakusgu ba: Etofiko diran aldiak ikusiko dabe, ez eleiza bakaña, asko baño; eta *ordu gustietan*, Yaungoikoari opalben garbia eskiniko yako (Malak. I).

Amarfafena ta amaika zalea.

Lon amarfafena, Aita Santua, 1.475'ko Lotaziñaren *amaikan* yayo zan.

1.512'ko yoñala'ko *amaikan*, pantzetañak espeteratu eben.

1.513'ko epalaren *amaikan*, Doipuru edo Aita Santu autu eben.

Eta burestundu edo koronau eben, urte atako yoñala'ren *amaikan*, Pantzetañak espeteratu ebela urtea betetan zan egunean. ¡Nok esango eban! Baña *munduko* gora-berak onantxe izaten dira.

Baña ez uste *amaikan* yazokunok gertatzeak bizitzako gora-beretan zer ikusirik euki ebanik.

Amairuan izan ba'lira bez gero....!

GAMA.

EUSKEL - GAYAK

Elantxobe'ren ltxoñkunea.

Elantxobe-ixendun uriña, polit-polita da. Ogoño-atxaren bizkañian dago: eta bertan zelairik eztago, aldatz-pikean dagualako; ofañoño erri polita ta liraña da, itxaso-zabala bertatik dakus-ta. Eta ganera, uda-aldirako toki obiagorik eztago; ipar-axia, ba, bete-betian eltzen yako. Eta baña be eguzki-berorik eztauka, Ogoño-mendi-jak jaboten daulako. Entzutzuba ixan da beti, erri txikañ ta polit au: goretsi dabe, ba, beren seme bikañak.

Elantxobe'ren itxoñkunea, esten-dot, iluna ez-tala.

Elantxobe'k iru atal daukaz: *El-antxo-be*.

El ori, *Eloño*'n, *Eloñeta*'n eta abarean dauka-gu. *El ori*, baña be, *Elgeta*'n *Elgoibar*'an dauka-gu: *Elgeta* = *el-ge-eta*; *Elgoibar* = *el-ge-ibar*. *Elantxobe*'ren *el*, ba *elofi*'ren, lenengo zatija da.

Antxo, bigañen atala, *Elantxobe*'rena da. *Aintzi*'tik *antxo* datof; geure sendiko etxiak, be, Ar-



JAVN GOIKO · ZALE

XI'Urtia.—207'gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922'ko Lotazilaren—1.

Argia.

GURE ZAINDARIA

*Maitasuna sua lakoxea da. Sua bařiz iřnoz ez da asetzen. Erekaġ ge-
yagota egaři biziago.*

*Su gařa iřnoz ez da gelditzen, beti artega, beti urduri, beti bere ego
bizkořak alde gustietara zabaldu gurarik...*

*Sua eragozpenak ez dau bilduřtzen, eta garaitu ezin ba-dau, laztan
beroak azkenerařo bialtzen iřlotzik gelditu arře yardungo dau...*

*Onexek oldozkunok sořtsen yakuz gogoan gure Zaindari bikain Xa-
bier'tař Pantzezka'ren bizitza gogaltzen dogun gustian.*

*Bere bizitza itz bategaz azaltzekoa ba'řitz, etenbako Yaumaitasun su-
tzara izan zala esango geunke.*

Bere bizitzaren eustazpia, izan zeitekeanik sendoena izan zan.

*Loyola'tař Iřnaki'k, Paris'en bere aizkide kutun egin ebanean, ainbeste
bideř beřesan eutsozan Kisto'ren itz gomutagařiok bere biotz bařenean
sařtu řa asmo edeř gořtařak arřtu eragin eutsozan: «Ludi gustiaz yabetu-
tzeak bere gogoaren kaltez ba-da, ze onura egingo dautso gizonari»
(Matth, XVI-26).*

*Itz oneik eragin eutsen zařtadeaz, bere biotza gustiz aldatu zan. Lu-
diko itxaropen eta etořkizun edeřa, ostikopetu, eta goirantz begira ipiři
eban, Yaungoikoaganantz, gure biotzaren zorun bakařa Bera da-ta...*

*Ařezkerotik asmo řa ames bateko gizona izan zan: Yaumaitasunez
gařetan eukon biotz andiaz gizon gustiak berotzea.*

Eta bere onoimen ařigařien sustařa ortxe dago.

Bere otoi eta laztasun ařigařiak; apaltasun, eřuki, řa geide-maitasun

neuribakoak; berak idazki baten diñon lez» atsekabe ta arisku artean, gozotasun andiagoa, atsedean aldian baño artzeak»; galtzeko zoriz egin-dako yoañ-etoñi etenbakoak; ziñesge gustiei kistañ-ikastia irakatsi, eta bakotxari bere elez irakasteko egin ebazan alegiñ - alegiñak; agintari ta andikiei egia, naiz ta gañatza izan, esateko euki eban adoreak; itz baten, giza-biotz gustiak Yaungoiko maitasun gañetan ipinteko eukon gurari bizi-biziak, bere asmo bakañ ta goitañ utsean euki eban bere sustaña...

Ara oñ Yaungoiko Zale'koen eredu bikaña. Bera da, «Euskaldunei Euskeraz» zeruko bidea irakasteko leporatu gendun araso latsean, autu gendun Zaindari goñagaña...

Berau Eleizak Deunen leñoañ ipiñi ebanetik irureun urte aurten bete dira. Bere gorpuzkiñaren añaan, ziñestebakoen alde z gogotsu lan egi-teko erabagi sendoak aña doguzan lez; aspalditik geure biotz bañuan yosita daukogun asmo Yaungoikozkoa, zin-egiñaz, sendatu daigun:

Yaungoikoaren aintzarako, «Yaungoiko Zale»k autu daben bidea, au da «Euskaldunei Euskeraz» zeruko bidea erakustea, bizitz onetako onurari begiratu barik, zintzo, sendo ta adoretzu, txefenak bidean ipiñiko dauskuzan eragozpenak ostikopetuta, il arteraño beteko dogula.

Eskari au apalik egin dayogun:

Gure Zaindari guren-gurena

entzun abegiz gure aña:

*Laguntza barik ezer ez gara
loñtu ba eñuz Yaunan eskaña,
eusko-biotzak, euskotañ elez
landurik beti bide zuzenez,
izan daitezcan kistañ zintzoak
Yaunan gudari adoretzuak...*

*Gure babes ta poz-asetzale
zaindu zerutik «Yaungoiko Zale».*

M.ñaf G.

SORTZEZ GARBIA-SORTZEKI GARBI ; J.Z. 1922-207-280

Ama maitea
Sortzez Garbia,
gure Artizar
bardingabea,
gutzat Itxaso
gozotasuna,
biotz-samiñen
zorun-zoruna,
ez yakiñontzat
yakitura,
obendiontzat
goi-errukia,
Zu etsai kaltez
poz eta indarra,
gizadiaren
Ama bakarra,
Zure deuntasun
guren-gurena
Yaun Altsuaren
eskutapena
da ta, Yarleku,
zoriontsua,
goi-gotzonaren
gañetiko,
ezin neike ba
iñoz ulertu;
neurgea danik
ezin lei neurtu.
Dautort biotzez
apal-apalik:
«Zure gañetik
Yauna bakarrik»
ta seme usteaz
pozez diñotzut:
«Amatxo laztan,
nik maite zaitut!».

¡SORTZETIK GARBI!

Lili politik margoz bikañak
eder-ederak, oso lirañak,
dakustaz, Ama, aran-ertzetan,
baña Zu añan zoragaírik
ez dot aurkitzen ludi onetan.

Eguzkiaren argi aratzak
ederitzen dituz ibaf-baratzak,
gure biotzak bífloraturik,
baña ez dazaut ezer ludian
Zu bezin Ama pozkaí danik.

Ituítxoen gardentasuna,
txur-txur samuñen gozotasuna,
begi-biotzen atsegin dira.
Bañan, Amatxo, zure ondoan
atsegin danok ezer ez dira.

Egun-abafan argi gozoa
bideztiaren itxaro osoa,
bai'dala ziñez maitagaía;
Zure izpien ondoan baña,
ilun dirudi, Ama Maitea.

Poza, zoruna, samuñasuna,
argi gozoa, ederñasuna,
goitar abesti liluragaí,
efuki utsa kistaí orontzat
Zu zara, Miren Soítzetik Garbi!...

GABIREL.

ZER EDO ZER

Arek aufera doazi

New York'eko katolikotarak aribako urutizkiñaz, kistak ikastia zabaltzeko era bari bat asmau dabe.

Eleiza bat ipiñi dabe, «Amerika'ko Radio-Eleiza» deritxona, laterietan bananduta toki urfiñetan dagozan kistarakaz artu-emonak euki al izateko, aribako urutizkiñaren bidez.

Eleiz onek gogo-arazoetan lagunduko dautse, eri-etxeetan gexorik dagozanai; bananduta dagozan kistak; itxasontzietan dabilzanai, eta itz baten, eleizkizunetara yoan eziña dauken gustiei.

Entzuleak zenbat izango diran ezez ezta yakiten baña, gora-bera andiak eukiko dituela-ta, *25 mila tik 125 milera* izango dirala *kankuleu* dabez.

Gu be emen gabiz *Jaungoiko-Zale'n* kistak ikastia zabaltzeko zerbait egiten dogulakoan, arek baña gure ondoan egazkada luzeak egiten ařanoak dira gero!

Alpeřakaz arduraz mufilaki

Beařagaz betiko asarřatuta dagozan asko baster gustietan ikusten dira-ta, eurezaz onu bat ipintea egoki deritxogu.

Onu edo konseju au ezta atzo goxekoa, oin *mila ta zortzireun ta berogei urte* inguru dala egingako liburutik artutakoa baño.

Idazti oneri *Didaxé* edo «Amabi Apostoluen irakaskintza» deritxo; lenengo gizaldietan kistak artean galduta Filoteo Bryenios yakintsuak Kostantinopoli'n idoro ta 1883'an argitaldu eban. Ara ba idazti onetan alpeřatzaz irakurten diran onu mamintsuak.

«Gure artera eltzen dana bizilekurik eztaukon bidezta ba'da, aldozuen gauzetan lagundu egiozue. Zeuen artean gelditu gura ba'dau, *beař egin eta yan dayela*.

«Irabazbiderik ezpadauko, ondo deritxozuen eran, arduratu irabazbidea euki dayen, kistak bat zeregin barik egotea ezta egoki-ta.

«Beařik egin gura ezpadau, ori Kisto'ren irakaskintzaen salerosle bat da. Olakoakaz zuribili!»!

Auxe irakatsi eban lentxoago Paul deunak

»Norbaitek beařik egin gura ezpadau eztayela yan be». (2 ad Tes. III-10)

Orduan be oingo antzera, beařari tiroa emonda iřon lepotik bizi gura ebenak gitxi etziran izango-ta!

Ia ba, zuř alpeřakaz, ta «beařik egin gura eztabenak eztayela yan be», eta ez uste au oingo *sosolistoak* asmautako *nobedade-bařien bat* danik, au, aspaldiko ipuņa da!

Txinařak euren ele edo izketaren alde.

Izketan erabilten daben txinař eleak, eřki bařterik bestera alde andia ei dauko, baņa idazkeran Txina gustian bat ei da; oso aberatsa, miřaka ta miřaka mařa-izkiak daukozalako; baņa gustiz saļa, ondo ikasteko bizi gustia ia beař dalako.

Auxe dala-ta eřomatař alfabeto edo izkiak ařtuta eřaztuteko alegin andiak egin dira, eta asmo ořegaz bertan dagoan gotzain Ibañez yaunak idazti bat ointsu idatzi dau. Idazle onek diņo alfabeto bařiak 31 izki eukiko dituala. Orain bařiz Europařakaz ařtu-emonak daukiezan txiņař ikastunak aukeratu dabenak 39 izki eřez eukiko ei dauz, eta idazkera ori zabaltzen gogor asi dira, eta uste izan lei lasteř ikasle ta salerosleen artean zabalduko dala, izpařingi ta aldizkingiak era onetan idazten azi diran ezkerero.

Txiņařakaitik au ta bestea esaten dogu baņa, ba'leiteke euskaltzaleoi irakaskizunen bat emotea!.... Eta au mutilek, e, lotsagařia izango litzakek!.... Txinařai auřea ařtzen itxi!....?



XI'URTIA

208'gn. ZENBAKJA.

1922'ko LOTAZILA 15

Egurrola'ren Jostetxea, Lekeitio'n

PLAZA DE LOS FUEROS

ABADE, GIXON ETA EMAKUMIEN SOÑEKO LIRAÑAK

BILBAO'n ESTRELLA ostatuan iñero.

GERNIKA'n NUÑEZ' arenian.



JAUNGOIKO-ZALE

XI'Urtia.—208'gn. zenbakija.

Zornotza'n.—1922'ko Lotazilaren—15.

GOTZAIN BARIARI AGUR

Efoma'tik datozen izpatak jakin-erazo dauskue il onen 11'gn. Aita Santuak Eijo eta Garai'taf Leopoldo, gauf arte gure Gotzain izan dana Madrid'erako autu daula ta Gasteizko Gotzaintzarako, bariz, Martinez Nuñez Zakarias jauna.

Gotzain barija dogu ba, ta «Jaungoiko-Zale»kuoi dagokigu len-bai-len geure omenik zintzoenak berari eskintea. Kristiñau ikasbideak at danik efo-tsuen geure ardurapeko erijetan erne daitezan alegiñak-alegin egin gurarik euskaldunei euren elez ikasbide ofek, bai itzez eta bai idaztiz emoteko batzau ta alkaritu giñian, Euskaleria zorijontsu Kisto'ren menpean beti ikusi gura dogulako; ta gaur Artezkari, Irakasle ta Nagusi barija izentau dauskuen ezkeru, bere aurfean makuñtuta eskatzen dautsogu gure asmoak onetsi, daiskuzala bere aufetiko iru Gotzañak onetsi dauskuezan lez, bere onespenagaz gure lanak emokoñago izango dira, ba, Jaungoikoa'ren aintzarako.

Betof ordu onuan gure Gotzain eta Aita arimakua. Jesukisto'ren ordezkooak bialdu dausku eta guk Jesukristo'ren otsein eta bere Eleizearen seme zintzoak garianok, Jaungoikoari eskeñak, geure Nagusi ta Irakasletzat artuko dogu, ul eta indaf gustijakin bere eginkizun astunian laguntzeko gerturik.

Stet et pascet in fortitudine tua, Domine, in sublimitate nominis tui.

GOAZEN....!

Aur' polit bat
gaur' Belen'en
yayo ta otz
dar-darka,
aska baten
lastoen gain
datza negar'
zotinka.

Obena'ren
iges zoyaz?
Zer dala-ta
bildur'tu?
lastotxu-gain
oregaitik
nagola ez
dakizu?

—Maite orek;
zer dala-ta
negar' - zotin
dagizu?
Toki ortan
txiro-txiro
zek ipiñi
zaitu Zu?

Yaungoiko naz
zeure Aita,
oin nayatzu
anaya,
maitasunez
daka'rtzut gaur
obenaren
amaya.

—«Gizonaren
obena da,
apal-apal
naukana,
negar'-zotin
dagit, iges
doyalako
gizona.

Zatoz gizon,
ez bildur'tu!
maitasunez
diñotzut,
biotz onez
maite nabek
obenak kentzen di-
[tut».

Atoz, atoz...!
gizonori,
ez Nigandik
iges ein,
zeure maitez
nago emen,
laztandu nai
zaitut bein.

Obendiok,
ez bildur'tu,
goazen gaur'
Belen'era,
gure maitez
datzan Yosuk
biotzez-gur'tutera....!



ZER EDO ZER

Gabonak dirala-fa.....

Izpar txo batzuk atal onetan ipintea egoki deritxogu.

Gabon yayak, kistafontzat egun alayak, egun pozkañiak dira, gure Gaizkatzañe gizon eginañaren yayotzea ospatzen dogulako.

Yai au batzun eretxiz Telespor I, Aita Santuak 136'n urte inguruan ipiñia da. Toki gustietan baña aldi baten ezeben ospatzen. Sañkaldean batez be, batzuk Ofiñan, beste batzuk Yoñala'n eta Urñafiñan ospatzen eben.

Urñafiñan ospatzen ebenak Eñegen egunaz bat egiten eben, Antiokia'n Yosuren yayotza ospatzeko, 377'n urte inguruan egun berezia autu eben arteraño. Eta laster, Yulen I'ak, gustientzat Lotaziñaren 25'n eguna autu eban, eta, añezkerotik oitura edeñ ori toki gustietan zabaldu da. Alan da be, XII'gn. gizaldirarte armenitañak Eñegen eta Gabon eguna egun baten ospatzeko oiturari yafaitu eutsen.

Egun onetan yaupari baktzak iru mesa emon leikez, eta oitura au antziñ-antziñakoa da, IV'n gizaldian beintzat ezagutzen zan-ta.

Ludiaren asikeratik zenbakañen urtean yayo zan Yosu?

Geyenez esaten da, 4.000 urte, Yosu-kisto'n aufetik igaro zirala; baña onetzaz eretxi asko dira ta baktzak ziuñen deritxonari yafaitu leyo, Eleizak gai onetzaz erabagirik eztabelako emon. Baña yafaitzeko beañkunik eukiezañen, gauza yakingañia dirudi-ta, Eleiz baipenaz argitalduri-ko *Martirologium Romanum* edo Ziñopa idazia deritxonak dakañen au ipintea otu yaku.

Berau Gabon goizean lekaretxeetan eta otoi abestuak esaten diran eleizetan irakuñten da. Ara emen:

«Ludiaren iraskundetik 5.199'gn. urtean, Uriolatik 2957'n, Abañan'en yayotzatik 2015'n, Mois

eta Ixafel'go eñiak Egito'tik urtenda 1510'n, Dabi bakalduna igortzia izan zanetik 1032'n, Danel'en iragañkitik 65'n astean, 194'ngo. Olinpiada'n, Eñoma'n iraskundetik 752'n, Octabiano Augusto'ren bakalduntzaren 42'n urtean, ludia gustiz gentzatsu egoalarik, Yosu-Kisto Yaungoiko Betiko ta Aita Betikoaren Semeak, bere etofera eñukitsu - eñukitsuagaz luña donetu gura izan eban, eta Goteunaren egitez sortzetik bederatziiñabete igaro ondoren, egizko gizon lez, Miren Neskutzagandik Bethlehem'en yayo zan.

Aurfengo Gabon eguneko barau fa aragia iztea.

Beste urteetan Gabon eguneko barau ta arautztea auñeko sapatuta aldatzen zan. Baña aurtent, Gabon eguna igandez yausten dalako, ez egun oñetan ez auñeko egunean dago beañkunik barau egin eta aragia izteko.

Eleiz Legediak diñonez ba, K. 1252, 4º, yai egunean Gabon eguna yausten danean, barau eta aragia isteko beañkunik eztago, eta beste egun batera aldatzeko bez.

Beraz aurtengo Gabona arakiñ edo *karnazer-uentzat*, beste urteetako baña alayagoa izango da.

Euskerazko egutegiak zuzen dakañ emen ipinten doguna, baña beste erderazko egutegi batzuetan, auñeko sapatuan barau egun eta aragia isteko eguna dala iragarten dabelako, oker au zuzentzeko oartxo au ipinten dogu.

Eta beste barik:

Zer edo zer dan
ataltxu onen
irakurle
gustjei,
biotz-biotzez
opa dautsedaz
Gabon-Zorunak
ugari.

GAMA.

ELEIZ-ORIA Zabaldu egizu zeure eleiz-ta ren artian.

Iñean 100 iyeki, lauerleko 2. JAUNGOIKO-ZALE banakaritari eskatu.
